

# **Marina Tsvietáieva**

## ***Bizia Esanahi***

### ***Wilnoko gutunak (1934-1935)***

#### ***Nire anaia andrazkoa***

**Karmele IGARTUA BENGUA eta Tere IRASTORZA**

Aurkibidea

- 1.- BIZIA ESANAHI
  - 1.1. Ibilbide bat
  - 1.2. Bizi ahala idatzi
    - 1.2.1. Marina Tsvietáieva Moskun

- 1.2.2. 1922: Berlinen barna Pragara
  - 1.2.3. 1925. Beste errusiar bat Parisen
  - 1.2.4. Bidaiaren amaiera: itzuli ezina
  - 1.3. Irakurketa gomendagarri batzuk
  - 1.4. Lan honetan erabilitako bibliografia
- 2.- WILNOKO GUTUNAK (1934-1935)
- Marina Tsvietáieva bere hitzetan
- 2.1. Erbesteko bizitzaren testigantza
  - 2.2. Wilnoko gutunak (1934-1935). (Iruzkina)
- Idaztea: pasio baten lekukotasuna
- 3.- WILNOKO GUTUNAK. (1934-1935). (Itzulpena)
- 3.1. Jorge Segovia eta Violeta Bick itzultzaileek jasotako oharrak

- 1.- BIZIA ESANAHI
- 1.1. Ibilbide bat

Bergarako Idazle Eskolako ikaslea nintzen, irakasleak *Cartas del verano de 1926* izeneko gutun liburua irakurtzera eman zidanean. Liburuak, Tsvietáieva, Rilke eta Pasternaken artean gurutzatutako gutunak eta hiruren arteko harreman literario, intelektual eta amodiozkoa jasotzen zituen.

Hasiera hasieratik erakarri ninduen hiruren esateko moduak eta esanak, eta hiruretan, bereziki Marina Tsvietáievaren indarrak, amodioa esateko zehaztasunak, gutunetan islatzen zen pasioak, bizitzaren inguruan erakusten zuen ikuskerak, hitzetatik harantzago joateko ematen zuen aukerak. Idatzita aurkitu nuen emakume sena, izaki-espíritu librea, amodioa, barrua.

Esan dezaket idazleak beste harrapatu ninduela pertsonak, eta haren berri jakiteko irrika esnatuta abiatu nintzen emakumearen bila; banekien gutunetan topatu nuen pasioak atzean bizitza bakan bakana behar zuela eta horrela haren beste gutun liburu bat eskuratu nuen, publikatua izan arren, bere bizitza pribatuko

gutun bilduma bat: *Cartas de Wilno (1934-1935)* eta gutun horien itzultze lanari ekin nion. Batzuetan egunak ematen nituen paragrafo bakar batean haren hitzen zehaztasuna era zehatzenean adierazi nahiak eramanda. Itzul-tze lanak Marinaren erraietaraino eraman ninduen eta era berean areagotu egin zen nire sormen lana. Itzulpen lanak eguneko lehen orduak hartzen zituen eta beste ordu batzuetan biografoek idazlearen inguruan esandakoak irakurtzen nituen, Simon Karlinskyren *Marina Tsvietáieva* edo Joseph Brodskyren *La canción del péndulo*, esate baterako.

Gutunetatik hasitako ibilbideak Errusiako iraultza garaian Tsvietáievak bizi izandakoak irakurtzera eraman ninduen, *Indicios terrestres* liburura eta bertan kontatzeko era argiak, erritmoz eta sinbolismoz beteak harrapatu ninduen.

Poesiara iritsi nintzenerako banekien Marina Tsvietáievaren inguruan asko. Ezagutzen nuen haren esateko modua, baina berriz ere liluratu ninduten haren errima indartsuek edo fonemekin egiten zituen hitz jokoek; poesia entzun egiten zela iruditzen zitzaidan eta ikusi, iruditan bezala, *Tres poemas mayores* poema liburukoetan kasu.

Horregatik edo, erraz jaso nuen, aipatu zehaztasuna lortzeko, gidoiaren erabilera partikularra edo elipsiarekin nola jokatzen zuen, poesian bezala saiakera liburuetan.

Marina Tsvietáieva bera bizirik zegoen irakurtzen nuen guztian: gutun, kontakizun, poema, saiakera, nahiz antzezlanetan. Gizaki, emakume eta idazle izaerak banaezinak agertu zitzaizkidan Tsvietáievarengan.

Ez dago, esandako guztiagatik, Marina Tsvietáievaren obra ulertzerik bere bizi-tza ezagutu gabe, baina orain badakit hari bizi-tza bizi-ezina izango litzaiokeela bizi ahala idatzi ez balu dena.

## 1.2. Bizi ahala idatzi

*“Ni, izan, bat eta banaezina naiz: oholtzan – eta etxean albondigen gainean. Albondigen gaineko ni-ak idatzi du oholtza gaine-koak irakurri duena”.*<sup>1</sup>

### 1.2.1. Marina Tsvietáieva Moskun

Marina Tsvietáieva 1892. urtean jaio zen Errusia erdialdeko Talistsy herrian.

Aita arte irakaslea zen, lehenengo ezkontza batetik bi seme-alaba zituena: Valeria eta Andrei. Emaztea hil eta bigarren aldiz ezkondu zen, orduan Maria Alexandrova hartu zuen emaztetzat, Poloniako noble familia bateko alaba, piano-jolea bera. Ezkontza honetatik bi alaba jaio ziren: Marina 1892an eta Anastasia (Asia) 1894an. Beraz Errusiako iraultzen (1905/1917) aurrekarietan jaio zen Tsvietáieva. Literaturan Chejov eta Swoloviev nabarmentzen baziren ere, behe aldi baten eroritako mundua zen literarioa, eta Marina bera hazi ahala hasi zen Errusian literaturaren birsortze bat.

Idazlearen haurtzaroa bi leku aipagarrik markatu zuten nabarmenki eta bere obran, haren bizitzan garrantzitsua den guztia bezala, behin eta berriz azaltzen dira: Triojprudnyko etxea eta Tarusa, oporraldietarako herria.

Esan daiteke haurtzaro lasaia eta oparoa izan zuela. Ama piano-jolea izanik, musikak leku berezia hartu zuen bere bizitzan, baina poetak adierazten duen arabera amak ez zuen larregi maite, eta amak gorroto zuela esateraino ere iristen da idatzietan.

Garai hori gai duten bere kontakizunetan gogoratu nahi duena bakarrik kontatzen du eta gertakizun asko berri egiten dituela esaten dute idazlea eta haren bizitza aztertu duten ikertzaileek. Horren eredu 1935ean idatzitako *Deabrua* kontakizuna izan daiteke, bertan debekatua gertatzen da erakargarri (amodioa, arriskua, errusiar literatura bera...) eta era sinbolikoan adierazita igarri daiteke deabrua dela pekatua, ama oinaze jasangaitza eta protagonista bakan eta pribilegiatua. Errukirik gabe idatzitako kontakizuna da.

---

<sup>1</sup> *Wilnoko gutunak (1934-1935)* MALDOROR, 2002. 54. or. Jatorrizko izenburua: *Prisma k Natalie Hajdukiewicz*. (RP) Moscú, 2002.

Marinak 13 urte zituenean izan zen Errusiako lehen iraultza (1905). Ordurako bazuen hark bere iritzia eta iraultzaren alde azaldu zen.

Garai hartan ikasle txarra zen, eskolan aspertu egiten omen zen; hala ere, ordurako, bai idatzi baita asko irakurri ere egiten zuen eta bere poeta gustokoak alemanak ziren: Goethe edo Heine; gero errusiar erromantikoak: Zhukovski, Lermontov, edo hauen jarraitzaileak Fel, Iákov, Polonski edo Apujtin. Geroago, 1909. urte inguruan sinbolismoak erakarri zuen, Kobylinski, Briusov, Blok edo Bielyren bidez.

Hamalau urte zituela hil zitzaion ama; gero, amaren delako hoztasuna adierazteko asmoz, gogoratu egiten ditu amaren hil aurreko hitzak:

*“Bakarrik sentitzen dut musika eta eguzkiarengatik”.*

Karlynski, 39.or.

1912an, ezkondu egin zen Serguei Efronekin. Hemeretzi urte zituan Marinak eta Sergueik hamasei. Urte horretan *Linterna magikoa* idatzi zuen. Liburu horretan eta bi urte aurrerago idatzitako *Arratsaldeko albuma* izenekoan haurtzarora da gai nagusia eta autobiografikoak dira liburuetan idatzitako poemak.

1913an izan zuen lehen alaba, Ariadna (Alia). Garai hartan asko idatzi zuen, alabari eskainitako poesia batez ere. Marinarentzat ama izatea beste ezerekin konparatu ezin zen bizipena zen eta horrela erakusten du 1932an idatzitako *Nire anaia andrazkoa* narrazioan.

1914-15 tarte horretan bere bizitzan erabakiorra izango den amodio harremana bizi izan zuen Sofia Párnokekin, uda horretan batera bizi izan zirelarik. Garai hartakoa da *Gaztetako poesiak* lana, bere estiloaren eraldaketa markatu zuena. Eta 1916an *Laguna* idatzi zuen, Sofia Parnoekin aipatu harremana hautsi eta gero. Lan honetan heldutasuna nabaria dela diote kritikariek eta baita Mendelstan, Blok edo Ajmatovaren eragina ere.

Hezigaitza zirudien Marinak: librea pentsamenduan eta bizitzan. Horrek eta amatasunari eta emaztetasunari zion leialtasunak bideratu zuten haren bizitza tragediara:

Bizipen tragiko haien lekuko izan daiteke *Verstas I* (1917) poema liburuko poema hau:

V ogrómnom górode moióm – noch  
 Iz dóma sónnogo idú – proch.  
 I liúdi dúmaiut: zhená, doch.  
 A iá zapómnila odnó: noch. P8Karlynski, 87.or.

“Nire hiri mugagabe handian eroria – gaua.  
 Etxe beilaritik banoa – urrunera.  
 Jendearen buruetan: emazte naiz, alaba.  
 Nik gogoan: bakarrik: gaua”.

Hitz gutxitan agertzen dira epe labur horretako bizipen sakonak: ama hil, ezkondu, bera ama izan, amodio harremanak edo Errusiako iraultzaren erdian bakarrik geratu izana.

Eta horrekin guztiarekin batera ordura arteko bizitza oparoa zailtasunez betetzeak izugarrizko hausturak ekarri zizkion.

Harremanetan ere haustura nabarmenak bizi izan zituen, esate batera, Sofia Parnokekin utzi eta Sergueirekin aste batzuk igaro arren, senarra Lehen Munduko gerlara joan zen erizain, eta Errusiako gerlaren ondorioz beste bost urtetan elkarrengandik urrun bizi izan ziren. Handik zortzi urtera berrelkartu ziren senar emazteak Chekoslobakian. Bitarte horretan guztian izan ziren beste amodiozko harreman batzuk Marinaren bizitzan.

Ordurako, Errusian ere, 1917ko urriko Iraultzarekin nabari aldatua zen egoera eta Marinak 1905eko iraultza haren aldeko izan bazen ere, oraingoan ejertzito zuriaren alde egingo du.

Lenin boterera iritsi orduko kultua zen guztia burgestzat jo izan zen eta itotzera joan zen literatura ere. Arrazoi horiek tarteko, idazle asko boltxebismoaren aurka azaldu ziren eta hori egin ez arren ere, erbestera edo hil egin zituzten beste asko.

Ordurako Marina bigarren alaba izana zen, Irina, eta 1917tik 1925 arte bi alabekin bakar-bakarrik bizi izan zen Moskun (senarra ejertzito zuriarekin joana zen). Poetak hogeita bost urte zituen orduan. Urte haietako bizimodua errukarria zen: hotza, gosea, beldurra. Gainera, hein batean, Marina egoera berrian, ezgauza sentitzen zen eguneroko zailtasunei egoki erantzuteko. Ondo bizi izandakoa eta ausarta, indartsua eta librea ere bazen eta nahasketa horrek asko sofriarazi zion. Garai honetako *Lurreko aztarnak* narrazio liburuan zehaztasun handiz kontatzen du bizimodu hori. Bizi ahala idaztearen beste eredu bat.

Hain zitzaion ezinezkoa Marinari bi umeekin bizitzea non, alaba txikia umezurztegira eraman zuen, jana eman ziezaioten eta berak lana egin ahal izateko, baina 1920an alaba hori, Irina, gosez hil zitzaion. Orduko lekuko da urte horretako apirilean idatzi zuen poema motz hau:

*“Baina –estutuz- bi esku hauekin*

nola ahal – Ene! Haserre!-

lortu nuen nagusia eraustea hilobitik-

alferrikakoa baina arduratsua izana txikienarekin- ...

– distiratsu - Haren lepo meharrean

Txikoria belarra bere zurtoinaren gainean.

Ezin dut ulertu oraindik

Nire txikia nola lurrean datzan”.P8 Karlynski, 107.or.

Poema hau eta beste asko idatzi zuen bakarrik zegoen une latz haietan. Harreman asko izan zituen bai gizonezko, bai emakumez-koekin, eta harreman horien berri agertzen da garai hartako lanetan, hara nola *Ekaitza* antzezlan tragikoan edo *Ezezaguna* edo *Abentura* edo *Fortuna* liburuetan. Baita *Tsar dontzeilan* ere, non pertsonai androginoak diren protagonista, edo *Soniechkaren kontakizunean*, non Sonia Holidai antzezlearekin izandako harremanari aipua egiten zaion.

Bizipen bortitzek Marinaren sortze lana areagotzen zutela dirudi. Eta garai hartan egokitu zitzaion egoera tragikoa islatzeko aurreragoko forma estilistikoetara jo

zuen. Horren lekukotasuna antzematen da *Ofizioa, Zisneen kanpamendua* edo XVIII. Mendeko poesiaren eraginpean idatzitako *Igorren ejertzitoaren kantuan*.

Sorlan esker honi esker 1920rako Tsvietáieva onartua zegoen Errusiako poeta handien artean, ingurukoek beti ulertzen ez zuten arren bere hautapen estilistikoa. Izan ere esan nahi zuena eta hautatzen zituen genero erreferentziak ez zetozen bat beti bere garaian moderno edota aurrerakoitzat hartzen zenarekin. Horrek Marinari bere jarrerak aurkezteko zailtasunak ekarri zizkion Errusian lehendabizi, eta gero bizi izandako gainerako leku guztietan ere. Esate baterako 1917an emakumez osatutako poesia emanaldi batera gonbidatu zuten. Ezetza eman zuen eta honela erantzun zien:

“...Uste dut poesian badirela elementu bereizgarriak, emakumea ala gizona izatea baino garrantzitsuagoak direnak, eta beti mezipretxatu izan dut feminismo banatzaile (orokorrean hartuta) etiketa daraman edozer gauza, emakume eskolak edo sufragioa edo feminismoa, salbaziorako ejertzittoa edo emakumearen kontu famatu guzti hori, salbuespen bakarra: *Pentesilea-Brunilda-Maria Morevnaren (errusiako maitagarri ipuinetako emazte gerlaria) erregetza zoragarriak...*” Karlynski, 123.or.

Beste batean 1920an berriz horrelako ihardunaldi batera gonbidatu eta berriz ezetza eman zuen baina Marina emanaldia entzutera joana zen. Ikuslegoaren artean Briúsov idazlea ere bazegoen eta honek, altxatu eta esan omen zuen emakumeek beti amodioa eta pasioa idazten dutela, eta hori bakarrik. Orduan Tsvietáieva podiumera igo eta *Zisneen kanpamendua* liburuko poemak errezitatu zituen, ejertzito zuria goraiatzun zuten poemak eta amaieran gaineratu zuen:

“... *Eskua bihotzean:*

*Ez naiz prestigio handiko dama!!*

*Naiz –hezigaitza, kanpotik ikusita eta barruetan...*”

Karlynski, 125.or.

Ez zen etiketatzen erraza eta garai haietako indarraz harro azaltzen da Marina geroko kontakizunetan. Indartsu maite zuen bere burua.

Sortze lanaz aparte 1917ko Iraultzatik eta Moskutik alde egin arteko bere hausnarketa liburuak ere egoera politiko eta pertsonaletik elikatu ziren. *Verstas /*



bien bilkura eredia da, eguneroko poetikoa. Poetak Moskuko hiriarekin duen harremana azaltzen du. *Ofizioa* liburuak ere bere baitan dauka alor pertsonala, politikoa eta filosofikoa, gaitzat iraultza ondorengo Errusia eta poetak bere urruneko senarrari dion maitasuna ditu.

Marina Tsvietáievaren Moskuko bizi aldia 1922an bukatu zen. Orduan alaba Aliarekin Berlinera erbesteratu zen eta handik Pragara, senarrarekin elkartzeko.

### 1.2.2. 1922: Berlinen barna Pragara

Errusiatik irten beharrak Errusian geratu ziren lagunekin gutun bidezko harremanak hastera ekarri zuen. Eta horien artean garrantzi-tsuenak Boris Pasternakekin izan zituen. Bere eguneroko bizimoduaren lekuko izateaz gain, pasioz gainezka mantentzen zituzten gutun bidezko harreman amodiozko eta intelektualak. Pasioa izan daiteke Tsvietáievaren nortasuna azaltzeko hitzik egokiena eta adierazgarria da jakitea, 1923an, bere senarrak lagun bati idatzitako gutunean nola deskribatzen duen Marina:

*“Marina pasio anitzeko pertsona da. Orain lehen baino askoz gehiago – ni joan aurretik baino. Bere barneko urakanera buruz behera sartu beharra derrigorrezkoa bihurtu da berarentzat, bere bizitzako oxigenoa. Nork eragiten duen urakana, ez du inporta. Gehienetan (gaur egun eta lehen beti) bere irudimenean eraikita dago dena. Pertsona bat ezagutzen du eta nortasun bat eransten dio eta urakana hasten da. Asmatu duen pertsona horren mugak eta ezer ez izateak azkar deskubritzen badira ere, desesperazioa dator laster, harreman horren ezintasunagatik edo... Eta bizibide hori, bakar bakarrik, estimulu desorekatzaile berri batek gozaten du –zer- ez du inporta, inporta du nola gertatzen den. Ez da esentzia edo iturria, erritmoa da, deabruzko erritmoa. Gaur desesperazioa, bihar entusiasmoa, maitasuna, berriz gorputz eta arima eman eta etzi, berriz desesperazioa... Aspaldian nik ez dut balio bere sua pizteko. Berlinera joan nintzenean berehala konturatu nintzen nik ezin niola ezer eman, ni etorri baino egun batzuk lehenago bere sua piztuta zegoen. Ez nigatik”*

Karlynski, 149-150. or.

Ondo definitzen du testu honek pasioaren zurrumbiloa eta pasio horren zantzuak nonahi aurki daitezke Tsvietáievaren bizitzan eta harremanetan. Hartaraino, non badirudien obsesiboki izan zituen amodio harremanek ez zutela helburu

pertsonal baizik eta maiteminduta sentitzeko beharra; horrela adierazi zuen 1921ean:

*“¡Amodioa! ¡Amodioa! Heriotzaren atarian eta hilobiratze kutxan ere, adi izango nauzu –joatear –lelotuta –zureganatzeko prest”.* Karlynski, 150.or.

Errusiar literaturarentzat zegoen begirunearen bila, Berlinetik Pragara joan zen 1922ko abuztuan, eta han hiru urtez bizi izan zen. Pragan 1917-20 urte bitartean idatzitako *Lurreko aztarnak* publikatuz ahalginduz baina liburu horretan Errusian bizi izandako egunerokotasuna kontatzen zuen eta egia guztiak azaltzen ziren, boltxebikeenak eta zurienak. Horregatik ez zen izan editorerik liburu bere osotasunean argitaratzen ausartu zenik; aldizkari batek zatika argitaratu zituen, komeni ahala. Marinak bazekien ordurako *“Egia bi bistako berokia”* zela. Beti sortu zizkion arazoak pentsatzen zuena libertatez esateak.

Lenin hil zenean, 1924an, politika ekonomikoa pixka bat malgutu zen arren, eta iraultza aurreko berrikuntza artistiko eta literarioak toki handiagoa izan zuten arren, Errusiako boltxebismoa kontra jarri zitzaion: Troski, Maiakovski, Madelstman bera, Leninen emaztea... Izan ere, Marinak bere mundu ikuskera politikaren gainetik aldarrikatu zuen, baina ez zuten ulertu. Oso bakarrik sentitzen zen, ez zen makurtzen egoera lazarrietan ere eta esan daiteke nahita bilatzen zuela besteek baztertzea. Hala adierazita utzi zuen:

*“...Nik, eduki, ez daukat EZER. Dena erori egiten da, azala bezala, eta azalaren azpian odol gorria dago edo sua, ni –psikea- naiz, ez dago formarik ni bilduko nauenik, nire bertsoen forma zabal-zabaletan ere ez dago niretzat lekurik”* Karlynski 167.or.

Bazterketa giro hartan, maiteminagatik idatzi bide zuen. Maitemina maite-ezina zen batzuetan. Zorigaitz emozionalek Marinaren sormen gaitasuna piztu eta areagotzen dute. Garai honetan Serguei eta biak apartatzeko zorian izan ziren, baina bai batak, bai besteak bikotekideak egoera jasan ezingo duelakoan baztertu zuten erabakia.

1924koak dira argitara eman zituen lanik entzutetsuenetako batzuk. Poesiak eta tragediak bat egin zuten batzuetan. Mendiko poeman min handia eta mendeku nahia nabarmentzen dira; bukaerako poema, narrazio dramatikoetatik har

daitekeena, errusieraz idatzitako poema psikologikorik onena da adituen esanetan. Eta 1924an hasi zen *Ariadna* antzerki tragikoa idazten, Teseoren mitoaren inguruan bertso lerrotan idatzi nahi izan zuen hiru tragedietan lehena. Bigarrena, *Freda*, 1928an idatzi zuen eta hirugarrena idaztera ez zen iritsi.

Hurrengo urtea ere emankorra izan zen, *Arratoi ehiztaria*, *Tsar dontzeila* eta *Ausarta* idatzi zituen, hiruretan gai folklorikoak erabili zituelarik. “Ausarta”k gure mitologiako Mariren pareko historia bat kontatzen du, izan ere, Marusia da protagonista, dantza batera joan eta banpiro batekin maitemintzen den neska. Banpiroak odolustu egingo du baina Marusia lore baten izaeran berbiziko da, batzuetan emakume bihurtuko den lorea. Bigarren bizialdi horretan noble batekin ezkondu eta seme bat izaten du, baina behin, senarrak mezarara daramalarik, banpiroa ikusi eta suzko bola bihurturik hegaz alde egingo du bere familia bertan behera utziz, bere eta bereen bizitzak sakrifikatuz. Pasioa eta krimena, pasioa eta sakrifizioa: emakume libre baten erabakian.

### 1.2.3. 1925. Beste errusiar bat Parisen

Marina Tsvietáieva 1925eko azaroan iritsi zen Parisera, seme jaio berria – Gueorgi– eta alaba Aliarekin eta handik gutxira senarra etorri zitzaion. Ordurako, errusiar literatura bi adarretan banatuta zegoen: sobietikoa eta erbestekoa, eta Paris erbesteko errusiar literaturaren erdigune bilakatua zen.

Parisera iritsi zenean ongi etorri eta begirunea jaso zituen Marinak literatura mundua gobernatzen zutenen aldetik, izan ere, garai hartan Tsvietáievaren poesia, Pasternakenarekin batera, errusiar poesia garrantzitsuenekotzat zeukaten. Baina hurrengo udaberrirako Marinaren lana zentsuratuenetarikoa zen Errusian eta Errusiatik kanpo. Horren arrazoietakoa bat 1926an *Poeta bat kritikaren inguruan* argitaratu izana jo daiteke, bertan Marina Tsvietáievak garaiko kritiko onenak kritikatzeko baitzituen. Arestian aipatutako egia esan beharra, zentsura arrazoi bilakatua zen behar bada.

Hala ere bide batzuk ixteaz bat beste batzuk zabaltzen zitzaiz-kion, eta hala, Pasternakekin izandako gutun bidezko harremanetara, hirugarren idazle bat bildu zen: Rilke. Ziurrenera 1926a esangura-tsua eta garrantzitsua izan zen Rilke eta

Pasternakekin izan zuen harreman epistolar hau, hein batean, amodio harreman, harreman intelektual, edo espirituala izan zena. Indar handiko maitasun hitzak gurutzatu zituzten *1926ko udako gutunak* liburuan. Gutunetan an-tzeman daiteke Rilkerengan aurkitu bide zuela benetako barruko laguna. Baina 1926ko abenduan Rilke hil egin zen. Marinak berari eskainitako poema-gutun eder bat idatzi zuen *Urte berriari gutuna* izenekoa. Azken agurra izan nahi zuen, muga fisikoak gaindituko zituen pentsamendua: bizitzaz, heriotzaz eta denboraz osatua. Esan izan da bere poemarik ederrena dela.

Pasternak ere barruko laguna zuen baina, alde batetik bera Parisen eta Pasternak Errusian bizi zelako, ezkonduak, seme-alabekin biak, edo aurrera egitea erabaki ahal izan zutenean erabakirik hartu ez zutelako, ez zituzten bizi izan gutunetan adierazitakoak. Pasternakengana hurbiltzen zuena inoiz gauzatuko ez zela konturatzean, honela idatzi zion Marinak Rilkeri:

*“Existitzen den bakarra, muga barruetan dagoena eta mugetatik kanpo bizi dena da. Ni kanpoan nago. Ni banaiz eta ez dut nire burua konpartitzen”* Karlynski, 205. or.

Parisen idatzitako beste poema batzuk *Itsasotik*, *Gela ahalegina* edo *Airearen poema* dira. Azken poema honen harira, interesgarria da Ilva Vitinsek Tsvietáievaz egindako biografian esaten duena: airea zela Marinaren elementurik gogokoena, denbora eta espazioa zeharkatzen uzten ziona; gainera esaten du, Marinak airea bazuen gogoko, materiatik gehien urruntzen zelako zela, izan ere, ez zuen gogoko materialtasuna, inmobilitatea, ardatz horizontala, mugak, bukaera markatzen zuen ezer. Airea, ihesbide bertikala izanik, ura edo sua bezala, zegokion elementutzat hartu zuen Vitinsek. Horregatik edo *Airearen poema* omen da Marinak idatzi duen poemarik zabalena eta aldi berean hertsiena eta barneratzen zailena.

Airearen poemari buruzko iritzi horrekin bat egiten du garai hartako errusiar literaturari buruzkoarekin. Horregatik behar bada, hamarkada horretan argitaratu zen errusiar literatura onenaren eredu garrantzitsu bat, Marina Tsvietáievarena barne.

Pariseko lehen urte horiek Marinaren bizitzako urte mugituenak izan ziren, bizitza pribatuan nahiz publikoan. Aurrera egin ahala, ordea, Pariseko bizitza ere gogorra bilakatu zitzaion. Ilunabar literarioetatik, aldizkarietan argitaratzen zituen artikuluetatik eta Pragatik ekarri zuen pentsio txiki batetik bizi zen familia osoa, neurri batean baita egoera zailetan hiru emakumek (Tesková, Halpern eta Lomonósovak) lagundu zioten. Bizimodu gorabeheratsu honen lekuko dira beraien arteko gutun trukaketa:

*“... Goizean idazten dizut, atsekabez begiratzen dudan bitartean ateratzeko dagoen zaborra, sartzeko dagoen ikatza, garbitu gabeko lurra, piztu gabeko sua”, edo “...Berriz jaioko banintz jakingo nuke zer egin... emakumeak begiratu egingo luke eta idazleak idatzi...”*  
Karlynski, 214. or.

Desesperazioa darie gutun horiei, ezkontzak, pobreziak, amatasunak, zentsurak, libertaterik ezak, finean, itomeneraino eramandako ezintasunaren desesperazioa. Arestian aipatutako gutunak bezala, Pariseko bizitzaren lekuko dira *Wilnoko gutunak* ere, Natalia Hajdu-kiewíczy 1934 eta 1936 bitartean idatzitakoak eta 2001ean haren familia arteko batek Vilniusen bilatu eta 2002an Moskun argitara emandakoak.

Idazteak laguntzen zion zailtasunak gainditzeko eta Errusia eta gero poema liburua sortu zen zailtasunez betetako garaian. Eta liburu horixe da, adituen esanetan, Marinak idatzitakoen artean libururik heldu eta perfektuena. Liburu hortako poemak erritmoa famatu dute literatur kritikariek; eta errusiera ulertu gabe ere, igarri eta dastatzeko modukoa:

|                      |                            |
|----------------------|----------------------------|
| <i>“Pomni zakon:</i> | “Legea ez ahaztu           |
| Zdes ne vladei!      | zuk ezin dezu hemen agindu |
| Choby potom-         | baina ez berandu           |
| V Grade Druzei:      | lagunen Hirian:            |
| V ètom pustom,       | Hustasun honetan           |
| V ètom krutom        | indar beteko               |
| Nebe muzhskom        | gizonen zero honetan       |
| -Splosh zolotom-     | -hain doratua benetan-     |

|                         |                             |
|-------------------------|-----------------------------|
| mire, gde reki vspiat   | Munduan, ibaiak doazenetan, |
| Ná beregú – reki,       | ibai-ertzean atxiki         |
| Vmnimuiu ruku vziat     | esku amestuan               |
| Mnimost drugoi ruki...” | beste eskuaren ametsa...”   |

P8Karlynski, 226. or.

*Errusia eta gero* liburuan, Marina eta lau gizonezkoen arteko maitasun sentimenduak azaleratzen dira. Lau gizonak Boris Pasternak, Vishniak, Bajraj eta Rodzévich ziren eta zehazten da haiekin harreman iraunkor baten ezinak eragiten dion mina. Liburuan artearen eta bizitzaren inguruko ikuskera berri bat islatzen da. Ez alferrik, erritmoz, indarrez eta edukiz betea datorren liburu horretarako, honako osagaiak erabili zituen Marina Tsvietáievak; bere ikasle izan zen Nikolai Gronskiri beste batean azaldu zizkionak:

“...*Poetaren elikagaia da: 1- barne mundua; 2-kanpoko mundua baina barne munduan iragazi eta gero.* Karlynski, 230. or.

Hala ere, garai hartan ez zuen obra honek arrakasta handirik izan, alde batetik, Marinak bere ideologia kritikoa guztien aurrean erakusten zuelako, eta beste alde batetik, bere senarraren eurasianismoaren aldeko hautu garbiagatik.

Tsvietáievaren obratik poesia nabarmendu bada ere, 1930etik aurrera prosa dezente garatu zuen eta bere bizitzako azken urte horietan poesia gutxi idatzi zuen; berriz ere etxeak, gaizki hazi zuen semeari zion pasioak eta senarrarekiko zuen jarraitu beharrak eragin zuten idazlearen ibilbidean, eta horrela islatzen da bere prosa lan *Ausartan* bezala *Nire anaia andrazkoan* ere.

Bi liburu horiek harreman zuzena dute, beste alde batetik, Natalie Clifford Barneyk antolatutako ilunabar literarioekin. Marina joan zalea zen, baina bere izaera nabarmen geratzen zen batzuetan. Ilunabar horietako batera parte hartzera gonbidatu zuten Marina. Barney emakume aberatsa zen, bere bizitza emakumeen arteko maitasun espiritual eta fisikoa defenditzen igaro zuena. Lekuz kanpo bezala zegoen ilunabar hartan Marina, dama elegante artean, bera soineko beltz handi batez estalia; gainera ez zuten ulertu bere poesia. Bilkura haietan entzule lesbianoa zen gehiengoa eta Marinak *Ausarta* aukeratu zuen

irakurtzeko: emakume batek banpiro batengatik egiten duen sakrifizioa kontatzea ez zen suertatu okasiorako gairik aproposena.

Bilera haren ondoren. Tsvietáievak *Nire anaia andrazkoa* idatzi zuen bi urtetan zehar eta Barneyk berak 1920an idatzitako *Amazona baten burutazioak* liburuari erantzuna izan zen.

Edozein generotan definitzen zaila da *Nire anaia andrazkoa* liburua, gutun, saiakera eta kontakizunaren mugan kokatzen baita. Bertan erakusten duen emakume ereduak, emakume indartsu, libre eta etxeko lanetatik at bizi denarena da. Emakume heldu bat eta gazte baten arteko amodio harremana kontatzen du. Gazteak heldua utzi egiten du seme-alabak edukitzearen beharragatik eta gizon baten ondoan egiten du berriz bere bizitza eta harekin umea izan. Helduak beste gazte bat topatu behar du aurrekoa ordezkatzeko. Urteak eta gero, heldua hiltzen denean, gazteak axola gabe hartzen du berria. Emakumearentzat, maitasun lesbikoaren arrazoa baino beste arrazoi handiago bat dagoela erakutsi nahi du Marinak, aurrekoa beti suntsituko duena: ama sena.

Halaxe bizi zuen berak eta halaxe aitortzen du, ederra izanik bi emakumeen arteko maitasuna, gaindiezina dela amatasun sena; horregatik, liburuaren hasieran, eta badakienez bere lagun Barneyk beste modu batera bizi duela emakumeen arteko amodioa, horrela hasten zaio hizketan:

“...Gertu zauzkat izaki gisako oro bezala, eta batipat, andrazko izaki oro bezala.....Entzun nazazu, ez daukazu zertan erantzunik, aditu bakarrik. Bihotza urratzera noakizu, zuzenean. Zure kausaren, Zure sinesmenaren, Zure gorputzaren, Zure bihotzaren biho-tzera.”<sup>2</sup>

Barney ezagutzeak, emakumeekin izandako bere harremanen izaera hausnartzera ekarri zuen Marina, harreman lesbikoen inguruan gogoeta egitera, anitzak izan baitziren berak bizi izan zituenak; hiru oso ezagunak: Sofia Parnok,

---

<sup>2</sup> *Nire anaia andrazkoa*. TERE IRASTORTZAren itzulpena. EGAN 1997-1/2. 186.or.

Sofia Holliday eta Natali Barneyrekin izandakoak. Hala ere ez zuen bere burua lesbianotzat azaldu.

Garai hartako prosazko lanen artean, aipagarriak dira *Poeta eta prosa*, eta *Poeta eta denbora* saiakera lanak. azken honetan, artea, kontzientzia eta denboraren inguruko hausnarketa egiten du eta Errusiako iraultzan eztabaidagai izan zen poetaren zereginaren inguruko iritzia ematen du. Berriz ere bere bizitzaren ikuskera islatzen duen lana da, gizakiaren funtsezko galderei bere erantzuna eskainiz irakurlea irakurketari atxikiarazten duena.

Obra honetan aipagarriak dira bizitzaren inguruan esaten dituenak:

*"Munduan gehien maite ditudanak: musika, natura, poesia, bakardadea."*

*"Ezkutu bat izatera, bertan grabatuko nuke: ez minik egin".*

*"Bizitza geltokia da, laster joango naiz: nora - ez dizuet esango".*

Poeta eta denbora, 16. or.

1934an idatzitako beste prosa liburu eder bat *Espiritu gatibua* dugu; Andrei Bèly (Boris Nikoláievich) poetaren biografia. Liburu horren izenburua hartuta, berriki, gazteleraz Marina Tsvietáievaren antologia esanguratsu bat argitaratu da.

#### 1.2.4. Bidaiaren amaiera: itzuli ezina

Baina itzuli beharra zeukan eta 1939an Errusiarakosss bidea hartu zuen Marina Tsvietáievak. Senarra eta alaba han izateak eta semeak aitaren arrastoari jarraitu nahi izanak eraman zuen Marina erabaki hau hartzera. Hondamendirako bide zuzena.

Aurretik joanak ziren Serguei eta Alia (senar eta alaba) iritsi eta laster atxilotu egin zituzten. Marinak berriz, ez zuen Errusian miseria eta mina besterik topatu; iritsi eta urte betera idatzitako bere egunerokoan azaltzen du behin eta berriz bere buruaz beste egiteko asmoa eta Vera Zviagúntsevari idatzitako gutun batean aitortzen du itsasontzian sartu orduko jakin zuela guztia bukatua zela.

*"Inork ezin du ikusi, inork ez daki urte bete pasatu dela (gutxi gora-behera) nire begiek topatu nahi dutenetik kako bat, baina ez dago bat ere... urtea pasatu da heriotza neurtzen nabilenetik. Dena da*



*ikaragarria, beldurgarria. Pastilak hartzea, leihotik salto egitea... ez dut inor izutu nahi... ez dut hil nahi... nahi dut ez izatea. Barregarria norbaitek behar nauen bitartean, baina ene Jainkoa, zein gauza gutxi naizen, zein gutxi egin dezakedan! Bukaera arte bizitzea, bukaera arte murtzikatzea bezala da..."* Karlynski, 284. or.

Bizi ahala idatzi zuen emakumea zen Marina Tsvietáieva. Baina, gutunez gain, Errusiako azken urte hauetan ez zuen ezer literariorik idatzi. Ez zuen bizitzeko eta sortzeko indarririk eta azkenean, 1941ean bere buruaz beste egin zuen, gako batean soka jarri eta urkatuz, eta zaila izan daiteke gako hura begiz jotzea erabakitsera eraman zuten arrazoiak neurtzea. Aipatutako guztiari gehitu dakioke seme gaizki-hazi batekin bizi egoera eraman ezina edo errusiar agintariak emandako idazle kanporatuen inguruan idazteko agindua, beretzat umiliagarria gertatu zena. Besteen artean ez zen heinean, iada ez zuen, behar bada, izan nahi. Jakina da, batzuek eta besteek lagundu nahi-izan ziotela, Pasternak eta Ajmatovak, esate batera. Baina zertan lagundu? Bera hil aurretik hila zetzan eta.

Marina Tsvietáieva emakume librearen zen, erbestean errusiar literaturaren eredu nabarmenetako bat izan zena. Bere lurraldean, hil eta urteak behar izan dira berriz Marina Tsvietáievaren obra ederra errekonozitzeko.

### 1.3. Irakurketa gomendagarri batzuk

*Cartas del verano de 1926.* MEXICO, Siglo veintiuno editores, 1984. 1926ko udan, Rilke eta Pasternakekin gurutzatu zituen gutunak biltzen ditu liburuak non hiruren arteko harreman intelektual eta amodiozkoa islatzen den.

*Cartas de Wilno (1934-1935).* Maldoror ediciones, 2006. Paris eta inguruetan bizi izandako garaiaren lekuko dira. Natalia Hajhdu-kiewicz idatzitako gutunak, 2001ean haren familia arteko batek Vilniusen aurkitu eta 2002an argitaratzeko emandakoak.

*Tres poemas mayores. Poema de la montaña. Poema del fin. Carta de año nuevo.* MADRID, Ediciones Hiperión, 1991. 1926ko abenduan Rilke hil egin zen eta berari eskainitako poema gutun bat da *Carta de año nuevo* izenekoa, 1927an

argitaratua. Azken agurra izan nahi duen poema da; pentsamendu metafisiko bat; bizitza, heriotza eta denboraren inguruko pentsamendua.

*Un espíritu prisionero.* BARCELONA. Galaxia Gutenberg. Círculo de lectores C5,5,0,127,0,0. 1999 C5,5,0,127,0,0. 1934an idatzitako prosa liburutik hartzen du izenburua antologia zirrargarri honek. Andrei Bély poetaren biografia antzeko bat izateaz gain, Marinak berak, bere azken urteetako bizitzaren nondik norakoaren berri ematen du. Original batzuk agertzen dira eta idazlearen kronologia laburtua. Liburu honetan ere, ugariak dira izatearen, maitasunaren, denboraren, bizitzaren, emakumearen, sentimenduen... inguruko gogoeta propioak. C5,5,0,127,0,0

*Indicios terrestres.* MADRID. Cátedra-Versal, 1992. 1917tik 1919ra bitartean Errusian bizi izandako garai gogorak, zehaztasun handiz kontatzen dituen prosa liburua da.

*Nire anaia andrazkoa.* LASARTE-ORIA. Tere Irastortzaren itzulpena. EGAN. 1997 ½. C5,5,0,127,0,0 Gutun, saiakera eta kontakizun ataletan koka daitekeen, 1932an idatzitako prosa liburua da. Emakume gazte eta heldu baten arteko amodio harremanetan gertatzen denaz ari da Marina; haurra izatearen beharraz edozein maitasun harremanen gainetik. C5,5,0,0,255,255

*El poeta y el tiempo.* BARTZELONA. Anagrama, S.A. 1990. Saiakera lana da, 1932an idatzia. Artea, kontzientzia eta denboraren inguruko hausnarketa da eta Errusiako iraultzaren erdian poetaren zereginaren inguruko iritzia. C5,5,0,0,255,255

*El diablo.* BARTZELONA. Anagrama s.a. 1991. Sinbolismoz eta debekatutako gauza erakargarri (amodioa, arriskua, errusiar literatura bera...) betetako prosa liburua da. 1935ean idatzia da eta Marinaren haurtzarora du gai. Deabrua da pekatua, ama oinaze jasangaitza eta bere burua bakan eta pribilegiatua. Errukirik gabe idatzitako historia zatia da.

*CONFESIONES. Vivir en el fuego.* BARCELONA. Galaxia Gutenberg. Círculo de lectores. 2008. Marina hil eta gero osatutako autobiografia da. Bertan bere obra osatuaren laginak azaltzen dira. Sormena eta egunerokotasuna uztartzen dira,

bizitzaren inguruko gogoetak eta bizitza bera. Poeta gisara historia ulertzeko modua izan daiteke.

#### 1.4. Lan honetan erabilitako bibliografia

*Marina Tsvietáieva*. SIMON KARLINSKY. Traducción de Francisco Segovia. MADRID. Mondadori España, 1991.

*La canción del péndulo*. JOSEPH BRODSKY. Barcelona. Versal 1988.

*Egan. Itzulpenak*. TERE IRASTORTZA. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte. 1997.

Irakurketa gomendagarrietako PROLOGO guztiak.

#### 2.- WILNOKO GUTUNAK (1934-1935). (Iruzkina)

Marina Tsvietáieva bere hitzetan

*Wilnoko Gutunak (1934-1935)*. Vigo: Maldoror eds. 2006.

*Wilnoko gutunak* Marina Tsvietáievak Parisen bizi izandako garaian idatzitako gutunak dira.

Errusian leninismoak aurrera egin zuenean, erregimenarekiko ezadostasunak aldarrikatzeak eta senarrari (iraultzaren kontrakoa) zion fideltasunak, erbesteratu beharra ekarri zizkion Tsvietáievari. Praga, Paris eta Berlin izan zituen bizileku.

Askotariko gabeziaz bizitzera ohitu beharrak eragindako ida-tzien artean kokatu daitezke eskuartean ditugun gutunok, hain zuzen ere, bere bizitzako epe esanguratsu baten lekukotasuna eskaintzen dutelako eragiten dute irakurlearengan interesa. Natalia Hajdukiewicz, familiako lagunari, igorritako gutunak dira, hain zuzen ere, eta 2001garren urtean haren familiarteko norbaitek Wilnon aurkitu eta argitaratutakoak. Ez dira, beraz, Marinak argitaratzeko asmoz idatzitako gutunak, bere bizitza pribatuaren testigantza baizik; ez eta, alde horretatik, *Nire anaia andrazkoa* bezalako lanekin alderatzeko moduko gutunak, liburu hura ere, formaz, gutunez osatuta egonagatik *Nire anaia andrazkoa, ibid.*

Hala ere, Wilnoko gutunetan, idazleak argitaratutako lan literarioetan erakusten dituen ezaugarriak azaltzen dira.

## 2.1. Erbesteko bizitzaren testigantza

Gabezia bizitzen ikasteaz ari da Tsvietáieva etengabe; ongi izan ezinik; maite zuen aberritik urrun; lagun zituenen ezaz; eza ez ezagutzetik, ezer gabe sentitzeak eragindako pentsamenduak es-kaintzen dizkigu idazleak.

Aipatu gabeziaz gain, pobreziak eragiten dio jasanezintasun handiena. Behin eta berriz hitz egiten du pobre bizitzeak eragiten dion ondorezaz; eguneroko beharren kontzientziak, tresna arruntenak edo espazio mugatu eta exkakak deskribatzeko eran eta ironian antzematen da sentitzen duen ezerotasuna (“...*kea, hotza, zikinkeria, errautsa, ikatza laugarren pisuraino igo beharra, errautsa garbitu beharra- tonak!-...*” 17.or. “...*igogailu gabe, justu-justu teilatu azpian, udan Edgar Poeren berunezko gela izango da, neguan hozkailua. Bi balkoi hegalaria, estuak eta guztiz beldurgarriak, amets gaizto batetik ateratakoak bezalakoak, beldurra ematen didan ametsa...*”) 27.or.

Lagunari dirua eskatzen dio behin baino gehiagotan, “su txikia” erosteko batean, liburuak eskuratzeko bestean edo semearen eskolak ordaintzeko hurrengoan (“...zoriontsu egin nahi banauzu, bidaliezadazu 50 franko...”)72.or. Leinu argiko alaba izanik, bizitzeko eskatu beharra eta erosotasun guztiei uko egin beharraren jasanezinaren adiera garbia dira Wilnoko gutunak.

Bizimodua aurrera ateratzeko zailtasunez gain, familia harremanei buruz ere hitz egiten du Marina Tsvietáievak.

Alabak, Ariadnak, 20 urte zituen, eta semeak, Murrek, 9 urte. Alabarekin harreman zaila eta gogorra zuela aitortzen du Tsvietáievak. Bien arteko distantziak badu zer ikusirik ama eta alabaren nortasunarekin, Marina apasionatua baitzen eta Ariadna bare eta orekatua (“...Alia izaki orekatua da, guziaren gainetik, ni sekula izan ez naizen bezalako, nik inoiz maite ez ditudan bezalako...”)51.or.. Baina nortasunaz gain bizimodu latzaren oihartzunak agertzen dira hemen ere. Izan ere, Marinaren idatzi beharrak, Ariadna Murren zaintzaile izatera eramane zuen eguneko ordu batzuetan; alabak behin eta berriz

leporatzen omen zion amari bizi zuen eta bizi zuten egoera lazgarriaren errua; bizi zuten pobreziarena, egin behar guztiena eta bere libertate faltarena.

Semearekin duen harremanak, berriz, hari ematen dion babes neurrigabekoa, ezohizkoa, du ezaugarri, eta haren heziketak eragiten dion ardura azaltzen du gutunetan. Semea handitu ahala, hark erakusten duen erruki-ezak sortzen dion dezepzioaz, saminez ere hitz egiten du. (“...beldur naiz, beragatik beldur. Guzia eman behar zaie seme-alabei, itxaropen txikienik gabe...”93.or..)

Ezagutarazten digun bizialdian, Marina Tsvietáievak bakarrik kudeatu behar izan zuen gehienetan egoera, izan ere, senarra (Serguéi Efron) joan etorrian bizi baitzen, joanean gehiago etorrian baino. Gainera, Marinak hartu izan zuen beti gizonaren ardura, Parisen, epealdi motz baten argitaletxe baten sorkuntzan eta kudeaketan lan egin zuen epean ez ezik, bizi guztian Marinak irabazitako diruari esker bizi izan baitzen Efron.

Familia harreman sare horretan, bada, bakartasunak eragiten dion nekea nabaria da gutunetan. Bakarrik egon gabe ere, bakarrik sentitzeaz ari zaio lagunari. (“...Nire bizi guztian bakarrik egon naiz (maitasunean ulertuta), bakarrik aurkitzen naiz horren aurrean, bakarrik, berarekin...” 49.or.). Bakarrik sentitzeaz maitasun harremanetan; bakarrik, eguneroko erabakietan; bakarrik, bere ardurapean zituenen bizi baldintzen kudeaketan.

Bakardadearen azken lur muturra herioarena da.

Tsvietáievak 1941ean egin zuen bere buruaz beste, urkaturik. Marina semearekin Errusiara itzuli zenean ezagutzen ez zuen egoera bat aurkitu zuen: alaba preso zegoen, eta torturatua, senarra hilda. Seme kuttuna mina bilatzaile eramán zuten; bera deportatua izan zen. Bizitza jasanezina egin zitzaionean, bukaera eman zion, 48 urterekin. Gutun hauetan (hil baino 7 urte lehenago), behin baino gehiagotan adierazten du bere bizitzarekin amaitzeko asmoa, edo bizitzeaz duen nekea. (“...momentu baten hilko naiz: bakarrik, ehun eta hirurogei milioiren aurka...” 55.or.. (“...guzia- izan da... bihotz hau ahituta dago...”.) 91.or.

Ordurako bizitzeko pasio barik geratua zen eta pasioa izan zen Marina Tsvietáievaren bizitzako, eta argitaratutako lanetako ezaugarri nabarietako bat;

baita gutun hauetan ere. Emozioak bizitzeko premiaz hitz egiten du, emozio gabeko bizitzaren zentzugabetasunaz (“...*miseria, emozio falta esan nahi dut horrekin, besterik ez...*” 26.or.). Pasioz bizitzea ezinbestekoa zitzaien Marinari; iraupen hutsak ez zuen lekurik haren bizi asmoetan. Pertsonak, lekuak, sentsazioak bizi, sentitu nahi zituen barruan eta besteei sentiarazteko idazten du, inolaz, beti, baita gutun pribatuetan ere.

Eta gutun hauetan ere, kontatzen dio Natalia Hajdukiewitzi idaz-teak ematen dionaz: idatzi beharraz ari zaionean, idaztea bere bizitzako helburu egiten duela kontatzen dionean, idaztea arnasa bezain beharrezkotzat duela dionean (“...*idaztea nire funtzioa da, arnastea bezain ezinbestekoa dudana. Hor naiz ni zoriontsu eta lasai. Hor paperaren leku horretan...*”) 55.or.

Honela, Wilnoko gutunetan, bere lan literarioetan bezala, Marina Tsvietáievak barne indarra, libertatea eta pasioa (bizitzetik heriotzarainoko erabakietan), transmititzen asmatzen du, eta idaztea, bera, bihurtzen du pasio baten lekukotasuna.

## 2.2. Wilnoko gutunak (1934-1935)

Idaztea: pasio baten lekukotasuna

Wilnoko gutunetan, bere literaturan erakusten dituen ezaugarriak islatzen dira.

Alde batetik azpimarratzekoa da bere idatzien indarra. Esaldi motz, ez bairik gabeko hitz aukeratuak, harridura ikur eta galdera ikurren bidez lortzen du Marinak indarra, eta era berean, irakurlea indar horretaz jabetzea. (*Eta gero: – ama! Zein ederto irakurri duzun! (gauean), -Ama, zein polita zeunden! – ama, zein era liluragarrian hitz egin duzun “amarantoa eta leuna”... zergatik? Zergatik-hori?. Ni bat bainaiz- banaezina: ohol gainean- eta sukaldean, albondiga artean, izan ere, albondiga arteko ni neuk idatzi dut neuk ohol gainean irakurri dudana...*) 54. orrialde osoa

Beste alde batetik, parentesi, gidoi tarte edo kortxeteen erabilera ugariak eta bereziak, beste edozeinen testuetatik ezberdin egiten du irakurketa, izan ere, parentesi barruan idazten duena, askotan, testuko eduki garrantzitsuena bihurtzen du, eta parentesi barrukoak bakarrik irakurrita ere.

Ikurrez betetako idazketa horrek berak azaleratzen du, bizitzaren aurrean bezala, testuaren aurrean, Marinarentzat idazketa eskema tradizionala (arrazionala) ez zela aski; bizitzeko gogoia, bizitzari aurre egiteko adimenak alderdi arrazionalerik haratago behar zuela euskarria.

Eta modu horretan, Marina Tsivietáievak poemetan *Arratsaldeko albuma*, 1926ko udako gutunak, *Poeta eta denbora*, eta *Nire Puskhin.*, edo gutunetan 1926ko udako gutunak 8 Rilke eta Pasternakekin izandako harreman epistolarra)... edo saiakera lanetan *Poeta eta denbora* (1935), *Nire puskhin* (1936)..., emakume sena eta bizitzaren indarra dakarkigu bere garaitik gaur- egun arte. Dasta arazten digu, larrian, bereak diren bizipenak: poza edo miresmena, edo etsipena...

Erakar garria da bereziki, Marinaren “maitasuna bizitzeko” eta sentitzeko modu hain hain betea, eta sentitzeko modu hori irakurleari transmititzeko, hel arazteko erakusten duen gaitasun bakana. Maitasuna bere kontzepzio zabalenean ulertuta: amarena, emaztearena, maitalearena, lagunarena, abertzalearena; pasio bihurtuz bizitza, bera.

\* \* \*

### 3.- WILNOKO GUTUNAK. (1934-1935). (Itzulpena)

-1-

France

Clamart (Seine)

10, rue Lazare-Carnot

1934ko martxoaren 17a

Natasha Gieievskaia maitea,

(Gieievskaiatarra baitzinen gure etxeko (1) atera etorri zinenean- a! Abegirik ez gurean- izan ere, etxea ez zegoen ia da inorentzat. Berak harrera beroaz hartuko zintuen, *berak* bai! (2)

Zure gutunak hunkitu egin nau, hori baino gehiago- nahastu egin nau: hain dago konplitua mundu hori, non inoiz izan denik sinisteari ere utzi diodan (aitak (3) oparitutako kapa marroiari begira nago, 1912. urtetik toki guztietara lagundu nauena, eta pentsatzen dut: kapa bera ote da? Haztatu, –eta ezin dut sinetsi. Tomasen (4) aldean sinesgaitz!– eta bat batean haren ahotsa, *bizia*, eta ahotsa gutxi balitz, “Varenka Ilovaskaiaren” (5) izena bizirik bera ere (6) Varvaratarra baitzen, alaba bezala: gure aitaren lehen emaztea (erretratu famatua) (7). Pentsa, bizirik jarraitzen duten gutxi bakan batzuen bitartez ahalegindu naiz jakiten, alferrik hala ere, Dimitri Ivanovichen lehen emaztea *nor* izan zen; baina, hain urruti dago denboran non zaharrenek ere ez duten gogoratzen (honelaxe hasi beharko luke ipuin batek, nire ustez). Guzti horren inguruan zerbait dakien bakarra, berak ere entzuna duelako, Olia Ilovaiskaia (8) da, baina suari baino beldur handiagoa diot, eta, ostrukaren antzera, neure burua ezkutatu nahian bizi naiz: zer espero dezaket Pimengandik (9) Oliak ere irakurtzen badu! (Hirugarrenez ezkondu berria da eta Servian bizi da).

Eta bat-batean, zure ahotsak izen hori jaurti du.

Eta orain, galdera batzuk: 1) zein da zuen arteko ahaidekotasuna?, eta, zer zara zu Valeriarentzat? (10) 2) Zer dakizu “Varenkaz”? Zenbat urterekin hil zen?

Eta, nola? 3) Izan al duzu aukerarik haren argazkia ikusteko? 4) Bere izenak: jaiotzakoa, patronimikoa eta ezkondu aurrekoa. Laburbilduz: dakizun guztia, MESEDEZ!

Eta etxean hartu ez zintuen Valeria hartaz...(zein urtetan?) Bera ez zen Triojprundnyn bizi 1907. urtetik edo. Noiz gertatuko zen hori? Lehendabizi gugandik banatu zen (gu, Tsivietáievarrak, hau da, gure amaren alabak) etxearen beste alde batean bizitzeko, eta 1908- 1909 rako ez zegoen dagoeneko han, hiriaren kanpoalderantz joana zen bizitzera, arras isolaturik zegoen toki batetara. Jainkoak daki zergatik... Noiz gertatu zen hori? Deitu bazenuen, zein etxeko atetan, Triojprudnykoan ala Pimen zaharrean? Asia (11) eta ni, biok, 1912an ezkondu ginen, bera VI.ean ari da eta ni VII.ean. – Jaungoikoa! Hau guziau parentesi bat da eta! Tira, noan hasierara).



Bere etxean hartu ez zintuen Valeriaren inguruan -Nire bizitza osoan, eta ez bakarrik bizitzan, ezagutu izan dudan izaki *beltzenetarikoa* da. Gure amak *ezin zuen* maite, eta harrigarriena ez zion gorrotorik. Baina gure amak bere baitan zuen izaera protestante, germaniarra- zuzentasunarena, eta bere buruari debekatua zion alabaordekoa gorrotatzea. Valeria alaba izan balu-orduan *gorrotatuko* zuen.

Ez diot Valeriari ezer leporatzen, naturako gertaerei ezer leporatzen ez zaien bezala, nigandik aparte daukat, baita pentsamenduan ere. Eta (ez pentsa ni *oso* errukiorra naizenik) gupida pixka bat diot-tartetako samurraldi eta arretaldi bakan batzuk medio -saiakera- oso bakanak izanagatik, izan, izan zirenak:bere izate osoaren bakar-tze, egoskortze eta funtsezko gaiztotzeagatik. Eta (izan ere, *oso* berandu ezkondu zen, beldurra ematen zuen erraldoi, bizardun batekin: nekazaria) bere seme-alaba erraldoi guztiek bizia galdu zutelako, ez baitut uste bat bakarra bizi zaionik.

Azkeneko aldiz, *bederatzi* urteko isilaldi baten ondoren (hiri berean bizi izanda!), ikusi nuen- ez, ez nuen ikusi, horrela gertatu zen: "*Poeten antzokian*" nire poemen irakurraldi batean -1921ean-Moskun- ohartxo bat pasa zidaten -atsedenaldian-hitz hauekin: -*zu* entzutera etorri naiz eta liluraturik nago-Pentsatu nuen banekiela, baina, hala ere,galdetu egin nuen: nor? nolakoa da?- "emakume txiki bat, ile beltz, azal mate eta aurpegi zorrotz bat, gogotik txaloka aritu zaizuna".

-Bera!- Inguratu nintzenerako joana zen, ordea. Horrela elkartu ginen azkenekoz. Gero ez dut berriz ikusi: 9 + 1921-1934 guztira *hogeita bi urte*. Izugarria?

Baina, bazegoen zerbait, guganako gorrotoaren gaineratik, gu, gure ama, gure kastari zion gorrotoaren gaineratik- ohartxo hura idaztera bultzatu eta behartu zuena. Berarengan pentsatzen dudanean, bihotza itxi egiten zait. Nahiz eta, -objetiboki- esanda Valeria munstroa den.

Baina, hala ere, munstro hurbila, Triojprudny-Pimenekoa, eta munstroa bihotzean daramat, ahizpa nagusi maite eta zuhurra izan balitz baino barrurago (nik baino 10 urte gehiago ditu).

Ahaidetasunaz harantzagoko erakarpema-inolaz-Haren neba, Andrei, Asia arrebaordearen besoetan hilberria, eder askoa (Varvara Dmitrievna Ilovaskaiaren erretratu garbia!) arraroa zen hura ere, oso, Valeriaren aldean arraroa- oso isila, baina maite gintuen Asia eta biok, bere erara, otso batek bezala, iseka eta txantxen artean, isilpean, herabeki. Eta hiltzera gure etxera etorri zen.

Horregatik nago Valeria eta Andreiren amaren jatorriaz zerbait jakiteko irrikaz. Amekiko kontuak; izan ere, gu aita batenak gara, baina gutariko bat *ez zen aitarena*. Valeria eta Andrei inguratzen dituen misterioa, Dimitri Ivanovichen lehen emaztean datza, haien amonarengan, “Varenka” famatuan. Eta ama (“Varenkaren” alaba, Varvara, hura ere) ez zen bat ere konplikatua, hala diote ezagutzen zutenek, ederra, maitagarria, ahots gozo kantaria zuena, edertasun bete-betekoa. Joan , *zen bezalakoxea* joan zen.

“Varenka” haren inguruan (Dimitri Ivanovichen emaztea zena) dakizun dena nahi dut -arren eskatzen dizut! (baina, ez ahal zara erratuta ibiliko eta Dimitri Ivanovichen *alabaz* arituko, gure aitaren lehen emazteaz?)

Ez da esku-izkribu baterako, neure arima asetzeko da, esku-izkribua neure arima bada ere.

---

Zergatik zaude Wilnon? Eta lehen? Non egon zinen iraultzak iraun zuen bitartean? Ba al duzu seme-alabarik? Nolakoak dira? Nik hogeituro urteko alaba eta bederatzi urteko semea daukat: Ariadna (12) eta Gueorgui: Alia eta Mur (13). Mur ni bezalakoxea da.

Zure gutuna gizakoia da, sakona, eta -barkatu atrebentzia- argia, gutuna *ez- zu* zara argia. Sekulakoa, *lau txanpon* edo ondo *pagatutako* harrokeriaz diozuna, sekulakoa, neuk sortutakoa izan balitz bezala irakurri dut; egia da, sakontasun maila bat eta gero, ez da existitzen – ez baita existitzen “ni” jabetzan- beste bat: guztia baten baitan da, eta bat hori, gu gara. Baina, guzti hau, batez ere - emakumeekin sentitzen dut. Eta naturarekin.

Aingeru maitea, nola pentsatu duzu, segundo bakar batez ere, ez nizula erantzungo: hain sakoneko deia entzungo ez nuenik- hain sakonetik etorria? Ba, bai, ni neu nauzu, Pimen auzo zaharreko etxe famatu horretakoa, ni neu naiz, lerro hauek irakurtzean ikusi eta entzuten duzuna.

Agian ez nizuke erantzungo faltsukeria balitz zugandik jasotakoa, "literatura" soila balitz, ez-ulertze bat izan balitz eta niganaino "literatoa" naizelako hurbildu bazina. *Ni ez naiz* "literatoa": idazten dakien izaki biziduna naiz. *Inoiz* ez naiz bizi izan literaturatik, ez eta talde baten babesetik edo bizitza publiko batetik; hortik nire indarra, edo beste era batera esanda, indar horrek babestu izan nau guzti horretatik bizitza osoan, 16 urte bete nituenetik(edo askoz lehenagotik! Jaio nintzenetik).

Neure "*ni*"ak diona bakarrik entzuten dut. Ez diot inoiz faltsukeriarri erantzungo, limurkorrena eta liluragarriena balitz ere.

---

Idatziezadazu. Erantzungo dizut, berehala ez bada ere: egunerokotasunak denega eginda nauka: zartagina dela, edo bazkaria, edo lixiba... Zartatutako eguna, idazteko bi ordu besterik eskaintzen ez didana- asko jota, gainera, eta haiek jarraian ez- 1917tik hona *nekeza* da nire bizitza: jasanezina. Inora joango ez naizen laugarren uda da: Clamart Paris inguruetan dago.

- Eskerrik asko erantzuteagatik!...

MT

[Bazterrean gehitua]:

Erantzuna idaztean

izan ezazu nire gutuna aurrean.

\* \* \*

Clamart (Seine)

10, rue Lazare-Carnot

1934ko maiatzaren 9a, asteazkena.

Maite-maitea, -Azkenean!

Gorrina pasatu dugu- lehenengo semeak, gero alabak. Presazko kopia, eta nire "Biely"ren (14) zuzenketa: (*Espiritu gatibua* (15), *Sovremennye Zapiskiko* hurrengo zenbakian argitaratuko da; testu berdinarekin bi laburpenen kopia ere egin ditut, *Novostik Polednie Novostirako* (16), *Novostik* berak eskatu eta *Miliukovek* (17) *atzera bota* zituenak (ezin nau ikusi! Ez ni eta ez Biely) lurperatu egin gaitu, beste arrazoirik gabe)

Izan ziren, eta badira oraindik- hau ez da oso estetikoak- legenak, gaiztotutako legenak guruinetan, bi hilabetetik hona edo: konpresak, kataplastak, ukenduak eta... Baina ezin didate injekziorik jarri; izan ere, orain dela hiru urte inguru, eta jartzen zidaten bigarren aldia izanik, hiltzeko zorian egon nintzen- Bihotz hau! Burdinazkoa bai, baina igarri ezina. Ustekabeak!

Orain, berriz- etxe bila; egoera tamalgarria da, gu garelako: Mur eta biok, etxe bila gabiltzanak- ni, babes gabe, erabat, izuak harrapatuta, sinestezin egiten den *Orientierungssinneraino* (18); noranzkoaren zantzurik gabe, baina zantzurik eza ez da ezer, beti beste norabaitera eramaten bainau nirezko eta nahitako dohainak, eta ez kontrako norabidean, (erraza litzateke horrela) baizik eta, gainera, hirugarren norantzan, *igarri ezina*, nire bihotzaren antzera; nik, *neure kalea* buruz ezagutzen dudan honek; garai batean "zientzia zehatzak" ulertu gabe ezagutzen nituen bezala; ni, urtebete bertan bizi ondoren, "Lazare-Carnot" neurea ezagutzen ez nuen berbera; ni, aurrera baino egiten ez dakidalako, itsumutilak gidatu beharrekoa - eta Mur, bederatzi urtekoa, beti txistuka, eta, nigandik eguneroko bizitzara inolako lorpenik espero ez duena, Mur, etxe berria dela eta, txakurraren kontuaz besterik arduratzen ez dena (izango den ala ez?), edo zabuaren kontuaz (lorategia izango duen txaleta izango den ala ez) edo, asko jota, etxe aurreko oholesiaz, ausartzen ez bada ere ondoko patiora begiratzen (gurea izan daitekeen arren). Azken finean, ordea, ez da Mur ni naramana txakurrak- itsua bezala, baizik eta ni bera daramana tigre-kumea bailitzan, edo

eskuartetik iheska dabilen etxekotutako lehoi-kumea. Eta, noski, -gu bezalako bikote bat- ez da fidagarria “etxe jabe” edo alokairu agentzientzat. Ez dut nik dama bat ematen, eta Murrek berriz, itxura berezia du- lotutako lehoiarena.

Badaki seme honek beretako lain! “negua pasatu denez, eta *estufa beharrik ez dagoenez*”, ez du etxez aldatzeko arrazoirik ikusten, ahaztu egiten du estufok-kea, hotza, zikinkeria, ikatza laugarren pisuraino igo beharra, su-hautsa garbitu beharra- tonak!- laster bueltan izango direla, eta nola!

Alabak lana du.

Ba bai, Mur eta biok pasioan gabiltzan itxura ematen dugu, paseatze harro-harroak, halaxe dira, hain zuzen ere harroak!, fidatzen ez diren agentziak, (egoki jantzita noan arren, berriz diot, ez dut dama baten *itxura*: ez dut ezeren itxura-saihestu ezina!) Sartzen uzten ez diguten ugazabak, jotzen ez duten txirrinak,- Behin eta berriz saiatzen ari naiz, (bederatzi urte hauetan, Frantziara iritsi nintzenetik!) urtean lau mila frankotan, “lorategia duen txaleta” topatzen- horixe bakarrik: lorategia duen bizitzeko moduko zertxobait- seme-alabak dituen *edozein* errusiarrek duena, errukarrienak ere, baina, noski! Guztiek dute amona, izeba zahar *usnatzaileren* bat- nik berriz- ez dut inor, eta gainera-ez naiz sekula, hemendik hogeit urtera ere, kuxkuxeroa izango: ez nintzen horretarako jai.

Batzuetan, nire burua kontsolatzeko, edo: haize fresko ahokada bat irensteko, *neure zentzumenak aurkitzeko*- bertso-lerroak idazten ditut, *Sovremennye Zapiskik* berriz bueltan bidaltzen dizkidanak, zinez eta sotil, barkamena eskatuz, nire bertso-lerroak irakurle arruntak ulertzen ez dituen aitzakian.- *Poslednie Novostik*, aldiz, *bidalitakoa* onartu ere ez dituenak egiten: Emakumea! *Ez* ditugu zure olerkiak argitaratuko: ez zaharrak, ez berriak, ez ulergarriak, ez ulergaitzak, ez lirikoak, ezta epikoak ere-bat bera ere ez. (Miliukovek emandako agindua da).

Horrela doa nire bizitza.

Eta, hori gutxi balitz, atzo bertan patuaren azken txantxa: etxearen alokairurako emandako 475 frankoek agortu dute denbora, *-zergatik?*

Eta Murrek: “-Ikusi, ama? Zu mugetarekin pozten zara, baina gafea besterik ez da” (frantsesentzat, mugeta maiatzaren lehenean “zoriaren fetitxea da”. Ez dute ikusten *mugeta* dela zorionekoa, eta ez berarengandik datorrena!) –Zergatik? - Diruaren epemuga justu mugetaren ostean iritsi da: lili zuri beste franko!

Nahi ahal duzu kontatzea?

---

Ederra da zure gutuna; ederra zure gaztaroko ipuina. Eta zure planta ederra da gaztetako (neskatilatako) argazki txiki honetan- esan daiteke belarria adi-adi duzula. Begiak, sekulakoak. Baina, ene maitea -“dama gazte” guztien aldean ederra izan zara zu orduan!- “eder” gutxik ordezkatu ahal izango zukeen zure aurpegia, zure arimaren aurpegia, zeren eta ihes egingo lukete- sutetik bezala, ezenatokian bezala bizitzan ere ihes egiten dute: *benetako* sutan bildutako antzerki oihaletik bezala.

Ez da edertasuna- Beldurtzen dituen (beraiantzat ezinbestekoa ez izateak ilundua) *aurpegia* da. Edertasunak ez du zer ikusirik honekin: Pushkin ez zen, Rossete(19) (geroago Smirnova), *eder eta jenialarekin* maitemindu, ez, Goncharova (20) *bizkotxoaz* maitemindu zen. Eta -harantzago joan barik- Maiakovski, bere pasio eta guzti- bizi zelarrik-panpina batez, Lily Brikez, eta heriotza, nik izenez (21) ere ezagutu ez nuen beste panpina batek ekarri zion.

Eta *poetak* horrelakoak badira, zer itxaron beste edozein gizonengandik?

Ezin gaituzte *maitatu- izpirituen* antzera (irakur ezazu nire “*Izpiritu gatibua*”)

*Baina guzti honen inguruan- beste egun baten. Orain, gutun hau gaur igorri nahi dizut, eta hamar minutu barru Mur eskolatik jasotzera joan behar dut.*

Galdetzen didazu- lagun maitea- zer egin dezakezun nigatik, aurrerago: *izugarri asko* (badut asmo bat, egingarria erabat nahiz beranduago, eta baina, asko, dena, ez bada, zure esku dago, antza. Azalduko dizut zehaztasun osoz. Zoragarria dela uste dut! Biontzat!)

Oraingo- liburu bat loriezadazu:

*Olav Duum*

*Die Juwikingen*

*Herausgegeben Von J. Sandmeier*

*Verlag Rütten und Loenig*

Frankfurt am Main (bi liburuki)

*1. Band- Per Anders und sein Geschlecht*

*2. Band- Odin (22)*

Bost urte dira liburu honekin ametsetan nabilena. Sekula ez dut erosiko, garestiegia da eta, liburu aleman guztiak bezala. Batez ere azala “cartone” erakoa badute; hori bai- azala ederra, arima ere salgai jartzeko modukoa! (Lagun batzuen etxean ikusi dut horrelako bat)-telan eginda, eskandinaviar apaingarria koloretan. Olav Duum (Sigrid Undset (23) salbu) Norvegiar idazlerik onena da, liburu hori- *epopeia* bat. Itsasoko bizitza, fiordoetakoa, *leinu* batena. Amets *airatua*. Gutxienez hiru hilabeterako zoriontasuna, ziur; nik goizaldean bakarrik irakurtzen baitut, guzia bukatu denean eta *denak* lotan daudenean -ardurak eurak ere lo hartzen dutenean-. Hamarretan *oheratzen* ditut eta -esana egiten didate. Hiru hilabeterako ez, bizitza osorako, *horrelako* liburua inoiz ez da uzten eta.

Sigrid Undseten epopeiaren irakurketan murgildu nintzenean- Uda baterako utzi zidaten!- (*Kristin Laurantochtenek*, hiru bolumenetan) *zoriontsu* izan nintzen, eta uda horren *zoriontasun* betea gogoratzen dut eta negar gura etengabea.

-Holaxe da-

---

- Pasatu dira 10 minutuak.

Beso artean zauzkat.

[Alboan idatzia]

Ez dizut umeei buruz hitz egin (zureak, ederrenetarikoak!) ez argazkiez, ez gutunez, ez nire *Poloniaz* (24), ez nire zorigaitzaz - badakit, badakit, baina, erlojua hor dago eta 10:30 ak direla dio (pasaxeak) eta, gutuna, gaur, oraintxe bertan igorri nahi dizut, bestela- damutuko naiz, ez dut bidaliko eta beste hilabete beharko dut berriz erabakitzeko... Izan ere, zu eta ni – biok, *hasiera-hasieran* gaude!

Hemen dauzkat zuretzat nire idatzien frogak, prosa eta poesiena, baina- batu egin behar dira eta, horretarako papera bilatu- eta minutua.

Egingo dut. Bidaliezadazu zure argazkia. Laster idatziko dizut.

Vilna (25) – nire hiria: maite ditut maite haren mendixkak. Eta zelan -atxikiak- nire bihotz

---

-3-

Clamart (Seine), 10 rue Lazare-Carnot  
1934ko ekainaren 1a.

*Nik bezala uste baduzu, opariak (eta oparigileak) eragindako zoriona dela eskerronik ederrena, nahi izango nuke nire zoriona ikusi bazenu, eta ikusi diot- begiekin- lehendabizi, nola zabaldu dudan paketea, ez – zabaldu aurretik haren pisuaz liluratu nintzen (zoriona hain bermatua!) gero, ikusi nuena: babesten zituen kartoi urdina, eta, hobeto esanda, zutik elkarren- kontra, bi liburukiak, eta gero- gotiko erako karakterren aurrean (hain atseginak niretzat!), eta azkenik, izenak ikustean- iparrekoak, norbegiarrak, hainbeste maite ditudanak!*

*Ba, hori [...] [ingurumarika ibili natzaie] bigarren eguneko gauerarte, ez dut irakurri, ez eta gainetik irakurri ere; ez eta eskuekin ukitu ere egin, ikustekoa zen nola sartu nuen gau-mahaitxoan (txakurrak bere hezur gogokoena bezala! - Berdin, berdin) hainbesteraino non ez dudan ukitu ere egin!- agian, txakur batek bezala, isilean mar-mar ere egin dut- funtsatutako zoriontasun baten lekuko: festa batena Schmaus! (26).*



(Halatsu, lehen ez nuen inoiz- ez eta txikitan ere- gutun bat jarraian irakurtzen. Orain bai, izan ere gehienak Sovremennye Zapiskiko erredaktorearenak dira- Moscuko azken alkatearenak- Rudnew (27)- beti gai berdinen inguruan: diru-sariaren inguruan, esku-izkribuaren inguruan, eta gainera guztietan zera: edo diru saria murriztu behar dela, edo bestela esku-izkribua dela murriztu beharrekoa. Gutun horiek (errukigabeak) hasi eta bukatu egiten ditut: txakurrak susmagarria zaionaren gainera salto egiten duen bezala).

Eta orain, liburuari dagokiona (zu zara eta hein batean- egilea!). Orain arte lehenengo liburukiaren herena dut irakurria. Uharra da. *Leinu* baten uharra- Odolak sortu eta behin eta berriz berregiten dituen irudiak denboraren ibai aldaezinean. Irudiak ez-irudia-leinuarena (gogoratzen duzu nola hitz egin zenidan, gutun batean, lehendabiziko Varenkaren inguruan, eta gero bigarren Varenka batetaz?: “Ez dut sinisten hain sinplea denik familia hori - alegia: odol hori! Indar hori-ezagutzen duzu. Zein soseguz, zein nolako konfidantzaz, zein *naturaltasunez* idatziak! Irudia- leinuarena eta naturarena berarena. Gizon bakar batek idatzi zezakeen horrelako liburua (liburua ez, blokea!) nik behintzat ezingo nukeen (ez eta *nire indar* berbera den Undsetek ere), eta nik badut leinu bat-zehatza, ezeztazina, baina hala ere-hainbeste arbasoen artean - ez naiz euretariko sentitzen. Guztiak nahastuta (gurutzatuta, batzuk besteekin nahasiak) ni sortu naute- naizena. Eta ez da izango nire ondorengorik: bat ere. Nigan agortzen da leinu hori- seme-alabak baditudan arren. (Alabak ez du ezer nirea: ez eta euren ere: ez eta alde *horretako* ezer, bere aitarena da oso-osorik, semea *neurea* dut-*indarrean* bakarrik, bere barrena bestelakoa izan arren: ez da lirikoa. Nire indarraren erramuina da, baina ez nire senarena: zatikatzeaz dagoen abarra da, urruti, eta haren gerizak hau ez den *beste* lur bat estaliko du).

Olav Duun honetan, ordea- oraindik lehen liburukiaren herena bakarrik irakurri arren eta behar bada, bera ere leinuaren azkenera iritsiko da - aita semearen antzekoa da eta suhiarena eta birlobarena- nahiz eta funtsean irakurtzen dugunak beti gauza berdinez diharduen.

Zoragarriak diren paisaiez. Zein txiroa den hegoalde aberatsa, iparralde txiroaren aldean! Orain lau iparretar ezagutzen ditut: Andersen, Lagerlof (28), Sigrid Undset eta Olav Duun- eta beti tenple berdintsua aurkitzen duzu eurengan: ama

lurraren fruituak. Bata bestea baino indartsuagoa eta aberatsagoa (bakoitzarengan lurra *geroz eta indar handiagoa du!*). Hamsun (29) ahaztu zait, gertuko indarra oraindik, sorkuntzarako tamalgarria izan zen aurreko mende bukaeran, arrakasta izaten jakin zuena (bere garaikide Lagerlof bikainak bezala). Xarmangarriena-Andersen da (30)- Lagerlof originalena- gizatiarra Undset eta setatsuen (gogotsuena)- Olav Duun. (Guztiak dira xarmangarriak, originalak, denak gizatiarrak; bakoitzarengan gailentzen denaz ari naiz hemen. - indar beraren funtsaz).

Baina, barka iezadazu “iparreko hortzmugaren hitz-beste” honengatik. Alde batetik, berriz iturrietara itzultzea da (zeu), eta beste alde batetik, iparraldea ez da, ez eta inondik inora ere nire “literatur” pasioa, baina bai nire bizitzeko pasioa, odolarena, arimarena, pasio sutua, bete-betea; Nibelungoak direla, finlandiarrak direla, edo fiordoak, edo, nik inoiz ikusi ez dudan arren, ez eta ikusiko ere, *neurea* dudan natura -ingurua. Neureganatzen dudana.

Iparraldea- oztopoz betetako maitasuna, hegoaldea errazegia maitatzen, nork ez du ba maite? (baita nik ere- eta nola gainera!). Katu siamesa maitatzea bezain erraza da. [Eskandalua izan arren] (ospearengatik -maitasun harremanak izatea). Oh! Zelan nahiko nukeen beste ehun bizitza bizitza!

(Denboran *atzera eginez*, aurrera joan beharrean) eta ezagutu ditudan guztiak ezagutzea, ikusi dudan guztia, neure begiekin ikustea- begiak itxita! [nire] bizitza miserablea! -urteetakoa! *Ez* duzu imajinatu ere egiten. Miseria, emozio eza bakarrik esan nahi dut horrekin. Bosgarren uda dator (eta negua- baina udan okerragoa da) eta oraindik, betiko Clamarteko “baso-ertz” bera; sardina lata, koipez beteriko egunkari, ezinbestean zapal-zapal egindako belar artean. Eta, nola baina, atxikitzen natzaion miseria honi! Hala eta guztiz ere- orbela. Ba da- Paris urte osorako- bedi -hau (natura eta libertate itxura). Baina, hona, neuk aukeratua, berriz ere, hau (aukera al da ba?), beste modu batera esanda, seigarren pisuan alokatu dut apartamentua (igogailurik gabe, horrek bestek beldurtzen ditu, ni igogailuak berak beldurtzen nau! Gainera, igogailuarekin urteko mila franko dira), tira, ba hori, igogailurik gabe, teilatuaren azpi-azpian, udan Edgar Poeren berunezko gela izango da, neguan- hozkailua, atezainak negutegia dela ziurtatu arren. Bi balkoi ditu kanpora atereak, estuak eta benetan

beldurgarriak, amets gaizto batetik ateratakoak balira bezala, izutzen nauen ametsa, lirismoak aparte, nire semeagatik; hark ez daki eta irtengune bat ikusi eta bertan hanka sartu barik pasatzen -alanbrezko hesiren bat jarri beharko da eta beraz, horrekin balkoia- [kaiola] bihurtu beharko da. (N.B. Hala ere ez gara gu txori bihurtuko barruan!) *gorrotagarria* aurreikusten den etxe aldaketa: etxea beste honen ondoan izanik, guztia besoen indarrez eraman behar da 6. pisuraino eta ni gaixo nago: Bi hilabetetan sendatu ezineko legenen ondoren, guruinak eta tendoiak zurrunduak dauzkat, horregatik bi egunetik behin, hirian, langabetuentzat dagoen dohaineko anbulatorio batera joaten naiz (5 franko kontsultako) injekzioak jartzen dizkirate- bernetan, txandatuz, orain batean, hurrengoan bestean, eta hain da mingarria non gela batetik bestera joan ezinka ibiltzen naizen. Askok jarri behar dizkirate, ordea, oraindik. Baina- barka iezadazu digresio hau.

Zein nolako pobrezia sentimendutan! (*erabateko gabezia*: ezer ez; zero!) eta mutur muturreko bakardadea, nire bizitza betetzen duten betiko hamar lagun artean (neureak barne). – “Zuk nahi izan duzu”. Oh, ez. Hori ez. Egia esan nik ez dut ezer nahi izan. Horrela -gertatu da dena (*ez al da esaten* “gertatu”?) Nik aukeratu banu-baina ez da hori, hori ez: erabateko bakardade harresiduna (gotorleku batena? Monasterio batena?- *izan zen* batena-!)-leiho txiki batekin, eskailera handi batekin, ikuspegi eder batekin, lorategi handi- handi batekin, isiltasun osoan. Eta ez abandonu hau jende artean, ez urduritasun hau, zapalketa hau, joan etorri hau- nolabaiteko “erosotasunak” dituen apartamentuan, iturritik ura noiz aterako edo sua berez piztearen esperoan egotea beste egitekorik gabe. Chekoslobakian (31) neu joaten nintzen putzura eta- ilargia ekartzen nuen neure baldean-Chekoslobakian egur lehorra ekartzen nuen- eta nolako su ederra egiten zuen, eta nolako gozotasuna ematen-inguruak ketu arren! Ketzen zuen eta!-horrek haserrarazten ninduen, baina bizirik zegoen zerbait zen: eta, handiak esaten banituen ere, ez nien suari eta egurrari ekiten. Eta kanpora orduko -basoa. Sakona, segurua, gizabanako arrarorik gabe, zigarro- mutxikin gabe, biluzia (mardul- hostotsua!), gizonik gabeko basoa. Eta gure etxe ostean - herriko azkena!- nekazarien etxeak urruti geratzen ziren - hamaika mendi bide eta bakoitza mendi banatara. Eta gero, antzarrak, izutu

egiten nindutenak, baina xamurtasunez gogoratzen ditudanak. Eta gero guztiaren [gaineratik]-errekatoa!...

...Nire inoren antzik eza, ezkuta ezin eta zoritxarreko honetaz gain, babesgabetasunak- eta familiak-nigandik urundu dute jendea. Behartsu - bakarrik-tira! Baina behartsu... ezinezkoa egiten zait! Familia-erosotasunik, bat ere ez, ez eta familia-girorik ere, bakoitza bakan eta bakoitz (gauzak ere)- jendeak -bere aldetik, ez du, nire etxean ez ezik, *gure* etxean (ez baita “gure etxea” existitzen) pixka batean ere geratzeko gogorik. Edozein aitzakia dela (gasa indartsuegi dagoela, zapi bat desagertu dela...)- eta orduan, barrenerago dagoen beste arrazoiren bategatik, leherketa-Bakarrik bizi beharrekoa zara! Edo (nik): Mur hartu eta joan egingo naiz. Edo bestela (alabak):- Ez pentsa harrikoa egiten pasatu behar dudarik bizi osoa eh? (N.B. Plater bakarra, berea, da garbitu beharrekoa- *gaueko 10etan* afaltzen baitu lana egin ondoren, nik, berriz, garbitzen pasatzen dut egun osoa eta ezin dut gehiago- eta gainera *ez dut nahi*). Hala eta guztiz ere- ez gara banantzen, inork ez du hori egiteko kemenik, hala eta guztiz ere (senarrekarekin daramat) elkarbizitzen hogei urte baino gehiago eta maite nau- bere erara- ez nau, baina, jasaten, eta nik ere ez- bera. Funtsezko gauza batzutan: espiritualtasunean, eskuzabaltasunean, askatasunean- ados gaude (horretan egundokoa da) baina, bai hezkuntzari dagokionean, bai bizitzaren erritmoari dagokion gaietan-guztiak banatzen gaitu. Ni, ezkondu nintzenean (eta betidanik) heldua nintzen, bera- ez, eta orain, hogei urteko heldutasun etengabearen ondoren, bera heldu da- beste zerbaitetara, askotan onartzen zaila den zerbaitetara. Funtsean bereizten gaituena zera da: bera, gizarte lanak, jendetasunak erakartzen du- nik berriz, bakartasuna (otsoarena) behar dut. Bera ezin da bizi egunkaririk gabe, ni, berriz, bizi -ezin naiz bizi egunkaria pertsonai nagusi bilakatu den etxean edo munduan. Gertakizunetatik at bizi naiz erabat, eta bera hor dago bete-betean. Gurtzen zuen ama eta bera baino urtebete gazteagoa zen(32) neba galdu berri zituen ume bakarti, liluragarri bat (hamazazpi urte) aurkitu nuen. Horregatik “hartu dut senarretarako” (33), heriotza ezkutatzearen, beste modu batera esanda. Bestela ez nintzen ezkonduko. Gaur esan dezaket: ezkontza goiztiarra hondamendia da. Zure adineko batekin bada ere.

Ah! Beste asko bezalakoa naiz honetan, ez naiz ez bakarria honetan, baina munduan beste horiek asko badira ere, bizitzan- bakarrik dago eurentariko bakoitza. Espazioan (lurrekoan eta denboran) asko badira ere, inoiz ez daude batera, ez eta binaka ere! Bakoitzaren inguruan- bakartasun zirkulua. Elkartu *behar ez duten* konspirazio batetako partaideak balira bezala. Horregatik nahi nuen hainbestearaino aurkitzea- bizitzan. Edo beste modu batera esanda, zein alde dago ba beste munduarekin? Han, behean ere badira eta - ahotsak...

Eta gainera- aspaldian ez dut inor maitatzen, ez naiz inorengatik pozten, ez dut inorengandik-*ezer*-espero! Oh! Berdin zait: gizon, emakume, haur, agure-funtsezkoa, maitatzea da. Maitatzea, *nork bere burua maitatzea*. Lehen, horrek biziarazten ninduen. Musika entzuten duzu, irakurtzen (edo idazten) dituzu poemak, edo-laino gorri bat- hori bakarrik, eta bat batean, aurpegi bat, ahots bat, izen bat, nire melankoliaren *zentzua*. Orain berriz- eta hainbeste denboratik hona!-urteak!- inor ez da azaltzen. Eta nire laino hau neure gainean zabalduz doa bere pisu guztiarekin.- Horregatik murgiltzen naiz hain liburu lodietan. Eskerrik asko-zureagatik.

Idatz ezazu. Penatu bazaitut, barkatu. Ez daukat *inor* hauek guztiak esateko. Badaukat-pertsona guzti hauen artean- lagun bat, nagusia bera,-Leonid Andréieven (34) alarguna, Chekoslobakiako garaietatik, adiskikide dudana, baina hark bere malurak ditu: lau seme-alaba- eta guztiak sakabanatuta- Bera ezik, ez daukat Paris guztian arima bakarria. Eta Parisetik kanpo-munduan- Moscun daude Asia, nire ahizpa eta Boris Pasternak (35). Rilke ere baneukan (36) baina hil egin da, eta dagoeneko, bera ere -ahotsa da.

Irakurri al duzu nire Biely? Gorde al izango dituzun froga batzuk bidaltzen ahaleginduko naiz. Azken Ustrechian (37) ere badago testu labur bat- Hlystovski (38): nire haurtzaroaren piltzar bat.

Beso artean, amultsuki zauzkat.

Uztailaren 1.arteko zuzenbidea- aurrekoa-.

Ba al dut argazkien antzik? (eta "lehoiak"-ba al du antzik?)

[bazterrean gehitua:]

Idatziezadazu, mesedez, zure patronimikoa!

---

-4-

Clamart (Seine)

10, rue Lazare-Carnot

1934ko ekainaren 24a.

-Natasha- (Ez naiz zuri zuzentzen ari, baizik eta neure baitarako ahots goran, ahoskera egiaztatzen dut).

Gogoratzen al duzu Leonoven (39) *Koviakinen koadernoetako* Natasha hura? (Barnaul, semea, heriotza). Zein pertsonai goxoa, eta zein nolako maitasun miragarria, eta zein bertso-lerro miragarriak, Ez da? ("Ez nuen zugandik Natasha bat espero- Grishka bat espero nuen..."). Haztamuka bezala idazten dizut eta apustu egiten dut- zaldi batekin bezala- mirakulua gerta dadin.

Katia, Katerina,

lau errimetako koadroa

ari da Katia brodatzen

bere galoidun mutilaren zain

- Ene! Mutil galoiduna

Eraman nazazu etxera!

Barreanean bi leiho dituen

mendiko hura dut etxea.

Horra hor, bizitzeko eta izateko nahi izango nituzkeen *bizitza hau* eta *Katia hau*.

Nire kanpoko itxura- (Esamolde hori ia-ia komatxo artean jar-tzen dut). Neure erara erabiltzen dut-Shakespearek Lady Macbethen amatasuna bezala. Zin baten beharra duenean- seme-alaba guztiengatik zin eginarazten dio, bakartasun baten beharra duenean- bere antzutasunagatik. Dena (nigan) testuinguruaren araberakoa da (zein ingurunetan). Nadiaren (41) edertasunarentzat, nire ez-

edertasunaren beharra dut, ez zentzu literarioan (zentzu literarioan, ez dut nik *ezeren* beharrik!) baizik eta Nadia hartaraino maitatu ahal izateko- eta zehatzago esanda: Nadia (ederra) hartaraino maite dudalako naiz zorigabekoa- ezinbestekotasun handiago bategatik! Nik milioi bat banu, eta Katia, Katerinaren “etxea” gustuko banu – orduan errukarri sentituko nintzateke, beste zentzu batean, niretzat, zerbait maitatzea = lortzeko ezintasuna da. Ulertzen al didazu? Eta (nigan diren) zentzuzko argumentuen, edo izandako garaipenen gaintetik, nire bizitzan, beti - itsu eta egoskor- galtzailearen erara bideratu ditut gertakizunak, ezinbestean- edo beste era batera esanda, *sekula* ez dut lortu izan zerbait hori (pertsonearen *arima*)- larregi maitatzeagatik- edo *nabariegi!* – liluraturik!

Baina, Natasha, agian, helburu bakarra duenak bakarrik irabaz dezake: irabaztea- kosta ala kosta eta nahi duena lortuz) – edozein modutan dela ere. Nire aldetik, ez dut nik inoiz onartu izan nolana hikorik, ez eta nolabaitekorik ere, atoan –gogo gabeturik- jaisten nituen besoak: - “Ni ez nabil jolas honetara”. Nahiz eta inoiz ez dudan nahi izan ni maita nazaten- nahi nuen 1) ni izatea maitatzen nuena: bitartekorik gabe; 2) hori berez gerta zedila, edo beste modura esanda, hori ez-gertatzea ezinezkoa izatea. Beste guztia, besteen esku usten nuen- eta ez zioten erabiltzeari uzten. Baina, Natasha, agian, nik ez dut *inoiz* nahi izan maita nazaten (hori gertatzen hasten zenean, molestatu egiten ninduen- lotu egiten ninduen, ez bada posible *bi izakik* elkar maitatzea, orduan nahiago ni izatea nik hobeto (maitatzen) baitakit. Gauza bat bakarra nahi nuen nik: maitatzea, eta, hori, uste dut, lortu baino lortuago egin dut, nire bizitza guztian zehar maitatu baitut. (Orain atsedean aldi batean nago- luzea, 10 urtekoa, uste dut, nire azkena eta sutua izan zena kontatu gabe: nire txakur saboyar Podsemi niona (Chekeraz, “podsem”ek-eterri hona- esan nahi du, eta horrela deitzen diet txakur guztiei Chekoslobakiatik etorri nintzenetik). Eta argitasun bat. Elkarrenganako maitasuna bakarrik txakur batekin onartu izan dut).

Eta- erabil ditzagun komatxoak- “nire kanpoko itxurari” bueltatuz: amak erakutsi zidan txiki-txikitatik ez nuela edertasunik, ez ahatetxo itsusia baizik eta hartz potoloa, ni bezalako neskatxo itsusi batentzat lehenengo emazte ederraren semea zen Andriusha (42) ederra hartu eta gero, ni hartzarekin parekatu ninduen, egia esan hartza nintzen hamabost urterekin eta ez zen nahikoa bizi

izan (43) ni “eder” ikusteko. Are gehiago, garai batean betaurrekoak neramatzan eta betaurreko gabe biluzik sentitzen nintzen, eta (harrotasunagatik!!) ilea motz-motz egiten nuen sarritan. Hitz gutxitan esanda, nire bizitza guztian, *inkonziienteki*, barrutik eta kanpotik nire burua itsusitzen nuen, urte batetik 100 urte bitarteko paristar guztiek egiten zutenaren kontrara, (Mistinguett) eta agian emakume munduak egiten zuenaren kontrara.

Viacheslav Ivanov (44), nitaz hitz egitean, zioen “ederra” baina, hori, antzinako mundua eta germaniarra maite zituelako zen eta nigan ikusten zituelako. Iraultzaren garaian nitaz zioten: “Diana seme gaztea eskutik daramala” eta Iraultza berberaren garaian, geltokian aldarrikatzen zuten: “Fraide batek ume bat bahitu du!”- eta oraindik iraultza horren garaian, neskato batek ahots goran, kalean:- “ *ama* horrek pena ematen dit: zatarragorik!”-Ikusten duzu?

Ni (“neurez”) *emakumeentzat* eta *poetentzat* bakarrik izan naiz gustagarri, eta horretan ez zen izan salbuespenik.

Baina, nire ez-edertasunaz ari banaiz hemen, *nire bizi guztian*, ederrak direnak maitatzen direla ohartu naizelako da, baina, egia-egiatan: arrangura gabe-*inork ez nau nire bizitza osoan maite izan*- eroki. Ba, bai, ni ez nintzen polita: itsusia nintzen. Objektibotasunez: (hogeita lau urte luze egin artean) hazpegi zurrinak nituen, eta *ume* koloreak (ilehoria, masail gorriak, begi berdeak nekazarien erara, hori ere, -haurtzarokoa! baita) Orain- eta aspalditik!- ez dut kolorerik: berde berdindu eta nabari bat, ezpainak- ia *pintatu* gabeak, aurpegi zurruna gogortu egin da. *Ondo maite nauten* emakumeek, beste gabe-bakoitzak - ilea tindatu nahi didate *kosta ala kost*a. Ni, nahasi eta setati: - Ez zait hori gustatzen. Ezin dut. Zure ile urdinak tindatzea- zauria pintatzea bezala da. Horrelakoa naiz ni. “Gustatzerik ” ez dut nahi: bere garaian ere ez nuen nire adatsaren urreaz baliatu nahi izan, baina tira pelukero baten bitartekaritza erabili...!:

Parisek guztiz arrosa-koloreko ikusi nau,  
Parisek ez nau- makillatuta-ikusiko!

(Ergel akabera bakoa nintzen: konturatzen nintzenean “gustukoa” nintzela, bestea gorai patzen nuen, gero lelo mailaraino jaitsi arazteko- eta mespretxuka hasten



nintzaion. Baina, agian, ez naiz hain ergela izango, izan ere “gustatzea” zatitan deskonposatzea da, kasu honetan bisekzio bihurtutako anatomia. “Emakumea den heinean gustagarria da” edo “emakumea den heinean ez da gustagarria”- Zer esan nahi du horrek?- Ze noski- hortik: bere bekainak gustuko ditut baina bekokia ez” horretara-urrats bat besterik ez dago. *Ni* –bekain batzuk eta bekoki bat- ote naiz ba kasualitatez?

*Inoiz* ez naiz benetako emakumea izan ez eta benetako umea ere (are gutxiago “benetako neska gaztea”-sinpleki- inoiz izan ez nintzena) eta ez naiz sekula emakume heldua edo atsoa izango- ez eta fisikoki ere, gorputzean (nire baitan, nirea!) gaztetasun heziezina baitaukat, nire mugimenduena, nire tendoi eta giarre guztiena- eta hori, *benetako* izakia izan naizelako da, edo behar bada benetako *ez-izakia*- mi-raritan! (Ederretik pizti izatera...) - Nire parentesiekin aspertua?

---

Gutun hau zure pena jasangaitza zaizunean iritsi daitekeen arren (zure ahizpa). Horrela balitz- barka iezadazu- haren ondoan irudikatzen zaitut: tisikoz inguratuta hazitakoa naiz, alegia, desager-tzez- Eta badakit. Ezagutzen dut haien ahotsa - azkena. Eta haien *izuak* altzairuzko bihurtutako begirada; labana bezalakoa. Eta haien aurpegi irribarretsua:izuak *herabetua*. Eta haien logelako usaiak. Eta erietzeko kristalezko gau mahaitxoan egokitutako dena: pilulak, xiringak, jostailuen antzeko potetxoak: apaingarriak.

*Orduan*- eter usaia zen. Hiltzear zegoen gure ama (1906ko uztailaren 5ean hila)- eta han eter usaia, eta han leihoraino, izaki edo ez-izaki bailitzan, iritsitako jasminarena. Eterra, jasmina eta moztu berria zen pinu zura-gela berezi bat egin zuten gure amaren azkenetarako: neurrigabe handia, pixka bat gerizpetsua, inork moztekoa zenik pentsatu ez zuen jasminaren eraginez (agian hobeto horrela!), gu Yaltatik Moscura gentozen bueltan, baina ez ginen Moscuraino iritsi, “Okako” geltokian jaitsi ginen, Moscutik 138 verstara (46)- horda Tarussa (47) dagoen tokia hain zuzen ere- hau da, “Okatik” 17 versta harantzago erremolkean.

Eta gure ama hil zenean, Berpizkundeko elizara zeramaten bitartean (gure “dacha” isolatutik Tarussaraino)-Oka ibaiertzean zehar, bapore osoak kendu

zuen kapela-omenaldi adeitsua bailitzan baporearena-itsasontziari: Tsar -ari. Eta gogoratzen dut, orduan keinu hark egin ninduela-zoriontsu. Errusiako uztailaren 5 hartatik, izango dira

1934

-1906 = 28- hogeita zortzi urte.

---

Nitaz hitz egiteko (honi "ni" deitu balekio!). 500 frankoko aurrerapena eman dugu, hau da, alokairuaren erdia, erabili ezina den, eta hiltzeko arriskua suposatzen duen apartamentu batengatik. Hilabete osoan zehar, kantitate hori berreskuratzen ahalegindu gara: ez dugu ezer berreskuratu. 500 franko, nik Bielyrekin irabazitako ia guztia. Erabateko miseria. Murren eskolengatik 100 franko ordaindu behar dira.-15ean- 750 franko ordaindu behar dira apartamentu *berriagatik* (beste bat ezberdina), dagoeneko alokatua. Itxaropen txikiena ere ez. *Polednie Novostik* franko bakar bat ere ez dit eman, testuekin dirua itzultzeko moduan nagoela jakin arren. Zer egin- inork ez daki ezer. *Sovremennye Zepiskik* diru-kutxak hutsik ditu. *Ustrechi* egunkaria itxi egiten da. *Chislan* (48) nire *Basoko erregea* (prosa) azaldu da- oparia hori ere. Orduan itzuli egiten naiz- hogeita zortzi urte atzera, jasmin horretara, hor gordetzen naiz, lehenengo, lehenengo burua. Bost urte uda gabe- eta beste behin ere- ez dugu izango. Niretzat- zer axola du (duda barik ez dut merezi izan)-*ez izatea* merezi izan dut!, baina Murbere lan saiatuagatik- berak merezi du: denen gainetik *hezur eta haragizko behia* ikusi nahi du- zeruari eskatzen dio!

Beso artean zauzkat. Idatz ezazu.

M.T.

[ bazterrean gehitua.]

15erarte- lehengo zuzenbidea.

Èlancourt, Trappesetik (H. eta M.)

Mme Bretonen etxea

(*Ez ahaztu Frantzia!*)

1934ko irailaren 6 a.

Natasha maitea, gutun batentzat ordurik ezegokienean idazten dizut: bazkal ostean (frantsesentzat-gosaria), Murren lo- aldia (orain arte (bederatzi urte), egunez egiten du- eta hori egiten jarraituko du: beretzat-atsedena, niretzat -atsedena eta zuretzat (noizean behin)-gutun bat) esan bezala, Murren lo-aldian, horrek esan nahi du ez gela handian, garbia baina zehaztu gabeko zereginetarako, idazketarako eta ametserako gelan, baizik eta jana prestatu eta jatekoan, hau da -sukaldean: horregatik: ordena gabekoa, lardaskatua, euli eta erlez inguratua (udazkena: sagarrak eta, sagar horietatik, konfitura ordeztako bat). Eta gehiago, joan-etorri etengabea leiho parean: txirrindulariak beraien bizikletekin (eskuan), nekazariak behiekin, atsoak ahuntze-kin, kalera ematen baitut eta mundu guztia (hiru pertsona eta erdi) norabaitera doa halabeharrez eta halabeharrez pasatzen da nire aurretik. Oraintxe bertan, leihoaren beste aldean, elkarrizketa bat: *-Itxura onekoa: berak itxura ona du, ez da?- oh bai, itxura ona du. Baina ez da gizona. Oh ez, ez da gizona. – Hil bukaera arte geratuko da?- Oh bai, hil bukaera arte geratuko da. – Ez da betiko, eh? – Oh ez, ez da betiko.*

*Bera*, jakina, ni naiz: Èlancort herriko atzerritarra, lehendabizikoa eta bakarra. Beraiek dira-gizonezko ahotsa eta emakumezko ahotsa- bi *atso-agureak*.

Hemen nago Murrekin uztailaren 31tik. Ordaintzen dugu bi gela huts-hutsengatik (bat sukalde bilakatua, beste modu batera esanda denbora guzian piztuta dagoen su txikia)- 120 franko hilean. Ezer gabe. Bizi-lagun batzuk utzitako bi ohe, nik ekarritako bi mahai, hirugarren bat eta bi aulki erosi ditudanak. Baina baxera *guztia* fardel eta paketetan ekarri behar izan genuen, -fardeleria osoa sobietarra zen.

Seriozha (49) noizean behin etortzen da, eta lo, hemen uzteko eman zidaten guztiz hustutako traste zahar baten gainean egiten du eta bueltaka pasatzen du gaua, kandela pizten du eta irakurri egiten du, eta batzuetan hazka aritzen da. Hemen *ferragostiar* (abuztu hitzetik) beldurgarriak daude armiarma ikusezinak-

borobilean heltzen dute: lepoaren inguruan, gerriaren inguruan, sabel arkuan, besoak eta bernak gutxietsi barik-azkura jasanezina da eta sarri ekzema bihurtzen da. Ez *dira* eltxoak. Ba al da horrelako zikinkeriarik Polonian? Frantzia osoan hedatzen ari da eta orain dela hiru urte edo agertuta.

Benetako landara. Lehen, baso bat zegoen eta, izatez, oraindik hor dago, baina ezinezkoa da bertara joatea, sasi- arte azpi bakoitzean eper bat baitago, edo bestela ehiztari bat- askotan ehiztaria eta, edozein modutan- hiltzeko arriskua. Lehenengo ehiza egunean, ehiztariak Felix, nire txakurra, akabatu dute- gaztea, alaia, ilegorria eta leiala, beti ihesean eta beti itzulian. Oraingoan- ez. Arratsalde guztian egon gintzaizkion zain, gau osoan, goiz osoan- bere bila atera ginen berarekin paseatu genuen zelai eta basora- inor ez: tiroak bakarrik.

*Oraindik* ere txakurrez errukitzen naiz. Hau, kalean oparitu zidaten: ferekatu nuen, eta jabeak: -Nahi al duzu? Nik, horixe, *bai* – eta laketu nintzen berarekin, ohitu nintzen- eta orain... txakur hori *xarmangarria* zen. (Zertarako pozoituko zaitut berarekin. Norberekeria. Baina gutun hau ez litzateke, bestalde, nirea, ez banu Felixen inguruan hitz egingo, nire *oraina* da: mugiarazten nauen tristezia).

Dena dela ere, hemen izango naiz irailaren 20arte. (Eskolaratzea urriaren 3an da). Natasha maitea, serio, *benetan* etorriko zara Parisera udaberrian? Zatoz. Ondo egongo litzateke Pazko egunetan, hau da Murren oporraldian, ni ez nadin lotuta egon bera eraman eta ekartzera. (Berak- bakarrik bidaiatu? Ez diot uzten hiru etxeko tartean dagoen ikastetxera bakarrik joaten. Umeen independentzia gurasoen axolagabekeria *besterik* ez da. “Nire semea independentea da” esan nahi du- “inolako kasurik ez egitea erabaki dut”. Baina horren inguruan- beste noizbait).

*Zuzenbide honetara idatziezadazu, oraindik garaiz ibiliko zara.*

Egin dezagun amets pixka batean- Versailles batekin guretzat udaberrian (zoragarria!!!). Trianon pizgarriaz, edo bakar- bakarrik vanvenar gure kabiaz (Vanvesen nago orain-baina Clamart bezala da, esan nahi dut inguru hurbil bat dela): Soldaduz betetako lursail alfer horietan paseatuko dugu arratsero. Lastima- *preso* ikusiko nauzu (etxean), presaka ni eta mundu guztia estutzen, ezer jasan

ezin eta *–dena* – jasan beharrean. Baina batzuetan, lortuko dugu ihes egitea. Esan iezadazu hau *serioa* den. Beste modu batera esanda, zein ehunekotan da amets?

Beso artean zauzkat, zure berrien zain.

M.T.

[Bazterrean gehitua gutunaren hasieran:]

Tsvietàieva gabe idatz iezadazu, bakarrik-Efron, bestela ez dute asmatuko gutuna igorrazten- hemen, ohitura sinplifikatu batengatik, ez da familiaren deitura erabiltzen, hemen herri guztiarentzat, *bi* familia deitura: *Mendia* eta *ura*, nirea, Efron- hirugarrena da.

[Bazterrean gehituta gutunaren bukaeran:]

Nire zuzenbide *iraunkorra*:

31, rue Jean-Baptiste-Potin

Vanves (Seine)

France

Hona idazteko nahikoa denbora izango duzun arren, 25 arte egongo naiz segurutik, Murrek ahalik eta denbora luzeenean oilo eta behien airea arnas dezan nahi nuke- kaletarra eginda dago eta bere bizitza osoan hemen ikusi zuen lehenengo aldiz txerri bat. Esan zuen: “zikina eta lazgarria”.

\* \* \*

–6–

Vanves (Seine) 33, rue Sean-Baptiste-Potin

1934ko irailaren 29a.

Natasha maitea,

31a pasatuta ere, zure gutuna berdin-berdin iritsi da, oso harrigarria dena, ez baitago frantziar postariak baino geldoagorik (ez eta axolagabeagorik!). Izan ere, Clamarten famatuak gara gure erara: etxez mudatzen gara takean-potean eta postariak bilatu eta kargatzearen eraginez, alferraren alferrez gainezka egiten dute. Hitz batean, ez ahaztu, 33. zenbakia eta ez 31- eta hori negu guztirako, udaberrian beste leku batzuetara joateko gogoia sortu aurretik. Nomadak eta txakurrak bezala (alderrai. Ez dut bestelako txakurrik izan).

Natasha maitea, amestu dezagun piska bat-udarekin. Lehenengo eta behin argitu dezagun zuk nahi duzuna. Ni edo Paris? Edo are: ni eta Paris? Edo areago: Paris eta ni? Zeren eta tamalez, uztailean, duda barik, joango naiz inguru hauetako baserriren batera- Murgatik, Mur dela eta, eta ez bakarrik bere osasunagatik-bere *arimarengatik*, dagoeneko *arriskutsuki* hiritartuta eta hondatua ikusten duenagatik: iragarki, kinada, erakusleiho segida, hormetan ezdeusa, alfer eta suntsitzailea –funtsezkoa ezkututzen.

Agian ez dut ezer lortuko- indar nabarmen modernoarekin hazten ari baita eta niretik *indarra* besterik ez duen – izakia baita: urratu-ezina. Ni ere izaki urratu-ezina naiz baina bakarrik erabateko urraketa jasan izan dudalako: guztia – sentitzeagatik eta ez ez – sentitzeagatik. Izan ere, horma hori (iragarkiena, kartzelarena), nik ez dut ikusi ere egiten: harantzago ikusten dut: ez da existitzen, bakarrik: ni nago objektuarekin, horma-oztopo gabe. *Nire begiradarekin*, bota egiten dut! (eta nola gorrotatzen dudana: itsaskorra, lerdetsua, kodizia guztien estigmek estalia!) Baina Murrentzat, - paradisu bat- da: - “ama! Beste publizitate bat! Ama! Beste “*iragarki*” bat. Hitz batean, Lauzunez (50) aspaldi idatzi nuen piezan bezala.

-Dena, dena gustatzen zaio- berria baldin bada!

Eta, hortik apartatzeko desbideratze bakarra – *behiak*. Nik, Natasha, nire haurtzaroan, behiak ez baintuen atsegineko, mendian, ez nituen behiak atsegin baizik eta – zuhaitzak: neure arima. Eta ikuskizunak (*ikusi* beharreko guztia), nire haurtzarotik gorrotatu izan ditut: opera, baleta, *Vaud Kantoiko ehungarren urtea* (51) – Hau tormentua! Jarrita egon – eta begiratu. – Lelokeria eta lotsa zela pentsatuz jolastea – gorrotatzen nuen bezala – orain ere, ezin dut guzti hori

irentsi – ez eta tenisa ere, eta bere pilota eta bere erraketa, Natasha, ezin ditut irentsi. Izan ere, nire bizitza osoan *bakarrik* izan naiz (eta maitasunean barne). Bestearekin hitz egitea bakarrik gustatzen zitzaidan – eta pauso handitan natura arras zeharkatzea. Beste guztia jasanezina egiten zitzaidan – *aspergarria eta ergela*. Eta hori nire izatearen memoria dudanetik. Baina Murren baitan – ezin dut ezer ezagutu. Berak bi pasio ditu: IKASKETA eta JOLASA: nire bi kontra-pasioak, ze nik lana egitea ere gorrotatzen nuen, inoiz ez dut ezer ikasi, ez eta estudiatu ere, dakidana – bakarrik etorri zen: objektua eta nire arteko *sinbiositik*, nire berarekiko *bategitetik*. Horrela ezagutu nituen Goethe, Napoleon, emakumezkoen (52) XVIII. Mendea, orain – Norbegia, eta agian ezagutzen dudana bakarra, giza-arima izango da: indartsua eta bakartia. Nire bizitza guztian izua izan diet egunkariei, eta Murrek berriz, bertatik *edaten du* eta ezin dut ezer egin horren kontra, gure etxea behera baitator egunkari azpian, eta ezinezkoa da egunean *zehar* eskuetatik kentzea. Haur (gazte) liburutegi *ederra* du, liburu *ederrenak* – frantsesak eta errusiarrak – baina ez du gogoko berrirakurtzea: - “Irakurri dut bi bider”, ez da liburuarekin bizi, jolastu egiten du harekin, aspertu egiten da, eta aurrera. Eta “aurrera” dira abentura eleberriak, eskuetan dela, begietan (erakusleihoetan) dela, eta hortik datorren hiztegi guztia, “*Odola zerion* (zein lazgarria!) *buru-hezur puskatuari*” eta horrelakoekin, hitz aspertu osoak eskolatik ekarritakoak bezalakoak. Horren kontra *bakarrik* nago, *bakarrik* berarekin, zerbait lortuko nukeen baina *ni ez nago* bakarrik eta bere aitak *dena* onartzen dio: lehenengo-horrela bakean gaude, gero- Bera ere bizitza publikoak menperatzen du, *bera den-dena* egunkarietan eta gainera “abentura eleberriak, hori da erromantizismoa”. Baina Murrek bederatzi urte terdi ditu. Uler iezadazu nola, egongo naiz, ni- Abenturen aurka? Bai, baina *maiuskulazkoekin, lehen* eskukoekin: J. Verne- bai, Dumas- bai ez “euren izenek aintza izango dute”, ez sasi-idazle eta editoreen onerako diren lardaskeriak. Murrek ur zikinetan *edaten du*-eta nik, begiratu egin behar. Ba, hitz bat esaten badut, bere aitak. -“Tiranoa zara, bere haurtzaroa zapuzten ari zara, jendarmea zara, ez diozu uzten arnasa hartzen...” eta horrela beste guztia. *Bere aurrean*. Eta hortik, Murrek-niganako etorkortasun hori: - Ama koitadua, zuk ez duzu horrelako ezer uler-tzen! (ez egunkaririk, ez teknikaririk, ez kirolirik, ez eta berak bizi duen ezer). Ez da konturatzen hori dela nire *indarra* eta ez nire ahultasuna, izan ere, tenisa “ulertzea” edo zatitan moztutako hamaikagarren emakumea, edo ministro-aldi

doilor baten ez dakit zenbat garren eroraldia- ez da beste munduko gauza. Baina guzti hori, ez dut nik jakin nahi! Eta orduan Murrek errukior: -ama koitadua! Goizetik gabera arte *epaitu* egiten nau: txikikeriengatik edo funtsezko gauzengatik: eta nik ez dut hezten behar den bezala, - “guztiaren beldur zara: barregarria da!” eta nik ez dakit nola joaten den *Victor Hugo kaletik, Pariseko kalera eta idazten dut inork publikatu nahi ez nauen moduan* , eta ez dut burua altxatu nahi hamaikagarren hegazkinerantz (bere gainera eror-tzear!), hitz batean esanda “ez modernoa” eta *bihar* esango du: interesik gabea. Eta arrazoi du, nirekin aspertu egiten da: jolasten jaio nintzenetik – ez dakit, nik bakarrik elkarrekiko hitz egiten dakit, baina berari interesatzen zaiona da hitz egitea bakar-bakarrik *Lépin* tekniko *Lehiaketaz* edo *Poslednie Novostiko* gurutzegrametaz edo auto marka berri batetaz. *Familia gabe* (ziurrenera ezagutzen duzu) ez du atsegin, Lord Fauntleroy hori – ezin du jasan eta bakarrik geratzen naiz bere (nire) haur liburuekin. Jaio zenetik, ez dut izan inolako eraginik beregan beti, bere ondoan egon arren. Izaki osatua da, osatutako joeraduna, - eta oso osatutakoa – *Nik ikusten dut* noraino den hau desesperagarria- eta hala ere borroka egiten dut - ni beregan izateagatik. Eta – ez dut ezer lortuko.

Aliarekin - are okerragoa da (Murrek ba du, berak- sikiera, nire fisikoa- eta nire *indarra: nire materialtasuna*). Alia, batez ere “izaki orekatua” da, ni inoiz izan ez naizen bezalakoa eta nik *inoiz* maite izan ez ditudanak bezalakoxea: dena neurtua: bere izpiritua ere neurtua da oso argia izan arren, baina ez du (nire) izpiritu borrokalaririk, berak – izpiritu adeitsu eta bakegilea du. Berak *mundu guztia* liluratzen du (salbuespen gabe!). [“] – Zein zentzuzkoa den, orekatua, lasaia. Eta – zein argia den. Eta – zelako ahalmena duen. Eta – zein ederki puntua egiten duen: urrezko eskuak! Eta zein ondo dakien umeein jolasten..., eta abar. *Ertz* bakar bat bera ere ez, laztasun bat bera ere ez. Txikia zenean *eromenez* maite ninduen: *gaixotasuna* zen, orain, hori bukatu da. Etengabe *epaitzen* nau: ez nion utzi bigarren hezkuntzan jarraitzen (sei urte egin zituen margo eskolan), nik suntsitu nuen bere haurtzaroa eta gaztaroa (goizeko 10etatik 12etara bitartean Mur txikiarekin paseatzen zuen- Bellevueko parke *zoragarrian*, gero Meudoneko basoan, eta gogoz kontra egiten zuen baxera) – urte luzeetan ni izan naiz guztien beharrei eusten nien *bakarra* eta *ezin nuen* goizean paseatu. Azken udazkenean, kosta ala kosta lan hori hartzea erabaki



zuenean- oso zaila, onurarik eskaintzen ez zuena eta harrigarriena: dentista baten laguntzailea- esan nion: -[“] Alia, zuk badakizu nor naizen eta zer naizen. Bi ordu behar ditut goizean idazteko. Ez dut inor laguntza eskatzeko. Zure lanarekin ez idaztera kondenatzen nauzu. *Pentsatu*”. Erantzuna: - “ Eta zuk, pen-tsatu duzu?- zure etxean *neskame* lanean eman behar al dut bizitza? Eta – nire erantzuna: - “*Neskame* izateko oso GAIZKI egiten duzu lan. Bere amaren alabek bakarrik egiten dute lan horrela”.

Eta orduan – lanera joan zen 300 frankogatik bazkari gabe (gero, 600 franko), goizeko 8,30etatik gaueko 9ak arte, nekearen puruz erortzen – funtsezkoa zen- etxean ez egotea: Mur ez laguntzea eskolara eta harrikorik ez egitea. Eguneko gainontzekoa berea zen bitartean: nahi zuen tokira joaten zen, 13 urte ezkeroko askatasun ia osoaren jabe zen. Ez, *ni* jasanezina *natzai*o: ni, inoren antzik ez dudanak, ni, LEHENTASUNA ez den guztia epaitzen duen epailea barruan daramadana. Nirekin – gogorra da *moralki* – Eta-etengabeko gaitzezpenak: - inongo etxetan ez da baxera ur hotzarekin garbitzen. –Inongo etxetan ez da janaria bi egunetarako prestatzen.- inongo etxetan ez dira zazpi egunetarik bostetan albondigak egiten. – (Seriozha eta Alia –koroan) ulertu gabe niri, askoz ere errazago *litzaidakela*: ur beroaz garbitzea – aldi bakoitzean zerbait “ezberdina” ematea- Prestatzen denbora asko eramaten duten albondigen orde, adibidez “zekor xerrak” edo zalantza barik- urdaiazpikoa.. Hori egiten badut, *ez dela* “zekenkeriagatik” baizik eta dirurik ez dagoelako. Eurak edozein tokitan etxean baino hobeto sentitzen dira – eta ni hobeto sentitzen naiz besteekin eurekin baino.

Entzun bukaerara arte. Adibidez: Seriozhari zerbait erortzen zaio mahai azpira eta itsumustuka topatzen du (bera *oso* handia da eta, sukaldean, estu-estu gaude). Murrek kliskatu gabe jarraitzen du jaten. Nik: -Mur, hala, jaso hori! Nola gera zaitezke hor eserita aitari hori topatzen lagundu beharrean? Seriozha, utzi bilatzeari! – Seriozhak ez dio bilatzeari uzten, eta Murrek lasai jarraitzen du jaten – eta *Poslednie Novostiko* azken foiletoa kontatzen jarraitzen du. Laguntza hitz bat bera ere ez nire asmoei, eta, sarritan, iraina bakarrik niretzat. Edo bestela: - Ni ez naiz bere hezkuntzan sartzen. Egiten duzuna higuin garria da. (*Bere aurrean*). Eta *higuin garria* zera da, azkenean, bere plater *betea* eta bere ahoa

hitzez betea jasanezinik, koilara hartu eta ahoan sartzen diodala. Orduan – hori izugarritzko eskandalua da. izan ere Mur ez da isiltzen mahaian dagoenean: bazkariak (sopa eta albondigak) *ordu bete* irauten du. Baina, eskolan, oso ondo portatzen da, ba, *indar oro* bezala, mendean hartu beharrean da: bere burua. Bitartean, etxekoa anarkia da eta *aspertu egiten da*.

-Espantuzkoa, familia!

-Eta horrela – da egun osoa. Zehatzago: horrelakoa da nire eguna. Eta Alia itzultzen denean (orain itsasoan dago) – orduan okerrago izango da. Pentsatzeaz bakarrik paralizatua sentitzen naiz haren tonu lotsagabe eta hotzarekin eta halakoxe begiradarekin gogoratuta (begi handi urdin argiak ditu berak) – eta bere zauriezintasunarekin: ez nirea. Berak ez dit amore ematen. Ni “*antigoalekoa*” naiz, emakume koitadu *gaixoa*, gaur ere, bistan denez, ez duena, nahiko lo egin. – “ Hobe litzateke lehenago oheratuko bazina”. Beldur handia diot seme- alaba hauek ez maitatzeari – inork ez nau zauritu hartaraino. Aurreko urtea tormentu bizia izan da niretzat. Aita- aliaren alde baitago: *nik hondatu* dut bere bizia, *nik galarazi* diot gaztaroa, inude bihurtuz (10etatik 12etarako tartea ez ezik ni izan naiz Murrekin, jaio zenetik, denbora guztian), *mundu guztiak* ihes egiten dit, auzoan barregarri naukate –eta hori guztia bere aurrean. Eta berak *hoztasunez* entzuten du: kupitu gabe.

Eta gero: Amatxo! Zein ederki irakurri duzun! (gauean). –Amatxo! Zein polita zeunden! – Amatxo zein ederki hitz egin duzun “amarantozko uda leunaz”... Zer delata eta? Zergatik – hori? Horrexegatik - bere buruaren *ukapena* baita. Ba ni, izan- bat eta banaezina naiz: oholtzan – eta etxean albondigen gainean. Albondigen gaineko ni -ak idatzi du oholtza gainekoak irakurri duena.

Zaratekiko beldurra – ezagutzen dut. Murri: Ez egin txistu! (ni neu ere, jasangaiztasunean, txistuka hastear)- Aliari – Ez abestu! Ihardespena (berea): - Orduan zer, ama! –abestea ere debekatua al dago? Hau (hitza arrastatuz) – kartzela da – ala? – Nik lana egiten dut. -Baina kartzelan ere ez da kantatzea debekatzen, uste dut: -eta zure lantokian? Baina gure etxea ez da inoiz lantokia izango! –eta abar-Marmarka: - Hau infernua da.

Ni neu naizena- orduko amets hautsien  
adakeraz-zarata gabe, eta gainera presarik gabe  
etxeak- irentsi egin nau (53).

(Enigmaren gakoa da Seriozha Errusiara joateko gogo biziz dabilela, gizon berria izan nahi du, guztiarekin bat dator, eta horretarako bakarrik bizi da, eta arrastaka narama baina ez dut nahi, eta ezin dut, mundu berria bere adierazpen *guztietan* – gorrotatzen dut, *neu naiz* noakiona eta ez bera datorkidana, eta kontua ez da politika baizik eta “ gizon berria” –ez gizatiarra, erdi-makina -erdi-tximu- erdi-bildots, behingoz esateko-idea: idi *musketadun* bat (existitzen da!). Nik ez daukat, Natasha, *etorkizunik*. Erretratuak ere – Mur txikia zenekoak, Boris Pasternakenak, Rilkerenak – ez ditut berriz hormetan eskegi etxe aldaketa eta gero – “Denbora gutxirako ez du merezi” (54). Eta arrazoia -agian- beste etxe bat baina baita – lurralde berri bat, ARROTZA niretzat, non bertatik bertara hilko naizen: bakarrik – ehun eta hirurogei milioiren aurka. Hor, Mur galduko dut behin betiko eta betirako. Alia – galdu dut (*hogeita bat urte* ditu eta bere kasuan, *hori* (55) ez da “heldutasun eza”) Bakar bakarrik nago. Seriozhak “aspaldiko arrasto bat” utzi du nigan, maitetasun hondar bat: elkar topatu genuenean, ez zituen oraindik 17 urte eta galdu berri zituen (modu tragikoan) ama eta anaia. Baina idaztea da – *nire egitekoa*, - arnasaren parekoa –niretzat. Hor sentitzen naiz zoriontsu eta lasai. Hor, paperaren toki horretan.

Orduan – udan? Etorri nahi al duzu nirekin baserrira? Itsasorako aukera gutxi daukat.

Ez gara inora joan – semea eta biok: poltsikoan zuloa bezala hustuak – itsaso guztiak.

Bosteko billetedun jabeentzat, hamar lastimagarrikoak ozeanoak - garestiegi zaizkie!

(1933)

Azkenean oraindik ez dut erabaki: bostekoa – edo hamarre-koa. Baina agian... ziurrenera, ederra litzateke – itsasoan igarotzea. Niri izugarri gustatzen zait udazkenean, guztiak joanak direnean. Badago irla txiki bat, *garestia ez dena*,

*yeuren* (jainkoa) *irla*, baliabide gutxidun errusiarrak sarritan bizi dira hor. Vandée-n. Arrantzaleak bakarrik. Batera alokatu genezakeen. Parisen bizitza merkea da baina. Aurki daiteke gela bat 100 frankotan – bakarrik (Blockek dioen bezala) (56) “teilatupe horretantxe”. Zu, gu landetxean bagaude gure etxean bizi zintezkeen, Vanvesen – herriko “kanpoaldeak” beldurtzen ez bazaitu-. Metro bidetik hamar minutura bizi gara. Baina izango dugu denbora behin betikoz erabakitzeko. Murren eskolak uztailaren 1ean amaitzen dira – eta zuretzat (hor)-noiz? Bukatu dut *Gure ama eta musika* prosa lana, orain poesia idazten ari naiz –INORK EGIN BEHAR EZ LUKEENETARIKOA-.

Beso artean hartuko zaitut.

[Bazterrean gehitua:]

Oraintxe bertan, egunak zoragarriak dira. Nola paseatuko genukeen! Hau ez da denbora bat, birsortze bat da!

Opari liluragarri bat daukat zuretzat baina *bidaltzea* – ezinezkoa: aduana. Ez al da aukera bat izango? Ez ahaztu erantzuteaz.

Ez, ez dut esango zer den baina zerbait *liluragarria* da.

Hala ere, udara arte itxoitea – luze egiten da. Opari bat- bizi guztirakoa.

Ez iezaiozu nitaz (nire koaitaz) INORI hitz egin.

Asiarentzat, Mosanako nire gutunetan ere ez diot honetaz hitz egiten: gorroto dut nabarmenkeria. Zuri esaten dizut idatziz ez nauzulako ezagutzen – eta ezagutzen nauzu, zurekin libertate osoa daukat eta- AMETSARENA. Bielyrekin, ez nuen ezer komunean, poetaren zori tragikoa ez ezik: sormena: bakardadea. *Ez dago eta* poetarik, poeta –da. Bat, bakana, guztiengan. Ba, bera eta biok, izan baginen gu... POETA.

Badirudi aparteko txakurra duzula: Hori ANIMALIA! Murri ere irakurri diot zati hori. Bidal ezazu bere argazkia. Zein nahasketa ederra! Niri, haurtzaroan, nire gaiztakeria eta leialtasunagatik “mastin txakurra” deitzen zidaten.

Eta antzik izan gabe – *noski*. Kontatuko dizut, egun baten.

\* \* \*

–7–

France

Vanves (Seine)

33, rue J.-B.-Potin

1935eko apirilaren 24a, Pasio asteazkena

Natasha maitea,

Nola poztu nauen zure kaligrafia ikusteak gutunazalean – saiatua, eskolakoa, hasiberriarena.

Idazketa hauek gure aspaldiko *bizia* gogorarazten dute, dagoeneko gure antzik ez duen *bizia*: ezezagun zaiguna.

...Abailtzen zaituen zorigaitzean pentsatzen dut, eta bere ankerrean, eta uste dut zuk antzeko pena sentituko zenukeela norbait zure besoetan hil behar balitz. Badira familiaren gainetik daudenak: familia-gizatarra. Horrela Tsarinak ez zuen inoiz ahaztu ahal izan hoska ari zitzaion *bere* gudaria, deitzen zuena, gauez – agur esateko-, alferrik deika aritu zitzaiona, bestela agindu izan arren, ez baitziren joan Tsarina itzartzera (57). Nik uste dut pena handia dela ezin lagundu izanaren ezintasunagatik: zu bere orde z hilda ere– bera hil egingo baitzen hala eta guztiz ere. Berak, zugandik behar zuena ez baitzen zure maitasuna – baizik eta *bere* *bizia*.

Negu guztia besteen minetan pasatu dut. Azaroaren 21ean, gazte bat metroan hil zen – N. P. Gronski, *Poslednie Novostiko* betiko kolaboratzaile baten semea. Lagunak ginen, parez pare ere bizi izan ginen 1928tik 1929ra bitartean *Bellevuen*, gu beraien apartamentura mudatu ginen eta eurak ondokora. Gero, sarritan etortzen zitzaidan bisitan Meudonera, urte guztia basoetan ibili ginen. Eta hara non – azaroaren 21ean- irakurri nuen...(58).

Eta abenduaren 9an, ezustean baita – beti Novostin- *Bella-Donna* (59) poema (Jungfrau (60) saboiarra) non, instante bakoitzean, lerro bakoitzean, irribarrean ere – ezagutzen dudan nire izatea: nire ukabila. Eta harrigarriena da, ez dela “*gisa horretara*”, baizik eta – nik, nik – nik *neuk* idatzia bezalaxe. Hori lehenengoz gertatzen zitzaidan nire bizitzan. Haren inguruko artikulua luze bat idatzi nuen, han eta hemen jarri nahi izan nuena, baina, nori interesatzen zaio poeta hasi berri bat luzez aurkeztua? Hitz batean esanda, kontaketa gisa irakurri nuen – *Poeta -alpinista* – gero, Russki Archiv egunkari serbiarrari eskaini nion – serbierazko gaur egungo idazle errusiarrena. Bertsoak

(aipamenak) errusieraz emango dira, prosa literalki serbieraz.

... Maiz ikusi ohi ditut aita - amak. Seme bakarra, gurtua. (Alaba bat dago baina ezkondua, eta *arrotza* zaie). Aita eta ama 1928an banandu ziren – ama beste batekin joan zen eta orduan jarri zituen semeak begiak nigan. Ama eskultorea da. emakume ederra. Semea ere ederra zen, bazuen *zerbait* amarena eta *zerbait* aitarena – Nikolas I.aren erretratu bizia. Aita lituarren artetik dator, ama poloniarra da (Slobodzinska).

Bai fisikoki, bai moralki, gaztea benetako gizaseme poloniarra zen. Orain, guzti hori lurrean datza, lur azpian, Meudoneko arboladun kanposantuaren belar azpian. Hogeita bost urte bete berriak zituen. Hiru poema kaier eder geratzen dira. I. liburukia ekainean aterako da. Aita (ekintzaile eta militantea) –*oso osorik* dago semearen poemetan (N.B. hark ez du poesiaz ezer ulertzen) – paper onagatik, inprentako karakterrengatik zoriontzen du bere burua, aitak berak idatzi zuen hitzaurrea, etab. –ama-amak “seme-alabengatik egiten du negar, kontsolamendu gabe, dagoeneko berarekin ez daudelako “ (61). Bien artean pasatu dut nire negua.

-Udazken honetan poliki-poliki eta otsailean-benetan, alabak etxetik alde egin du – ez beste inoren etxera joateko, baizik eta ni *uzteagatik*. Elkarbizitza aspalditik zen jasanezina: *dena* zen kontra egitea. Izan ere –ez zen etxeko maizterra – ala? Zertara iritsi den ikustea – *ezinezkoa* zitzaidan: *nire* alaba. Orduan – berriz ez ikustea erabaki dut. Azken batean etorri etortzen da, “pasatzen da” eta, itxuran, dena ondo doa. Baina barrutik – hutsik dago. Hori bai, nire nirezko

pasibotasunagatik eta beste arrazoi askorengatik ere, nik ez nukeen azken urrats hau emango baina gertatu da- berez, ni *gabe*, bizitzaren halabeharra. Gauza bat badakit: ez naiz berriz berarekin biziko. Etxean zapaldu egin nau – berak.

*Urteetan*. Eta jasan izan diot hainbeste gauza, gogoratze hutsez lazgarri direnak. Bera denentzat da gustukoa – eurekin bizi dadila (guztiekin). EZ DU *nire* beharrik. Orain, ez dut saminik ere sentitzen. – Hutsik dago.

-Eta gure itsasoa? Igerian ez bada irten behintzat! Erantzun iezadazu ahaztu gabe, ni Mur eta biona pentsatzen ari naiz eta (ez naiz itsasora itzuli 1928tik, zazpi urte luzez). Joatekotan uztailaren 1 etik aurrera. Pentsa ezazu eta erantzun iezadazu. Parisetik bi hilabeterako *joan etorriko* billeteak daude 250 frankotan, beste modu batera esanda, ia bi bider merkeago (Mediterraneoan pentsatu dut). Oraindik ez dakit ezer baina zain nago. Logelak -garesti ez, 150 franko, uste dut, hau da, Paris eta inguruetan, itsaso arrastorik gabe, balio dutena.

Beso artean zauzkat eta berehala zure berri izango dudalakoan.

[Bazterrean gehitua:]

Nola jarraitzen dute zure seme alabek? Zer egingo duzu uda honetan? Zurekin? Ala- bakarrik? Eman iezaizkidazu zehaztasun guztiak. Eta agudo, jakin dezadan *zein norabidetan amestu*.

\* \* \*

–8–

Vanves (Seine)

33, rue J.-B.-Botin

1935eko maiatzaren 10a, larunbata.

Natasha maitea,

Zehazki. Benetan erabaki baduzu bidaia egitea esan iezadazu postaz: 1) Frantzian orokorrean ala- itsasoan 2) Dena dela ere- zenbat denborarako itsasoan 3) zenbat diru duzun hilabete itsasoan pasatzeko.

Idatzi diot ezagun bati, Mediterraneo ertzeko herri baten- (“herriarena” barregarria badirudi ere)-Faviéresen- pentsioa duen emakume bati. Merkean merke.

Komeniko zaizu, bakarrik zatoz eta. Niri –ez, bi garelako eta gainera pentsio bat –merkeena izanda ere- ikaragarria da niretzat. Emakume horren erantzunaren zain nago, informazioa eskatu bainion, nire etxeko gauzentzat, nire askatasun osorako behar dudan, gela batetaz (edo *batzuetaz*). Emakume basatia naiz eta nire erara moldatzea nahi izaten dut.

*Lehen bait lehen behar dut zure erantzuna, alokairu eta gela guztiak hartzen ari dira, hor, oraintxe bertan, eta hamabost egun barru ez da ezer geratuko.*

Ahal izango zenuke, noski, hilabeterako bada (harrituko nintzateke denbora gutxiagorako alokatzea, eta, *gainera, ezinbestekoa da jakitea –zein*) alokatu, baita, gela bat eta gurekin bazkaldu ere: berdin zait: bi edo hiru plater gehiago garbitzea – Agian dietan izango zara?, ez duzu denetik jaten? Menuak aldatzera ohitua zaude edo, sukalde ona gustatzen zaizu, besterik gabe? Gurean –*jan egiten da*, hori da guztia. Dagoena. Eta ia beti berdinean bitan. Baina, hori bai, asko – eta diru gutxigatik. – Horrela da.

*Espero dut* – oraindik ez dakit ezer-uztaileko lehen egunetan abiatzea, - Murren “*sari banaketa*” ondoren. Itsasoan egon nintzen azken aldia (ozeanoan), 1928an izan zen – zazpi urte pasatu dira ordutik, eta mediterraneoan – hau dagoeneko historiaurrea da- 1912ko udaberrian, hain zuzen ere ezkondu ondoren – Sizilian- *hogeita hiru urte* ordutik!

Bai, litekeena da dirua momentuan eman beharra izatea alokairurako, izan ere, diru gabe, inor ez da fidatuko. Ez ahaztu honekin eta, esan dizudanarekin joka ezazu arduraz *tximistaren abiaduran*.

Non dagoen Faviéres zehatz mehatz – ez dakit, *Hyéres uharte* txikiaren parean, *uste dudanez*. Baina badakidana: *pinuak*, haredun hondartza (ezohizkoa Mediterraneoan), itsasoa. Eta batez ere – *Mendi hirtsutu eta tenteenak*. Badakit, jakin ere, inguruetan *Lavandouko* bainuetxea dagoela. Frantziako mapa handi bat baduzu – aurkituko duzu. (Bila ezazu *irles D’hyéres* : alegia, atzokoak: dena nik aurkitutakoa! “*Biharkoetara*” – ez nintzateke joango!)



Erantzuten didazunean, izan ezazu nire gutuna aurrean: nire galderetan, ez dago alferrikakorik.

---

Neskatilak antxumea dirudi. -Antzinako aurpegia, ez bakarrik txirikordengatik, baita obaloagatik ere. Harrituta nago familiarentzat arrotzak diren familia ezaugarriengatik: Nik egon behar nuen argazki horretan! Zure amaginarreba hain nagusia izatea ere! Baina zahartzaroa boterea da, ezta? Bere buruarekiko arrotz den edozein atso, amaginarreba eta azken epai bilakatzen da. Zure senarrak oso aurpegi poloniarra du, katuarena. (Ez zaitez iraindua sentitu!). Adeitsua –da?

---

Frantzia “miazteko” asmoa baduzu, eta gainera ezer galdu gabe – begi bistan da ez duzula jakingo zer den atsedena. Ni neu eta ordu betez erakusketa bat ikusi ondoren - hutsik sentitzen naiz. Niretzat, nekagarriena, derrigorrez begiratu beharra da, alegia nahita. Nire baitan dagoen zerbait da zazpi urte nituenetik, haurtzarotik. Nik nahi, objektuarekin bizi nahi dut (hiria, katedrala, *klaustroa*). Baina agian zu – Mur bezala-*kontenplaziorakoa* zara, hau da, gauza bat *itxuragatik* ezagutzeko gai zara, bat batean zuretu gabe: arimaren haragi bizi. Gauza bat zugandik aparte ikustekoa eta ez zeure putzuan (hondorik gabekoan). Orduan – Frantzia da zuretzat onena.

Hitz gutxitan esanda, erantzun iezadazu guzti honi zuk nahi duzun bezala eta ahal denik eta zehatzen – eta azkarren.

*Egun hauetan* dama bat topatu beharrean nago, zehatz esateko, gutun azala eta zigilua bidali nizkion.

---

Eskerrik asko gurbeagatik (62) (egunsentia: niretzat *egunsentia* da, *sinonimoa*). Zu zara ulertu duzun bakarra. Guztiak: - Baina zer esan nahi du azken bertsoak? Zergatik dago bukatu gabe? (batek, hau ere bai: -Benetan? Gurbe sasiarteak daude? Nik: - ezagutzen dut. Zuhaitza da. gutxi inporta du). Poema osoa – azken

bi lerroengatik ez bada, beraiek ulertzen duten moduan da, nahiz eta, bi lerro horiek ulertzen ez dituzten.

-Nire *azkenak* izan zitezkeen lerro horiek.

Baina hor doa 1916ko hau:

Gorrimin sorta erara  
Gurbea besarkatzen da.  
Dirdirutzen hostoak.  
Jaiotzen ari nintzen.

Alai erantzuten zuten  
Ehunka kanpaiek.  
Poz eguna zen:  
Juan Aintzindari.

Eta ordutik  
Haginkatu nahi nuke  
Sasi sutsu horretako  
Sorta mingotsa.

[Bazterrean gehitua:]

Ni 1892ko irailaren 26an jaio nintzen, *gauerdian*, larunbat eta igandearen artean eta gure amak *larunbatean* bezala erregistratu ninduen eta, horrela guztia erabaki zuen:

Igande eta larunbat artean  
Hegan egiten dut, Erramu txori  
Hegal bat urrezkoa  
Zilarrezkoa bestea... (63)

*Mur berriz, igande batean jaio zen, eguerdi eguerdian, 1925eko otsailaren 1ean:  
Kanpai batek jo zuen.*

Beso artean zauzkat eta zure berrien zain.

\* \* \*

–9–

Vanves (Seine)

France

33, rue J.-P.-Potin

1935eko maiatzaren 16a

Natasha maitea,

Ez dago atzera bueltarik! *Txapitula bat alokatu dut, uda 600 frankotan eta dagoeneko aurreratu ditut 200 franko. –Askatasun osoz: janaria prestatu dezakegu eta baita zeregin txikiak burutu ere – lixiba.*

*Besteak garestiagoak ziren eta txarragoak, beno “hobeak” ehuneko 10 gehiago pagatuz gero, garbitasuna barne – “giro on batekin” eta besteren baten “ume barik” (tira).*

Orain –zutaz eta zuretzat. (Pentsio gabeko) gelak denboraldian bakarrik alokatzen dira (hiru hilabete) – eta zentzuzkoa da. Beraz, pentsioa falta. Badira batzuk. Hitz egin dut horietariko baten jabearekin, madame Bogdanovarekin: 20 franko egunean gelako. Fran-tzian ordaintzen denerako, itsasoan batez ere – prezio irrigarria da. Goizean, kafea – bakoitzak nahi adina eta nahi erara (N. B.: gurina eta ezta!), bazkaria –denetarik asko, frutak eta tea (N.B.: errusiar erara – askok esan nahi du birentzat beste!), afaria –arinagoa, baina onargarria. 4retan – ezer ez, baina hori beste alde guztietan bezala da. Bazkarietan, haragia “erretakoa” da, afarian – ondua (albondigak, *zrazy* (64), eta abar). Erabaki ezazu agudo eta erabakitzen *baduzu*, erabaki behar baduzu, idatz iezaiozu lehen bait lehen madame Bogdanovari ondorengo helbidera: [zuri]

Eta aurrerapen bat bidal ezazu – ez 100 franko baino gutxiago. Derrigorrezkoa da esatea *noiz* etorri nahi duzun eta *zenbat denborarako* (gutxi gora behera).

Mur eta biok (tfou, tfou!) (65) ekainaren 21ean abiatuko gara, *oporretako lehen trenean* –beherapenarekin. Baina ikusiko dugu elkar – *bertan*. Eta hobe horrela: joan aurretik –oraintxe bertan!- larrituta nabil une oro: danborradatxoak eta dardarak: ez ahaztu hau, hura –eraman, zer eraman? –eta ez dut denerako *begirik eta belarririk*. *Horrelako* ni baten aurrean, desesperatuko zinen: zoro goxo bat. (Orain, adibidez, idazten ari naizen bitartean: lixibarako ohola – baina nola eramango dut? – kubo handia – eramango dut? –agian petrolioizko su txikia sartu – baldean- eta baldea – kuboan?, eta abar, eta leloa: “eta zein ordutan abiatuko da hau guztia!?) Eta hori horrela izango da *oporretako treneraino*, eta egun batzuk geroago ere horrela izango delakoan nago. (Eta nola eraman Murren orinala? Eskuan – egitan? Buket bat edo bonboi kaxa *handi-handi* baten antzera. Baina orinal gabe – ezinezkoa: leiala zaio, - eta 17 urte nituenetik orinalekin bidaiatzen dut. - Bai.-) Natacha maitea, nola eramaten ditu jendeak orinalak?. Boltsetan?

Besarkatzen zaitut eta zure erabakia tximistaren pare bidaliko didazun erantzunaren zain nago.

MT

Ferrokarrila – *Paris- Lyon- Mediterranea*.

Ibilbidea: Toulon (errima Napoleon) eta azken tren geltokia –Levandou, edo – *doux* (gozoa), edo bestela Lavandou (izpilikua), eta are hobeto: Lavandoux (leuna–*izpilikua* bezala), baina uste dut: *Levandou* dela. La Favière herria, biziko garena, oinez kilometro eta laurdenera dago.

Pinuak, hareazko hondartza bat, beste bat – harri txikizkoa, mendiak – Crimean bezala, tenteak (1.200 metrokoak), izpilikua. Eltxorik gabe.

Hartu: bainu jantzia, apreta pareren bat (hemen ere eros ditzakezu, oso politak daude, koloredunak, puska ezinak:6 frankotan), soineko eskotedunak (bizkarra!), amaka bat aholkatzen aina, eta, gainera, botagura etortzen zait (ikus hutsarekin!). Kiskilentzat salabardoa ikusi ere ezin ditudanez alde batera uzten dut. Murrek izango du bat.

Natacha, zoriontsu egin nahi nauzu? Bidal iezadazu 50 franko, benetako suediar su-txiki batentzat, apurtu ezina, erretzen duena, zaindu eta maite dezadan –bizi guztirako. (Gaur egun, orain 13 urte, Errusian utzi behar izan nuen hartariko baten falta igartzen dut, -ezin dut ahaztu:*erre egiten nau!*).

Hori izango da Faviéresen nire bizitzako pertsonai beharrezkoena – itsasoa baino beharrezkoagoa. Aurreko urtean, nirea ez zen bat eduki nuen, konpondu egin nuen baina itzuli behar izan nuen. Kostata itzuli nuen, hartaraino egokitu bainintzaion. Agintzen dizut gaiaren inguruko bertsoak idatzitako ditudala, eta poema luze bat ere bai (Badago Chukovskirena (66) den bat baina !) nik ez dut irakurri 2) haurrentzat da –nirea *helduentzat* izango da). Idatziko dut – zin dagizut – eta dedikatuko dizut. Eskaintza ere badakit: -zure izena- nire esker ona

-SU TXIKIARI

hitza bigarrenez errepikatu gabe.

\_\_\_\_\_

Zure berrien zain-zain egongo naiz. Eta nireak bezain –*praktikoak*. Nire gutunetan lirismo guztia baztertu dut eta, hala ere, zeresan handia dago: neuk ordezkatzan dudana damaz – poema bat! Baina lirismoa, beste baterako.

Garrantzitsuena –niretzat – zure proiektuak zeintzuk diren jakitea da. Ibili bizkor: pentsioan, lekuak aurretik banatuak daude, hau da, *oraintxe*.

Itxaroan.

[Bazterrean gehitua:]

Zure Pilsudskiak (67) arrano aurpegia du. Ezin espero bestelako azken hitzik – asmakizuna direnak agian... Eta pentsatzen jarrita: poeta ez da ikara-gaitza, da oroz -ikaratua- hori bere kontra bada ere. Nik ondo ulertu dezaket poloniarrek Errusiari dioten gorrotoa. Baina nik neuk ez dakit gorrotatzen –Lurralde bat. Ez eta – gizaki bat. Bakarrik –norbanako jakin bat. Baina hori bai, kasu horretan -sutsuki.

\* \* \*

-10-

France

Vanves (Seine)

33, rue J.-B.-Potin

1935eko ekainaren 7a

Ostirala

Natasha maitea,

Badakizu zer maite dudan gehien zugandik? *Kemena*.

Badira gauza batzuk esan nahi ez direnak, ez eta norberaren buruari ere, baina zuk esaten dituzu – ozenki (ez dut esan nahi “niri”, lehendabizi ez dudalako jabetzan hartu nahi, eta gero ba: nor naiz ba ni oro - entzulea baino: “airean” esaten den guztiaren eror-lekua?)

Gorde dut (luzez, oso luzez, agian hiru astez-, nire poltsan zuretzako gutun bat, *Frantziar Itunaren* inguruko informazio zehatzarekin, ez erabat osatua, ordea (ezin izan dut jakin eta eraikuntzaren zenbakia, ez eta ikastaroen prezio zehatza ere) – hiru hilabeteko udako ikastaroa da, bere azterketekin, hiru taldetan eta, urrezko domina lortzeko aukerarekin. Paris, *boulevard Raspail*, eraikuntza zuria, neska gazteak batez ere – hainbeste non, oraindik- sarrerako atean pilatuta dauden.

Ez diot utzi amesteari eta talde aurreratuenaren prezioaz eta eraikuntzaren zenbakiaz (pasadan ezagutzen dudana) informazioa jasotzea espero nuen – baina, nola diren kontuak! Oraintxe, horra joatekotan nintzenean (ZIN EGITEN DIZUT!, Mur eskolatik itzultzean) – *oraintxe* bertan, orduan –zure gutuna. Lastima ez dut aurrekoa gorde, eta ez dut beste hau berehalakoan bidali, nire zugarako arduraren lekuko: nik konbentzitu zintudan *ez etortzeko* hegoaldera (ni ikustera) “denbora gutxirako ez zuela merezi eta”, baina ba, hori, talde aurreratuena serioa da eta erakargarria, ikastaroak, garai baten elizatan meza ematen zuten irakasle

onenekin – San Roken, esate baterako, agure ihar batek pulpitutik ematen du– predikatzaile! Ikastaro bat – Villonen inguruan (*Voltaire*n inguruan ez denean – baina, tira, hori blasfemia da eta!).

Nire lehendabiziko Pariseko garaian (nire hamasei urtetako uda), bikain bukatu nuen aurreratuentzat ikastaroa, eta domina lortuko *nuen* bukaeran, nire gramatikaren (teoriaren) ezjakintasun erabateko, tuntun eta txundituta uzten ninduenagatik izan ez balitz, bularreko haur baten hainekoa – gramatikarena (teoriarena). *Baina nola egiten duzu egiten duzuna egiteko gramatika tutik ere jakin gabe?*

*-Jakin gabe egiten dut prosa!*

*-Baita poesia ere. Zu poeta izango zara zure “hizkuntzan”.*

(*Emile Faguet* literatura historiagile bikainaren hitzak)

*-Eta halaxe da*

Baina dominarik –ez nuen izan. Irakasleen artean irakasle zenak (azterketak Sorbonan izan ziren!) “Frantziar ituna” sortu zenetik, nirea horrelako lehen kasua zela esan zuen.

*-Kemena. Zu kementsuagoa zara - ni baino! Sarritan nireak begiz joko ditudan beldur izaten naiz, zoritxarra ekarriko diedala eta kexatzen naizenean. (Ez naiz “kexatzen” epaitu egiten ditut zorrotz eta hotz). Badakizu Natasha, bukatu baduzu eskolan –idatzi! Idatzi zure orde zure inork idatziko ez duen liburua: zeuk. Gogoratu, Tolstoik zioen: “edozein izakik ahal du eta idatzi behar du bere bizitzan –liburu bat: bere bizitzaren liburua”. (Ez zuen horrela esan. Ez zuen -atrebentzia eh?- jakin horrela esaten baina zentzua *berea da*). Liburu horretan –biziko zara, egunez egun, egun *horiek* ekarriko dituzte, hegal handi, ziur, ausarten gainean bezala, egun *hauek*. Zure inguruan gertatutakoak ez du axola izango, zu zauri ezina bihurtuko zara.*

Bigarren bizialdi bat dago –irakurketarena, baina beste bat ere badago, ikaragarri intentsuagoa eta ez inola ere “bigarrena” – idaztearena.

...Eraso basatien aurkako nire aterpetxea,  
 Nire ezkutu eta koraza, nire azken lubakia  
 Jende onaren maleziaren kontra  
 eta gaiztoen maleziaren kontra-  
 –Bertsoa- zaude, nire errai barrenetan iltzatua.

(1918, neu)

Eta hirurogeita hamabost urte bat lehenago:

Ene zu, sakrilegioak berak ere  
 Tenpluan itxaron ezin izan zuena-  
 Nire zorigaitza –nire aberastasuna-  
 Nire arte sakratua!  
 (Carolina Paulova (68), berrogeiko hamarkadan)

---

Gure elkar ezagutzearen hasiera gogoratzean, zure familia eta gaztaroko kronika  
 eta horri gehitu ezker... beste familia taldea – ah!, *Natasha, ondo osatuta zaude!*  
 Ez al da asko – emakume buru *batek*– eta bihotz batek *bakarrik* eramateko?

Konta itzazu guztiak idatziz: zure ama, zure ahizpak –Ilovaski “kuadernaketa”-  
 maitasuna – beraiekikoa, mundua bitarte– baina haiena guztiena *zukanakoa*,  
 zigilu den heinean.

Benetan esaten dizut. Eredu gertatuko da zure seme-alabentzat, zure  
 alabarentzat.

---

“Uda”. Murren hortzak konpondu beharko dira eta nafarreraren kontra txertatu.  
 Une honetan *hiruhilabeteko azterketak* ditu. – Eta handiena da,  
 dentistarengandik, dohainik dena, ordu ta erdira gaudela garraioan (eta gainera  
 itxarongelan itxaron beharrekoea?). Ezagu-tzen ditudan dama guztiak deitzen  
 ditut, Mediterraneoan= ozeanoan izan ziren azken urteko bainujantzi bat oparitu  
 diezadaten. Edo bi: Murrentzat eta biontzat. Baina bainu-batak ere behar ditugu,



ezinezkoa da horiek gabe hondartzara joatea, eta ur ertzean biluztea –ni- nire aspaldiko botoidun jipoi eta guzti... (Hemen, mundu guztiak “bularretakoak” daramazki, bi hemisferiodunak –arrosak batez ere eta delikatuak eta, nik bete ezinak!).

Nik enkarguz josten dut (!!!). Eta ez nire jipoiak bakarrik: baita nire praka horiak ere eta nire alkandora lilak, beti erosten baitut merkeena eta inoiz ez nire tailakoa: pisatzen dut: 50 kilo eta dagokion argaltasuna. Denda gehienetan, ez dago nire neurrikorik (60), “gazteentzakoak” erosi behar izaten dut, “gazteek” dena estua baitute, izan behar den bezala, eta nik berriz kilometro bateko bizkarra dut. “kirolerako aproposa... *gizon irudia*”, etxekoneko batek malizia gabe esan zidan bezala, laurogeita zortzi urteko atso iharra -... aspaldiko prezioetan egoki josten duena –Hainbestearaino gustatuko litzaidake guzti honetaz idaztea!

-Uda... gogorra izango da. Han, esnerik ez, ez eta gurinik ere, ez eta haragirik ere, eta arraina nik ordaindu ahal dudanetik kanpo dago, itsasoan beti izaten den bezala. Arrautzarik ere ez, *oiloeak bero handiegia dute* eta. Bada arrautzarik –krokodiloarena. Murrek kezkatzen nau – ez baitago ohitua. (Ikuskizun homerikoa –krokodilo arrautzak platerean!) Eta umekidun bat balego? *Hortz* eta guzti?

Krokodiloenarekin -txantxetan nabil.

Natasha, ondo triste bizi naiz nire baitako poza bukaezina izan arren– erauzi ezina!

-Zergatik sinistu ote nuen, ergel baten antzera, zu –etortzeko zinela? Zergatik aintzakotzat hartu nuen atoan eta irmoki gure uda honena? Eta hain zehatz –*ikusit dute?* (Itsasoa - baino argiago). -Eta *hona hemen*.

Ateratzekotan, 28an. 5:20an. Pentsatu nirekin, mesedez. Eta gero berriz 22an 5:00etan, goizaldean –ikus nazazu ametsetan: ordu honetan *Lyongo geltokian Oporretako trenaren* leihatilako lerroan – zazpietan irekitzen den horretan- izango naiz. *Izu ikaratan nago*.

20an oraindik ilunabar literario bat daukat. Nire Deabruaren (69) irakurketa, nire haurtzaroaren eta areago, nire lehen haurtzaroaren deabrua. Epigrafea: - Deabruak umeari iseka egiten dio. Hau idatzi nuen –atsegin handiz.

Ez zaitez ironikoa izan su txikiaz ari zarenean, *laguna* dut. Argazkia aterako diot berari bakar bakarrik eta bidali egingo dizut. Eskerrik asko horregatik –eta denagatik.

Idatziezadazu sarriago.

Murren bila noa korrikan eskolara.

Beso artean zauzkat.

M.T.

[Bazterrean gehitua:]

Wilno ere, Vilno idazten tematu zara, zeinu *bakarrarekin*, moralki kaltetzeko.

Baina gutuna bere helmugara iritsiko ez denaren beldur naiz eta bere eskubideak itzuli dizkiot.

Beste horren inguruan, zahar deabruzaleen tartekoa izango da seguruena (Deabruaren loba hilezkorrena).

[Gutunarekin Murren argazki bat doa, atze alde idatzitakoa:]

Nire semea Gueorgui Efron

Mur

1935eko pazko eguna, 10 urte zehazki, -ni-garai hartan bizirik-(eta –*honetan!*  
Pixka bat)

Nire Natasha maiteari-

Vanves, 1935eko ekaina.

[Bazterrean gehitua:]

- *Gorde ezazu!*

\* \* \*

**-11-**

France

La Favière, Bormes-en barna. (Var)

Wrangel txaleta

1935eko uztailaren 13a.

Natasha maitea,

*Kaktus baten ondoko errege-pinu baten azpitik idazten dizut, -eta ez pentsatu horregatik zoriontsuago naizenik.*

*La Favière* luxuzko lekua da, bere naturagatik luxuzkoa, baina nik inoiz ezin izan dut jasan luxua, –lexikala ez bada (Gógolena, eta batzutan- neurea... Dena birjina-erregea (70) adibidez) –eta zilarrean erantsitako turkesarena ez bada (horrelako eskumuturreko bat izan nuen tumulu-hilobi batetik zetorrena, harriz txertatua erabat- Meudonen ostu zidaten).

Hemen: palmerak, kaktusak, eukaliptoak, zipresak, mitreak, mimosak, ereintz arrosak buru gainean, [irakurri ezina] eskuan eta hanka azpian. (N.B. suge piloa baina bi motatakoak bakarrik: bi metrokoak, sabel horiak, txitak jaten dituztenak –edo suge gorriak (“errege” sugeak ere) – ia ia bat zapaldu nuen: *justu –justu* baztertu nuen hanka –bera, beldurturik eroki dantzatzen hasi zen.-Sugeak ere luxu mailakoak dira, ezta? – Eta gainera – itsasoa ere luxu ederra da, “Mediterraneo” baita (hori gabe, lurrek ez lukete babestuko) – harroaren harroz gailentzen zaizkidan koloreak. Eta itsasoko Alpeak. Eta –mahastiak. Hitz batean, egia esan luxu honek zanpatzen nau –erantzunkizun honek. Zenbatek inbidiatuko nauen oraintxe bertan edo *inbidiatuko ninduketen*. (Ez nago honetara ohituta. Inork ez du inoiz izaten barruko dohainen benetako inbidiarik, eta agiriko fama berriz, gutxi daukat...)

Zaila horrelako natura maitatzea. *Zaila-niretzat*. Gainera, nire amodioaz ez du zer eginik. Edertasuna da. Maitasuna exijitzen du baina, aldi berean, ez du ulertzen. Zer egin behar du poetak? (Onar dezagun –Pushkin. Baina Pushkinek Goncharova maite zuen *ez poeta gisara* – gizon gisara baizik. Sukar puntu batekin eta zurikeriaz esango nuke, eta geroago, odol beltzak(71) zuriaren aurrean erakusten duen alaitasun erikorrak). Naturara itzuliz, askoz gehiago gustatzen zitzaidan nire ipurua, bakana eta bakartia, Chekoslobakian, hemengo ereinotz arrosa eta tamarindo guztiak baino.

Ezin da maitatu lorategi botaniko bat.

Hori da dena – oraingoz. Gaur betetzen dira bi aste etorri ginenetik.

---

Atzera buelta bat –laburki: hiruhilabeteko azterketak baino aste bat lehenago – ekainaren 7aren inguruan hain zuzen – Mur tripako minez kexatzen hasi zen – hasieran jolasa balitz bezala: -O –oh, tripako mina daukat, ezin naiz jaiki (Ez nuen pentsatu pixontzitik zela, ez –ohetik baizik), gero, serioago baina barre burla puntu batekin (umeentzat sabela, berez, zerbait barregarria da, agian zilborragatik? *Barregarria* bera ere), bi egun geroago (berak eskolara joaten jarraitu zuen eta etxean bueltaka), ezagutzen dudan emakume errusiar batengana eraman nuen –medikua- apendizitisa igarri zionean Alexinski irakaslearengana zuzendu zuen (zirujaua, gure goren mailako lagunarte zaharra, Moskuko garaietatik – seguruenik baduzu bere aditzera) Bi egunetan saiatu gara Alexinski bilatzen, verstak eta verstak ibiliz! – azkenean, 13 arratsaldean – harrapatu genuen. Aztertu zuen, galdetu zuen. Bai, apendizitisa. Ni – “zabalduez, noski!” –Bai, zabaldu – eta bihar bertan.

(Eta 28an –*oporretako trenarekin* abiatu behar. Ulertzen duzu nire aztoramena?)

Hitz batean, 14 goizean operatu zuten – bera lehena – Hamar egunez egon zen ohean. Denbora hori pasatuta, lau egun geroago – trenera igo ginen. *Jaitsi* ginen. Eta bihar betetzen ditugu hemen bi asteak – eta operaziotik hilabetea. Oraindik hesgailua darama baina kendu dakiok dagoeneko. Versta bat eta erditan ibili naiz berarekin erosketak egin eta postetxera joateko. Eta lau egunetik hona

bainatu egiten da – behartu gabe, noski. Eta guzti hau –mediku edadetu, errusiar eta eskarmentu *handikoaren* baimen eta aholku irmoarekin.

Baina zorigabe sentitzen gara: ez daukagu jateko esaten dena, ezer. Zehatzago: ez dago zerekin. Operazio ondoren, indartu beharra zuen, pisua hartu, baina eguneko eta biontzat –7 franko besterik ez daukagu eta haragiaren prezioa libratio 7 frankotakoa da, tomateak –2 franko, sagarrak – 3 franko 50 eta horrela dena. Hemen hori larrua uztekoa da. Horregatik, sopa bakunei eta patatei harpidetu gara. Arren, eskatzen dizut, Natasha maitea, ahal baduzu, ehun franko igortzea –Murrentzat, jakiak erosteko. Operazioak bortizki ustiatu gaitu: 700 franko –eta hori, Alexinskik, ez zuela dirurik hartu nahi izan – klinikarentzat bakarrik eta beherapen eta guzti – eta 10 eguneko ostatua, operazioaren zenbatekoak, pertsonalaren ordainketak eta abarrak. 400 ordaindu ditugu eta 300 zorrean ditugu. Abiatu ahal izan ginen nire ilunabar literarioaren ordain-sariari esker (nire *Deabrua* irakurri nuen –nire buruaz kontakizuna, argi eta garbi). Bidaia 500 franko izan zen- biona, noski, itzulia barne. Baina bizitzeko – 7 franko eguneko geratzen zaizkigu. *Sovremennye Zapiskik* ukatu egin dit aurrerapen bat. Ezinezkoa da Serguei Yakovlevichi (72) eskatzea: 15ean apartamentuko kuota ordaindu behar du, guztira 750 franko. *Sosik gabe* dago erabat eta ezingo digu ezer bidali. Berari, idazten diot (Coué irakaslearen sistemari).- Dena ondo doa. Dena doa –oso ondo. Dena –ezin hobeto, doa. *Kontzientzia* bizia da, beste modu batera esanda, erabateko asaldura, batez ere bananduta gaudenean. Eta gainera, ez dauka ezer. Batzuen eta besteen etxeetan jaten du –zorionez (tfou, tfou!) mundu *guztiak* maite du.

---

Murrek aitari idatzi zion (Lavandouz hitz egiten – postariari joaten utzi eta gutunak botatzera joaten garen inguruko bainuetxea): “Lavandou bainuetxe bakun samarra da. (N.B. lehenengo aldia da bainuetxe baten egoten dena!). Baina dandyak eta palmondoak daude”. Oso polita da -ezta? Izan ere, palmondoa ere dandya da. (Nik ez dut atsegin).

–Norberekeria gehiegi. – Hitz egin dezagun zutaz. –umeen azterketak? Noizko irteerak – eta norako? Nola jarraitzen du familiak, (argazkiak erakusten

duenarengatik, klanak?) Eta- arima? *Zein* da zure mina (Arima mina da. Beste guztia –gorputza da). Edo bestela – pentsamendua.

Pasternakekin (73) hitzartzeko – noiz erantzungo duzu. – Azkar! Zure helbideari dagokionez – inoiz ez ditut helbideak gogoratzen –begietan inprimatu zait: Zure gutunazalaren atzeko aldea ikusten dut: Poplavska, 27 a m. 1. Baina alderantziz, zure familia-izena zail samarra da: berriz kopiatu nuen: Hajdukiewiczowa? Edo *ck*. Hobeto da K-z *bakar-bakarrik*.

Mahai kulunkari baten gainean idazten dizut; kaxa batean eserita –barkatu idazkera. Euliak inguratuta eta txitxarrek –zorotuta? = klaskari? Ez nekien zuhaitzetan bizi zirenik eta haien klask-tinak hain *deabruzkoak* zirenik. Motor baten aldean txarrak, ehunka motor etengabe baitira, goizeko 6etatik arratsaldeko 7ak arte.

Nire besoetan zauzkat eta barka diezadazun erregutzen dizut eskatzen dizudan mesedeagatik.

Su txikia zoragarria da, beltz baten antzeko distira du (koloreagatik, distirarengatik!) eta dabil (tfou, tfou!) txino bat bezala. Benetako suediarra, inskripzio –errusiar batekin, gainera.

Tira ba, bai – gustatzen zait.

Argazkia ateratzen diotenean –Klitxeak bidaliko dizkizut.

Besarkatzen zaitut.

M.T.

\* \* \*

–12–

France

La Favière, Bormes-en barna (Var) Wrangel txaleta  
1935eko abuztuaren 14a, osteguna.

*Natasha maitea! Seguru, nire gutun bat galdu egin da – galde-tzen baitidazu 70 frankoak hartu nituen. Berehala erantzun dizudala esan beharrik ez dago –gutun luze bat (horrelako hiru folio) eta hori aspaldi izan zen. Gauza bakarra dago gogoratu ezin dudana: Lavandouko postan jarri dudan edo – hemengoan, Favièrekoan, hala-moduzko posta non sekula ez ditudan gutunak uzten bihotzaren ziztada gabe: (postariak ez ote du jasotzea ahaztuko, dendariari ez ote zaio guztia hondarretara eroriko –gutunontzia denda gainean dago kokatuta eta dendariak ematen dio posta postariari – seguruago izan dadin – izan ere postaria dago... bere pentsamenduetan murgilduta: nekazari agurea, ardien errutinara ohitua: ardi eta mendien airetara. Bere izena idazten orain dela gutxi ikasi du).*

Dena dela ere –tamalgarria da nik – idatzi eta zuk- ez irakurri izana, zuk ni lotsagabetzat hartu ahal izana.

Eskerrik asko berriz ere –aurrekoagatik –eta – beste honengatik, eskerrak bihotzez, eskerrak denagatik.

---

Aste bete bisitan izan dugun senarra laguntzetik nator: bere lagunetako batek kotxez ekarri zuen –Frantzia osoa zeharkatuz (ni beldurrez eta zorabioz hilda egongo nintzateke). Eta bera laguntzean, konturatzen naiz zertaraino bestearen poza den eraginkorrago - zorion emaileago, neurea baino. Hemen egon zen bitartean, pozik bainatu nintzen, enkarguak pozik egin nituen, bertako *ardo gorria* pozik edan nuen, hitz gutxitan –bainatzen nintzen, ibiltzen, edaten– bere bitartez: berak guzti honengatik zuen poza medio. Eta ez dagoen honetan, samintasuna besterik ez – guzti hau niretzat izatea eta ez berarentzat. *Zaldi* bat da *zalditegian*, eskainitako edertasun guzti hori – galbidean...

Zazpi egun hauetan, gaztetu egin zen, bere onera etorri, eta adeitsuago sentitu zen, hiritartasuna alde batera utziz, gozamenez bainatu zen, Mur bezala, zorionez gainezka – itsasoagatik –isiltasuna –algak – hondarra – denagatik – pausu bakoitzarengatik eta irudi bakoitzarengatik, eguneko minutu bakoitzarengatik. Ni berriz –Zerbait apurtu egin zen nire baitan: egunak azkartzen

ditut eta *pozik* nago bukatzen direnean. Agian inongo etorkizunik ez daukadalako, *izana da - guztia*. Zer itxaron dezaket? Bilobak? Baina bihotz *hau* honez gero ahituta dago.

*Batzuetan, iruditzen zait bizia luzeegia dela eta eternaltasun guzti hori minutuz osatua dagoela pentsatzen dudanean...*

Zergatik pentsatzen dute guztiek *indartsua* eta *osoa* naizena, inspirazioz betea baizik ez nago, bularra –arnasketaz bezala.

Inspirazioa (arnasketa)- *eduki* bat ote da? Nire baitan, hustasuna eta sua sentitzen ditut.

---

Baina agian –kontrolik gabeko aitorten hauek guztiak, eguna baliza barik dagoelako? (lehenengo 3retan itzartu naiz, gero 5etan, Mur jaiki dut, trenera lagundu dugu, hitz gutxitan, egun osoa lekuz kanpo eta hori da gehien beldurtzen nauena – Ba, bai, moja baten antzera balizatu naiz – neure buruarengandik gordetzeko).

Barka iezadazu, Natasha maitea, gutun urratu honengatik, baina gehiago balio du horrelako gutun batek, zuk hezigabe bat naizela pentsatuko duzun egun bakar batek baino. “Historiarentzat” nik ez daukat arnasarik dagoeneko –oso kontakizun luzea da. Bukaera bakarrik kontatuko dut:

-Behingo batean, idatzia nizun: “*Goethe* – ez utzi hitz horren barne doinuera entzuteari –desesperatuki maite izan zuen bizitzan zehar eta, denbora gehien, eta era desesperatuenean maite izan zuen emakumeari, esan zion:

Die Sterne-die begehrt man nicht:

Man freut sich ihrer Pracht. (75)

-*Maita ezazue –horrela. Stern bat maitatzea, Herrgot (76) berak ere ezin du debekatu eta*”.

---



*Geroago kontatuko dut hasiera –liluragarria, eta garapena – izan ez zena – eta bukaera guztia. Hitz gutxitan, berriz ere nire eskuekin – suntsitu dut – nire bizitza guztian – egin dudan bezala. Agian –azkeneko aldiz.*

*Murri dagokionez, ez da ilauntzen aitarengatik. Eta hori ikaragarria da. (Ni nire bizitza osoan ilaundu naiz guztiengatik! Ez – naiz ilaundu izan gabe baizik eta – gatik ilaundu izan naiz.: nostalgia biderako, ez: UR BIZIA! Funtsezko motor bezala). Aitak eromenez maite du eta berarekin egon da –hain biguin, -hain adeitsu, guztian laketu du: opariz bete du (Egin daitekeen guztia!).*

*Zein errukigabea den belaunaldi hau!*

*Ba hori, bera da –gizon berri bat.*

*BELDUR NAIZ beragatik.*

*Dena eman behar zaie seme-alabei inongo itxaropenik gabe – buruari atzera eragiteagatik bakarrik izanda ere – beharrezkoa – delako. Beste era batera, ezinezkoa delako – berez.*

*Mur ez da nire hilobira etorriko. (ezatsegina da hori. Zertarako? Gutxi inporta du, ez dago inor barruan. Etab.)*

*Energia fisikoa – eta burukoa. (Indartsua eta argia). Baina – arima? Non? Noiz?*

*Desiragarria? – Jakin ere ez dakit. – Ni ondo nago, tira – nire “arimarekin”. Ez, leku ukitu gabea.*

*Barkamena. Natasha.*

*Ondo balizatutako egun bateko nire hurrengo gutuna nireagoa izango da. Goizean goizetik, burua atsedenduta, eta bihotz gutxitxoagoz.*

*Beso artean zauzkat.*

*M.T.*

*Irailaren 25era arte izango naiz hemen.*

Jorge Segovia eta Violeta Beck itzultzaileek jasotako oharrak

- 1- *Tsvietáieva Triojprudny (“hiru aintziretakoa”) kaleko familia moskutarren etxeari buruz ari da, bere haurtzaro eta nerabezaroa pasatu zituen etxea; goxoki maite izan zuena. Han idatzi zituen bere prosazko orri asko eta asko.*
- 2- Kurtsibak Tsvietáievarenak dira.
- 3- Ivan Tsvietáiev (1847-1913). Unibertsitate irakaslea, arte historiagilea, bere bizitzako zati handi bat Moskuko Arte Ederren Museoa (Pushkin Museoa) sortzeari eman zion.
- 4- Tomas apostoluaz ari da, sinesgaiztasunaren irudi sinbolikoa.
- 5- Varenka: Varvararen txikigarria. Varvara Nikolaevna Ilovaiskaiaz ari da, Dimitri Ivanovich Ilovaski (1832-1920) historiagilearen lehen emaztea, Ivan Tsvietáieven lehen emaztearen aita.
- 6- “Baita ere”, izan ere Ivan Tsvietáieven lehen emaztea ere Varvara deitzen zen (Varvara Dmitrievna Ilovaskaia, 1858-1890). Ezkontza horretatik bi seme-alaba jaio ziren: Valeria eta Andrei – Marina Tsvietáievaren ahizpa-orde eta neba-ordea).
- 7- Varvara Ilovaiskaiaren erretratua Ivan Tsvietáivetek enkargatu zuena, gurtzen zuen emaztea hil zenean.
- 8- Olia: Olgaren txikigarria. Olga Ilovaiskaiaz ari da (1883-1958), Dimitri Ilovaiskiren bigarren ezkontzako alaba.
- 9- Tsvietáievak *Pimen zahar ondoko etxea* esan nahi du (*Deabrua*, bere obra ikusi), Anna Teskova lagunak 1933ko azaroan Ilovaskitarren egunerokotzat jo zuena. Tsvietáievak “Pimen zahar ondoko etxea” Moskuko Pimen-zaharra kalean zegoen familiaren etxeari deitzen dio. Dimitri Ilovaiski zen etxearen jabea.
- 10- Valeria, Tsvietáievaren aitaren aldeko ahizpaorde nagusia.
- 11- Asia- Anastasiaren (1894-1993) txikigarria.

- 12- Ariadna Efron (1912-1975). Denbora luzez Tsvietáievak oso harreman estua izan zuen bere alabarekin, baina, nerabezaroan, gazteak ezin izan zuen jasan amaren pisua. Tsvietáievak gaizki hartu zuen alabaren independentzia nahia eta bien arteko harremana korapilotsua bilakatu zen. Ariadnak amarekin “bakeak” egin zituen, azken honek bere buruaz beste egin ondoren; Ariadna bera ere konfinaturik zegoela. Erbestetik bueltan, alabak amaren idatziak biltzen eman zuen bizia.
- 13- Tsvietáievak seme Gueorgui (1925-1944) Mur deitu zuen, Hoffmanen Mur izeneko katuari men eginez.
- 14- Audriei Bieily (1880-1934) poeta eta idazlea, “sinbolismo” errusiarraren eredu nabarietariko bat.
- 16- *Azken berriak* egunkaria.
- 17- Pavel Miliukov (1859-1943), politikoa, gazteen alderdiko buruzagia, historiagilea, publizista, erredaktore eta *Poslednie Novosti* egunkariko nagusia.
- 18- Alemanez gutunean.
- 19- Alexandra Rosset, Smirnova (1809-1882) ezkondua, Tsarraren gortean ohorezko dama. Garaiko idazle handiak inspiratu zituen (Pushkin, Lermontov, Gógol, Turguéniev).
- 20- Natalia Goncharova (1812-1863), Pushkinen emaztea. Erretratu guztiak eta adin guztietakoak erakusten dutenez, eta garaikideen esanetan, benetan ederra.
- 21- Harrigarria da Tsvietáievak Maiakovskiren bere buruaz beste egitea, maitemin ezinei eragozte.
- 22- Olav Duum (1876-1939) Norvegiar idazlea. Sei liburukiz osatutako nobela baten egilea Die Juwinger izenekoa. Tsvietáievak eskatzen dituen bi liburukiak obra honen parte dira.
- 23- Sigrid Undset (1882-1949), Norvegiar eleberrigilea, 1928ko Literatura Nobel sariaren irabazlea.

24- Amaren parteko poloniar jatorriari aipamena.

25- Wilnoren izen errusiarra.

26- Alemanez gutunean.

27- Vladimir Rudnev (1879-1940), medikua ikasketaz, Moskuko alkatea izan zen, eta gero, iraultzaren ondoren Parisera erbesteratu zen, eta han *Sovremenye Zapiski* aldizkariko erredaktore eta nagusi izan zen.

28- Selma Lagerlöf (1858-1940), Suediar eleberrigilea, 1909an Nobel saria jaso zuen.

29- Kmut Hamsun (1859-1952), Norvegiar eleberrigilea, 1920an Nobel saria.

30- Tsvietáievak txikitatik irakurtzen eta gurtzen zuen Danimarkako idazlea.

31- 1922tik 1925era bitartean Tsvietáieva Pragako kanpoaldean bizi izan zen bere familiarekin.

32- Serguei Efronen anaia –Konstantin- bere buruaz beste egin zuen 1910ean, hamabost urterekin. Pena jasan ezinik amak ere bere burua bota zuen.

33- Marina Tsvietáieva eta Serguei Efron (1824-1941)- 1912an ezkondu ziren.

34- Leonid Andréiev (1871-1919) errusiar idazlea, antzerki lan eta eleberrigilea.

35- Boris Pasternak (1890-1960) poeta eta idazle errusiarra, Literatura Nobel saria 1958an. Tsvietáievak oso harreman estua izan zuen berarekin, gutun bidezkoa, batez ere.

36- Rainer Maria Rilke (1875-1926) alemanez idazten zuen Pragan jaiotako poeta. Tsvietáievak gutun bidezko harreman apasionatua izan zuen Rilkerekin 1926ko lau hilabetetan zehar baina ez zuten inoiz elkar ezagutu.

37- *Topaketak*, garaiko egunkari Paristarra.

- 38- Errusiako sekta erlijiosoa (“flagelanteak”) apaiz eta eliza, instituzio bezala, onartzen ez zituena.
- 39- Leonid Leonov (1899-1994) idazle eta antzerkigile errusiarra, hasieratan Dostoievskiren eragina izan zuena.
- 40- Bertso honetan, munduratzeko bat dago: ez zen alaba (Natasha) espero zutena, Grishka Grigorien txikigarria, baizik.
- 41- Nadia Ilovaiskaia (1882-1905) Dimitri Ilovaiskiren bigarren ezkontzako alaba, tuberkulosiaz hila hogeita hiru urte zituenean. Tsvietáievak orri asko eskaini zion *Pimen zaharraren ondoko etxea*-n.
- 42- Andreiren txikigarria.
- 43- Maria Alexandrovna Meyn, Tsvietáievaren ama, tuberkulosiaz hila 1906an. Tsvietáievak 14 urte zituen.
- 44- Vaacheslav Ivanov (1866-1949) errusiar poeta sinbolista.
- 45- Ariadna, iraultza sortu zenean bost urte zituena.
- 46- Versta bat (Errusian erabiltzen zen aspaldiko neurria) 1,067 metreri dagokiona.
- 47- Tsvietáievaren amaren parteko familiak jabetza bat zuen han. Tarusban daude bai Ariadna, bai Tsvietáievaren ahizpa Anastasiaren gorpuak. Bertan Tsvietáievaren ohorez museo bat ireki zen 1992an.
- 48- 1930 eta 1934 artean Parisen azaldu zen aldizkari literario eta artistikoa.
- 49- Sergueiren (Efron) txikigarria.
- 50- Armand Louis de Gontaut, Lauzuneko dukea (1747-1793) eskandaluzko bizitza eraman zuen gortesaua, azken orduan iraultzaileekin bat egin eta gillotinatuta zutena. Tsvietáievak Fortuna (1919) izeneko pieza bat idatzi zuen pertsonai honen baitako nortasuna eta nortasun politikoa omenduz.

- 51- 1903an familiak erabaki zuen Marina eta Anastasia Lausanako (Vandeko kantoian) barnetegi batera eramatea, tuberkulosia zuen amarengandik urrunduko aldera.
- 52- Tsvietáievaren era berezian gustatzen zitzaion Lespinasse andereñoa (1732-1776).
- 53- 1928an idatzitako poema bukatugabea.
- 54- *Aspertu naiz, triste nago* izeneko Lermontoven poemaren bertso-lerroa, 1840an idatzia.
- 55- “Hori” hitzarekin, Tsvietáievak Ariadnaren Sobietar aldeko politika asmoa (aitaren eraginpekoa) izendatzen du. Aita baino hilabete batzuk lehenago itzuli zen Errusiara, 1937ko martxoaren 15ean.
- 56- Aleksandr Blok (1881-1921), errusiar poeta lirikoa, erromantikoa eta mistikoa.
- 57- Alexandra Fiodorovna Tsarinaz ari da, Nikolas II.aren emaztea. Gerra ospitaletan erizain ibili zena. Berak kontatu zuen hilzorian zegoen soldadua pasadizoa Tsarrari idatzitako gutun batean.
- 58- Tsvietáievak errusiar prentsaren bitartez jakin zuen Nikolai Gronski hil zela.
- 59- *Belladonna* Nikolai Gronskik idatzitako poema luzea.
- 60- Alemanez gutunean: “neskatxa”.
- 61- Biblian datorrena (pixka bat berrikusi eta zuzendua) Rakelek semeengatik negar egiten dueneko.
- 62- M. Tsvietáieva, berak 1934an idatzitako poema batetaz ari da hemen, *Nostalgia* izeneko, Natashak bere gutunen batean aipatu ziona.
- 63- 1919ko poemetako lehendabiziko bertsoetaz ari da hemen Tsvietáieva.
- 64- Gari edo arroz irinez nahastutako haragi txikitua.

- 65- Sorte txarra urruntzeko “egurra ukitu” rekin bat datorren esamoldea.
- 66- Kornei Chukovski (1882-1969) haur literaturan trebatutako errusiar idazlea.
- 67- Józef Pilsudski (1867-1935), mariskala, hil arte 1926ko Polonian, lehen ministro lanak egin zituen.
- 68- Carolina Pavlova (1807-1893) errusiar poeta, Mickiewiczen laguna, garaiko literatur aretoetako ohiko idazlea.
- 69- *Deabrua*, kontakizun autobiografikoa.
- 70- Herri hizkuntzan, poema luze erara idatzitako ipuina (1922)
- 71- Pushkinen birraitona etiopiarra zen. Beraz, Pushkinek “odol beltza” zuen zainetan.
- 72- Serguei Yakovlevich Efron. Bere gutunetan, Tsvietáievak txikigarriaz dei-tzen du, edo izen eta patronimikoaz.
- 73- 1935eko ekainaren bukaeran Pasternak Parisera joan zen kulturaren alde ospatutako mundu mailako idazle kongresuan parte hartzera. Etsikor, kongresuan parte hartzera ukatu zen baina Stalinek behartu egin zuen. Parisen egin zituen hamar egunetan elkarrizketa labur eta bakarra izan zuen Tsvietáievaren familiarekin. Tsvirtáievak irrikaz itxaroten zuen une hori eta oso minduta sentitu zen elkartzea ez gertatzeagatik, “ez-elkartze” izendatu zuena.
- 74- Tsvietáieva, Pasternakekin zuen bere “historiaz” ari da, zalantza gabe.
- 75- Alemanez gutunean:” Izarrak ezin dira desiratu: gozatzen dugu haien distiraz eta” (*Malkoengatik kontsolamendua* izeneko Goetheren poema bateko bertsoa.
- 76- Alemanez gutunean: “Jainko ona”.

## NIRE ANAIA ANDRAZKOA

Tere irastorza

### 1.-

Marina Tsvietaievaren zenbait liburu behin eta hurrengoan irakurri ondoren penatxo izan dut beti errusiera ezagutu ez izanaz, honoko hau, berez, frantzesez idatzia izan arren. Eta hala ere, beste idazle bakan batzuekin geratzen den bezala, beti ezagutu eta mamitu ahal izan dut bere mintzoa: bere estiloa definituko lukeena, batere definitibo izan ezina, mintzo horixe bera bait da, hain zuzen ere; mintzo hori edozein hizkuntzaren harresiak dardarerazi eta edozein inperiotako eremuak lubizi bihurtuko lituzkeenetakoa bait da: amultsua eta heriozkoa aldi berean: parentesi, akotazio, aposizioetan dakar indar guztia. Parentesi eta aposizio bidez indartzen du hitz bat, parentesi eta akotazio bidez kokatzen du ñabarduraren gakoa. Marinaren esaldia itzuli-mintzulika abiatu eta erasokorra egiten da; hizkuntzaren baliabideak esan-nahiaren alde geratzen dira; ez da jokuhutsalik, jokua apustua da aldi oro, idazteko, irauteko, bizitzeko apustua. Literatura ere bizitzeko apustua da:

Poesia lirikoa: lerro puntuz-puntukoa da. Urrutitik begiratuta - beltz eta jarraia, baina gertuagotik begiratuta: jarraikortasunez etengabea puntu artean -hutsa: heriotza. (...)

Liburuak (nobela, poema epikoa, baita artikulua bera ere!) ez du horren berririk. Berezko legeak ditu. Liburuak ez du abandonatzen idatzi duena, izakiak -patuak-, deskribatu duten arimak bizi nahi dute, hurrengo orrialde batzuetan bizitzen jarraitu nahi dute, egunero zerbait gehixeago, amaitzeari uko egiten diote.<sup>3</sup>

<sup>3</sup>) Quinze lettres de Marina Tsvetaeva à Boris Pasternak. Paris: Clemence Hiver, ved. 1991,40-



Baina bizitzeko pasio eta deman, Marina Tsvietaievak ez zuen abagunerik topatu bere aberrian; ez, ordea, atzerrian ere. Modu beretsuan ez zuen sosegurik aurkitu literaturan eta ezta hizkuntzan ere. Frantzesez idatzitako literatura garaikidean aurrenekoetakoa izan genuen atzerri-gustoa hizkuntzan bertan txertatuaz batera, frantzes-idazleentzat beraientzat gogorturikzeuzkaten artikulazio eta junturak malgutzen. Bere esaldiak iraulezinak geratzen dira horregatixe, batzuetan, baina bere estiloa itzuli gabe txertazen da. Bere mintzoa hizkuntza guztiak sortu zituen orro eta aharrausi, murmurio eta xaramela horretan funtsatzen da; bizi den orotan den zelula guztien komunikazio beharrea, eta, haatik, komunikatu gabe hil beharrea.

## 2.-

Erromantizismoaz goiti bederen, idazleak bere burua aitortu beharra izan du, nahiz eta horretarako sarri metonimikoki mintzatu izan den, lotsa erabat ez galtzarren. Aspaldi honetan idaztea ofizio gisa definitu izan da, eta lehen ere beti horren gertu izan ziren Ora et Labora haiek erlijioaren mundutik sormenaren mundura ekarri izan dira. Ofizio hori ikasteko idazle askoren baliabide izan da beste idazleen dietario eta egunerokoa irakurtzea. Gure ametsak Parnasoak santifikatutako idazle izandako haien postura eta hitzez elikatu dira. Hala aitortzen zuen Vargas Llosak Flauberten gutunez, eta halaxe beste askok.

Erromantizismoaz geroztikako lehen idazle haiek hala nahi izan zutelako izan ala ez, kontua da idazletza ofizio bihurtu orduko, sarri izan garela mundu zabalean bere inspirazioaren ura zein osinetik jalgi ote zen jakin nahirik. Rilkerena bere lagunen etxe eta gazteluetan omen, Flaubertena Croisseten. Idazle moder-

noek, modu batera edo bestera idazle izatea beste edozein gauzaren gainetik jarrita bakardadea aldarrikatu dute, esan nahi zutena eta hizkuntzaren arteko zubilanak egiteko. Batez ere hori burutu ezinak aztoratzen zuen Virginia Woolf ere.

Aldiz, hala behar bazen edo behar ez bazen ere, Marinak ez zuen sekula gerizperik izan idazteko. Miseria izan zuen bide-lagun eta hala ere miseria horren aurka duintasunez aritu izan zen beti guztian (azkenera bitarte). Gogoan dut bere gutun batteko pasarte hau:

Ez naiz ni bizimodu honetarako. Dena sute da nigan! Hamar harremanetan murgildua izan naiteke (arren! "harreman!"), bakoitzari ziurta dezaioket sakonik-sakonenetik bakarra dudala. Baina ezin dut eraman bizkarra emanez erantzuterik, den gutxienean ere. Mindu egiten nau, ulertzen al duzu? Bizirik larrutua naiz, zuetako gainerantzekoek armadura daramazuen bitartean. Zuek guztiok baduzue artea ez bada gizarte-bizimodurik; nik, finean, ezer ez dut. Dena mudatu eta desagertzen da, larrua bezala, eta larrupean haragi bizia edo sua dago. Psike naiz ni. Ez da niretzat tokirik inongo formatan -ezta nere bertsoen forma luze-zabal-zabal horretan ere, sikiera.<sup>4</sup>

Tsvietaievaren bizimodua (1892-1941) beti zitekeenik latzena izan zen. Iraultzaren atarian iraultzaile izan zen eta iruultzan leninismoak aurrera egin zuenean, eta bere alaba goseak eta miseriak hil zutenean, bulego kafkiano batean lan egin zuen, bere senarra txuriekin burrukan ari izan zen bitartean. Gerora, urtetan ikusi ez zuen senarraren arrastoari lotu zitzaion eta atzerriraturik bizi izan zen, baina senarra komunisten espia zela eta, bigarrenatzerriraketa modua jasan behar izan zuen. Azkenean semeak Sobiet Batasunera itzuli nahi izan zuenean hari lotu zitzaion, eta bertan, lan-eremu batean zintzilikatu zuen bere burua, fideltasunaren urkabetik, hainbeste deitoratu arren beti fidel izatera era-

<sup>4</sup> KARLINSKY, S. Marina Tsvietaieva. La mujer, su mundo y su poesía. Barcelona: Grijalbo-Mondadori, 1991, 167.or.

man zuen habetik.

Tsvietaievaren arazo haundiena bere hitzekiko zuen atxiki-  
mendua dela esango nuke, eta horixe da, hain zuzen ere, bere  
obra guztian erakusten duena. Besteekiko harremanetan bere bai-  
tatik lekorat bizi da, nahi bada; bere hitzez esaten duenari guztiz  
lotuta:

Gizon orotan, sentimentu orotan- estutasunean naiz, gela oro-  
tan bezala. Ezin naiz bizi, hots, iraun, ez dakit bizitzen -egune-  
tan eta egunoro nitaz kanpo bizi naiz. Gaisotasun sendaezina  
da eta bere izena -arima " 5 (Olga Tchernovarentzako gutuna)

Eta bere hitzekiko lotura horrek zarpailtzen zituen bere harre-  
man guztiak: besteek hitzegiteko manera bezala ikusten zutelako.  
Horixe da behin eta berriz Pasternaki egozten diona eta behin  
Rilkerekin haserretzera eraman zuena.

---

*5 Neuf lettres avec une dixième retenue et une onzième reçue* Paris: Clemence  
Hiver, ed. 1991, 19.or.

Neurri horretan, korrespondentzia bere literaturaren azalpen nagusi bihurtzen da, entzulerik asma ez dezakeen aditasun saio.

Lurreko aztarnak liburuan dion moduan:

Ez naiz nere buruaz maitemindua, nere ianaz naiz maitemindua: aditasunaz. Beste inork utziko balit aditzen nik nere buruari aditzen diodan arreta beraz (niri emana balitz ni emana naizen bezala) modu berean adituko nioke

Nere anaia andrazkoa, gutun -estiloan idatzia da, lehendik Borneyk idatzitako Amazona baten pentsamentuak liburuari erantzuteko bezala, diotenaz. Eta haatik, erantzunik ezak darama idaztera. Azken puntuan, bere amatasunaren defentsa esistitzen den amatasunaren kodeari ez zegokiona da, eta aldi berean, berak ezagun zuen lesbianismoari ere ez zegokiona. Behin eta berriz bizimoduan eta bizierazten zuen literaturan aditzaile bila abiatu eta bere hitzen arrastoa baizik aurkitu ez duen batena da Tsvietaievaren literatura.

Hala moduz, Frantzian 1980ko hamarkadan eta Espainian berri-ritan duen estimazioa ere sobera beharturik dago bere liburuetan agertzen den bizimodu-literatura arteko loturarekin. Komunismoaren moldeen erorketak, edota liburu honi buruz, demagun, feminismoaren birplanteaketaren abagunean argitara eman izanak, lehen argitara ematetik urrundu izanak bezalaxe, erakusten dute

M. Tsvietaievarentzako aditasunik aurkitzea zein zail den.

### **M. Tsvietaievaren bizitzako urte eta hitz gogoangarri zenbait**

1892, Urriaren 9an jaio zen (aintzinako egutegi errusiarrean Irailaren 26ean). Bere ama pianojolea, Rubinsteinen ikaslea, eta bere aita filologo ezagun eta Moskuko Unibertsitateko

irakasle izateaz gain Arte Plastikoetako Museoaren fundatzailea

1894. Bere ahizpa Anastasia jaio zen

1902. Bere ama gaiso zelako Italiako Rivierara joan zen berarekin.

Han ezagutu zituen lehenengo iraultzaile errusiarrak. Gero Lausanan ikasi eta frantzesez idatzi zituen poemak.

1904. Friburgon ikasle zelarik, alemanez idatzi zituen zenbait poema.

1906. Ama hil zitzaion eta Marinak Moskun egin zituen ikasketak.

Galdekizun batean erantzun zuen amarengandik jaso zuela musika, natura, poesia eta Alemaniarekiko atxikimendua. Baita judutasunarentzako pasioa. Judua da, bere hitzetan Bakarra guztien aurka. Heroe izatea.

1910. Bere lehen liburua ematen du argitara. Goizaldeko albuma

1911. Sergei Efron, bere senarra izango zena ezagutu zuen.

1912. Ezkondu eta irailean jaio zen bere alaba Ariadna (Alia), bere lagunik onena bihurtu zena. Bere bigarren liburua ematen du argitara: Linterna majikoa.

1913. Aita hil zitzaion. Beragandik jaso omen zuen lanerako grina, arribismoaren aurkako joera, isolamentua, harrokeriarik eza.

1914. Sofia Parnok poetaren Laguna saileko poemak inspiratuta 1916ra arte iraun zuen amodio- adiskidantzari eman zion hasiera. Bere senarra, Filosofiako ikasle, gudara joan zen.

1916. Ossip Mandelstam poetarekin adiskidetza mina. Verstas l agertu zen.

1917. Irina, bigarren alaba jaio zen. Urriko Iraultzaren ondotik S.Efron Ejertzito Zuriarekin joan zen.

1918. Miseria eta bakardadea. Bere alabak aurrera ateratzeko. Nazionalitateko Herri-Komisaldegian lan egin zuen piska batean.

1919. Lurreko arrastoak liburua idatzi zuen.

1920. Bere alaba Irina goseak hil zuen. Zisneen alorra poesia-sailari eman zion hasiera.

1922. Mosku utzi zuen eta bere alabarekin Berlinera joan zen, senarrarekin biltzeko. Pasternakekin gutun bidezko harreman luzeari ekin zion. Beranduago Pragan jarriko dira, hango gobernuak Errusiako atzerriratuei eskaintako diru-laguntzarekin. Moskun Verstas, Casanovaren amaieraagertu ziren eta Berlinen Blook batetarako poemak, Banatzea.

1923-24. Mendiko poema eta Amaierako poema idatzi zituen, azken hau bere poemarik onentzat hartua. Berlinen Psiqué eta Ofizioa sailak eman ziren argirara. Berlin, Paris eta Pragan Errusiako atzerriratuen aldizkarietan kolaboratu zuen. Ariadna, antzeslana idatzi zuen, Parisen Verstas, In argitara eman zuena, 1927an.

1925. Georgi (Mur) semea izan zuen. Parisera jo zuen seme-alabekin eta han bildu zen berriro senarrarekin. Hala ere, bere bihotzarentzat Borisena zen semea. Pasternakekin izandako gutun-ilada luzean gordetzen den bakarretakoa da orduko gutun hau, Marinaren sentimentuen adierazgarri: Georgi -eginbeharrarekin, adorearekin-, Bolondresekin, nere borondate on trajikoarekin dudan zorra. Hori ere -neu da, ez dut ukatzen. Baina ez zure nia. Zure nia ( ni) Borisen baitan da.(..)

Saldukeria hitz zoragarria da, nolabait, banaketa bezala.

Laban-hitza. Eta ez dut bere soinua baizik ezagutzen, ez esanahia. Soberano bakarra, hau da, sublimea, engainatu.

ahal da, baina nola engaina nezake neuk, nire baitan de-

nez? Egunerokoan, horixe da -saldukeria, baina egunero-

koa bera da saldukeria: arimarena. Egunerokoa nere arimaz

engainatzea: ez dut besterik egin, antza, bizitzan. Hori, bada-

kizu, senar eta maitale arteko bereizkuntzaz bestelakoa da.

(Quinze lettres de Marina Tsvetaeva à Boris Pasternak).

Parisen Arratoi sorgintzailea argitaratu zuen

1926. Pasternakekin eta Rilkekin gutun bidezko harreman sendoak eta zailak jorratu zituen Gutun haietako batekoa da leialtasunari buruz diharduen aipamen hau: Leialtasunak, norbere buruarekin egindako duelo gisara, ez dit balio (ni "tranpolin", h um illagarri da). Leialtasuna, pasioaren iraun -kortasun gisara, ulertezin zait, arrotza (leialtasunak -leialtasunezak bezala- dena bereizten du). Poetaren aberriari buruzko hitz interesgarriok ere hangoxeak dira Poesia jaiotzekiko hizkuntzatik beste baterako itzulpena da -dela hau frantsesa zein alemana, berdin du. Poetak ez du ama-hizkuntzarik. Horregatik ez dut ulertzen poeta frantses, errusiar edo bestelakoez mintzo izatea. Poetak idatz lezake frantzesez, baina ez daiteke poeta frantses izan. Hori erridikulua da.

Poeta bat kritikaz saiakera eman zuen argitara. Rilke Abenduaren 29an hil eta Urte Berriko Gutuna poema idatzi zuen, Rilke oroituz.

1927. Errusiako atzerriratu zenbaitek Efronek boltxebikekin harremanak zituela eta haiengandik dirua jasotzen zuela salatu zuten. Aurrerantzean bide asko itxiko zaio Marina-ri. Berriz miseria-urte luze eta latzak pairatu izan beharko ditu.. Fedra antzerkian lanean ihardun zuen. Anastasia bere ahizpa eta artista askoren lagunak (Gala, Dali, Gorki) bisitatu zuen.

1932. Zenbait saiakera-lan eman zuen argitara. Poeta eta denbora. Lan horretan agertu zituen garaikidetasunari buruzko hitz gogoangarriok: Konrue ez da "bidean laguntzea" (bidelagun izatea) baizik eta eikarrekin sortzea bakartatean. Eta poetek bere garaia egokien bere ahotsaren bidez mintzatzen uzten dionean zerbitzatzen du. Poe-

tak garaia egokien, bere garaiaz ahazten denean (bere garaiak erabat ahaztu duenean) zerbitzitzen du. Ez da garaikide garrasizaleena, baizik eta, batzuetan, gehien isiltzen dena. (\$) . Artea Garaikidetasuna onenek onenen artean duten eragina da, beraz, gaur egungoaren aurkakoa: txarraren eragina txarrenen artean (...) Garaikide izatea norbere garaia sortzea da, ez isladatzea. isladatzekotan ez ispilu moduan, ezkutu moduan baizik. Garaikide izatea norbere garaia sortzea da, hots, hamarretik bederatziren aurka leihatzea, lehen borradorean hamarretik bederatziren aurka leihatu ohi den moduan.

Gai berari buruz ihardun zuen urte honetan bertan idatzi zuen beste saio honetan Artea kontzientziaren argitara. Honela zion: *Ilargian dabil poeta -egia da, baina poeta enda batentzat bakarrik: jaso-jasoentzat bakarrik, izpiritual hutsak direnentzat. Eta ez da ilargian egoteagatik, ilargian bizi egiten da. Konkortuak ordaindu egiten du bere konkorra, aingeruak ere ordaindu egitenditu lurrean bere hegoak. inkorporeitatea, agerkaritik hain hurbil, aide kutsatua, pasio ordezpentsamentua; hitzen ordezespresioa: horiek dira zeruko ostatu hartzaileen zeinulurtarrak (...)* Ona bakarrik den poetarentzat, artea beti da berezko helburua, hots, emankizun hutsa, bera gabe ezin bait da bizi eta bere ardurarik ez bait du. Poeta haundiarentzat eta poeta jasoarentzat artea beti da bidea. Bera ere besteren baten esku dagoen tresna da, bestalde, ona bakarrik den poeta besteen esku dagoen bezala. Ezberdin tasun osoa -eskuen ezberdin tasun fun tsezkoa aparte- poetak menpekotasunaz duen kontzientzia mailan datza. Orduan eta poeta haundiago izan izpiritualki, hots, orduan eta oratzen duten eskuak gorago eduki, eta bere menpekotasunaren kontzientzia (bere esklabotasunarena) da indartsuago.



Frantzesez *Gau florentziarrak Nere Anaia Andrazkoa* idatzi zituen, poeta hil ondoan baizik argitara emango ez zirenak.

1936. Nere Puskhin eman zuen argitara.

1937. Efron, Tsvietaievak ezer ez bazekien ere, " Errusiako Atzerri-ratuak Aberrira Itzultzeko Elkartearantzako " aritua zen la-nean. Ariadna, bere aitaren ideien eraginpean Errusiara itzuli zen eta Efronek, Ignacio Reiiis, errefuxiatu politiko ba-ten hilketan parte hartu ondoren Frantzia utzi zuen eta Erru-siara itzuli, bertan, hil zutelarik azkenean. Sonetskaren his-toria eman zuen argitara, urtetan Sonia Hollidayrekin mantendutako harremanak gogoratzen dituen liburua.

1939. Zalantza haundiak bazituen ere, bere semearekin Errusiara itzuli zen, bertan senarra eta alabarekin biltzekotan. Baina han Ariadna espetxeratu zuten, bere ahizpa Anastasia Kon-zentrazio-Zelai batean ezarri. Marinak Moskun jarraitu zuen oso giro txarrean 1941a bitarte.

1941. Sobiet Batasuna Munduko II. Gerratean sartu zen eta. Moskutik ebakuatu zituzten bera eta Mur. Ez zuen bere sena-rrenen berririk (hilik zegoen). Semea eztanda egin gabeko lehegailu bilatzeko zen brigada batera eraman zuten, ber-tan hilko zelarik. Bitartean, saiatu zen idazle-kantina batean ontzi-garbitzaile aritzen, baina alferrik. Azkenean, abuztua-ren 11n bere buruaz beste egin zuen.

## **Bibliografia eskuragarriena**

*Gazteleraz*

*Cartasala Amazona y otros escritos franceses*. Madrid Hiperion, 1990.

*El diablo*. Barcelona. Anagrama, 1991.

Trespoemas mayores Madrid. Hiperion, 1991.

*El poeta y el tiempo*. Barcelona. Anagrama, 1990.

Indicios Terrestres Madrid. Cátedra, 1992.

*Cartas del verano de 1926 (Rilke-Tsvietaieva-Pasternak)*. México. Siglo XXI, 1984.

### *Katalaneraz*

*Poema de la fi*. Barcelona: Edicions 62, 1992.

### *Frantzesez*

*Tentative de jalousie & autres poemes*. La Découverte, 1986.

*Le diable et autres recits*. L'Age de L'Homme, 1979.

*Ariane*. L'Age de L'Homme, 1979.

*Le poème de la montagne*. Le poème de la fin. L'Age de L'Homme, 1984.

*Correspondence à trois (été 1926)*. Gallimard, 1983.

*Histoire d'une dédicace*. Le Temps qu'il fait, 1989.

*L'art la lumière de la conscience*. Le Temps qu'il fait, 1987.

*Le poète et la critique*. Le Temps qu'il fait, 1989.

*Le poète et le ternpe*. Madrid. Cátedra, 1992.

*Mon frère féminin*. Lettre à l'Amazone Paris: Mercure de France, 1979.

*Neuf lettres avec une dixième retenue et une onzième reçue*. Clemence 1991.

*Quinze lettres de Marina Tsvietaieva à Boris Pasternak*. Clemence Hiver, 1991.

*Les flagellantes*. Clemence Hiver, ed, 1989.

*Indices Terrestres*. Clemence Hiver, 1988.

*Mon Pouchkine*. Clemence Hiver, 1988.

*Averse de lumière*. Clemence Hiver, 1989.

*Le ciel brule*. Cahiers des Brisants, 1987.



### **Nere anaia andrazkoa**

Irakurri dut Zure liburua. Gertu zauzkat idazten duten emakume guztiak bezala. Ez zaitetz itsutu delako “guztiak” horrekin -ez dute guztiek idazten: bakar hauetxek idazten dute guztien artean.

Beraz, gertu zauzkat izaki gisako oro bezala, eta, batipat, andrazko izaki gisako oro bezala.

Gogoan zauzkat ikusi zintudan egunetik -hilabete? Gaztetan, nintzena esateko larri izaten nintzen, beldur, beti, nigandik ateraz bestearengana ninderaman uhinari joaten utziko niola-koan, beldur, beti, ez gehiago maitatzeagatik, ez gehiago jakiteagatik. Baina orain ez naiz gazte eta ikasia dut guztiari joaten uzten-ezinbestean.

Dena esateko eduki -eta ezpainak lasatu ez. Dena emateko eta eskua lasatu ez. Hau duzu birtute burgesa deitzen duzun errenuntzia, eta, burges ala ez, bertute ala ez, nere ekintzen euskarri nagusia da. Euskarri? -Errenuntzia? Bai, zeren indarrari eusteak eskatzen du aleun ahalegin latzagoa ezen ez bere berezko askatzeak! -honek ez bait du batere eskatzen. Hein horretan, naturazko edozein ekintza zeozer pasibo da. Ekintzaz iritsitako pasibotasun oro bezala (isurmen -pairamen -ukapen -ekimen -). Zer da zai1ago: zaldi bati eustea ala korri egiten uztea, eta geu izaki eutsita daukagun zaldia, -zer, mingarriena biotan: eutsia izatea ala gure indarren jolasari amore ematea? Arnasa hartzea ala arnasari eustea? Gogoan al duzu ume-joko hura, ohore osoa ito beharrean kutxa batean denbora luzeenaz zegoenarentzako zeukan hartaz? Joku krudel eta ez batere burgesa.

Ekitea? Eramana izaten uztea. Errenunziatzen dudana baita errenunziatzen dudana. Errenunziatzen dudana baita errenunziatzen dudana. Ni naiz -lur

ikara. Errenuntzia? Harri-bihurtutako borroka.

Nere errenuntziak izena du gainera: ez du aintzat hartzen - indarrean dagoen arauari dela-delakoa hizkatu. Dagoen araua gure auzian? Zure liburua irakurri, zuri eskerrak eman nitaz gabe-tutako hitzez, Zu ikusi noizbehinka "farrirrika zu inork farirrian ikus ez zaitzan"- Zuk ezer idatzi ez bazenu bezala aritu eta, nik, ezer irakurri ez: ezer gerta ez balitz bezala.

Ahal izango nuen, ahal dut oraindik, baina behingoz- ez dut nahi.

Entzun nazazu, ez daukazu zertan erantzunik, aditu bakarrik.

Bihotza urratzera noakizu,zuzenean. Zure Kausaren, Zure sinismenaren, Zure gorputzaren, Zure bihotzaren bihotzera.

Hutsune bat zure liburuan, bakarra, egundokoa- jakinean ala ez? Ez dut sinesten izaki pentsalarien inkoszientzian, are gutxiago -izaki pentsalari idazleenean, ez eta batere -emakumezko idazlearen inkoszientzian.

Hutsune hori, txuriz utzitako hori, zulo beltz hori -Haurra duzu.

Etengabe zatozkio, maiztasunari inportantziaz zor diozuna emanez, berari baino zor ez diozun garrasi bakar izatearen funtsezkotasuna. Ez ematearren, han eta hemen, gero berriz haruntzago ereinez.

Garrasi hori, ez al duzu beraz sekula, bederen, -aditu?- Zurekin haurrik izan ahal banu!

Eta jelsia hori, munduan basa eta bakarra, sendaezinagatik gozakaitz, bestearekin, "arruntarekin" alderazina, amaren jelsia berarekin ere alderaezina. Jelsia hori, nahi-ta-nahiezko hausturaren aintzin ezagutza, berak egun batean nahi eta Zuk, premu horrek ematerik izango ez diozunaren gain begi larri zabal horiek. Etortzeko den haurraren gainean atxikitako begiak.

-“Maitaleek ez dute haurrik”. Bai, baina hil egiten dira. De-

nak, Romeo eta Julieta, Tristan eta Isolda, Amazona eta Akile, Siegfried eta Brunhild (maitale izan daitezkeen horiek, batu-banatu horiek, zeinen amodiozko banatzeak batasun osatuena estaltzen duen...) Eta beste batzuk ...Eta beste batzuk ... Kantu guztietakoak, garai guztietakoak, toki guztietakoak ....Ez dute haurra den etorkizunarentzako betarik, ez dute haurrik etorkizunik ez dutelako, ez dute bere oraina den bere amodioa baizik eta bere heriotza beti oraingoa! Hil egiten dira -edo amodioa da hiltzen (laguntasunean, amatasunean pirtxiltzen da. Baukis zaharra bere Filemon zaharrarekin, Pulkerie zaharra Atanasio bere seme zaharrarekin -bikote itxuragabe bezain hunkigarriak).

Norberagatikako amodioa haurtzaroa da. Maitaleak haur dira.Haurrak ez dira batere haur.

Edo bestela -Dafnis eta Kloe bezala -ez dakigu ezer berrietaz: ezta oraindik diren ere -hil egiten dira, gudan, guretzat. Ezin da amodioagatik bizi.Haurra duzu, amodioaz goiti, bizirik dirauen bakarra.

Eta beste garrasi hori, ez al duzu beraz sekula aditu? -Zenbateraino nahi nukeen haurra -gizonik gabe! Neska gaztearen hasgorapen barrezkoa, neska zaharren hasgorapen txaloea eta, gainera, zenbaitetan emakumearen hasbeherapen ernegaziozkoa.-Zenbateraino nahi nukeen bat -nire-nirea bakarrik.

Eta hona neska gazte barrezaleak, ez bait du atzerritarrik nahi bere gorputzean, ez bait du nahi beretik ez horrenetik, ez duenak niretik baino nahi, hona kale-kantoi batean neroni berriz aurkitzen duela, harako hura, bildurtzen ez duena, beragandik babestu beharrik ez duena, besteari ezinezkoa zaiolako min ematea, ezinezkoa den bezala (gaztetan, bederen) norbere buruari min ematea. Liluratzailleenetako segurantzia eta lagunaren aurreneko begirakuntzaz geroztik zabukatu egin dena bere gorrotoaren bihotz taupada haundien azpira amiltzeko.

Baina ez gaitezen aurreratu: mementuz bera zoriontsu eta aske da, aske bihotzez maitatzeko, gorputz gabe, beldurtu gabe, min eman gabe maitatzeko.

Eta mina emanda dagoenean -jabetzen da ez dela min.

Mina-hau da: lotsa, atsegabea, barrengo harra, higuina.

Mina,gizon bategatik, arima saltzea da, haurtzaroa, etsaiagatik.

Baina ez dago etsairik, ni baita oraindik, beti ni, neroni berriz,

baina nere barnekaldeetan lotan zetzala eta, beste ni honek na-

barmendua, hor, nere aurrean, azaleraratua eta, finean, maitaga-

rria. Ez du emazte bihurtzeko ernegatu beharrik izan, bere buruari

bere gisara ibiltzen uztea nahiko, (berorren barrenaz harataino),

izaten uztea nahiko. Ez pitzaturik, ez hausturarik, ez histurarik.

Eta hitz hori laburtuz:

-Ene ni! Ene ni maitea!

Ene! ez du sekula lotsa edo nazkaz utziko zeharo. Beste zerbaite gatik, oso bestelako batentzat beharko du .

Estrina ez duzu erdi-txantxa baino -Ederra haurra! -Ez al zenuke nahi? -Bai. Ez. Zurekin. -bai -Baina ... Apropos ari naiz, baina ...

Hurrena hasperen bat duzu -Nola nahi nukeen ...! -Zer?

-Ezer ez. -Bai, bai, badakit ...-Badakizunez. Baina -zurea... Isiltasuna.

-Hori al dabilkizu atzera buruan? -Zuk hala diozu. -Baina zeuk esan duzu eta ...

Ez du ezeren eskasiarik, hala ere gehitxo, hala ere, beretik, dena du emateke. -"Maite nahi zintuzket, pittin " -dio emakume-

turik -Maite nahi zintuzket, pittin. Zu berriz. Zerorri berriz. Zerorri, neuk erditua.

Azkenean garrasia ernegatu, biluts, nahi-ta-nahiezkoa da. -  
Haurra zurekin.

Sekula etorriko ez den hori. Bere etorrera erregutzerik ez da-  
goen hori. Eska dakioke Birjinari maitelearekin haurrik, eska da-  
kioke Birjinari agure batekin haurrik -zitalkeri bat-mirakulu  
bat -ez da zorakeria eskatzen dena. Haurra, beste gabe, kanpo  
uzten duen batasuna. Haurraren ausentzia lotua daraman egoera.  
Pentsaezina. Dena, haurra salbu. Errege Nagusi eta aitonenseme  
arteko afari hartan bezala: dena, ogia salbu. Eguneroko ogi haun-  
dia-andrazkoa.

Ez da bataren desio ernegatua baino behin ere, gaztenarena,  
beretarrenarena. Premuak, hark, ez du haur beharrik, laguna  
dauka bere amatasunarentzat. -Zu zaitut laguna, zu zaitut jain-  
koa, zu zaitut dudan guztia.

Baina besteak, ez du haur gisa maitatu izatea nahi, mai-  
tatzeko haurra baizik.

Eta gizonezkoarekin haurrik nahiezta hasi den horrek, azke-  
nean emaztearekin nahi izango du haurra. Eta hori ezinezkoa de-  
lako joango da egunen batean, maitale izan arren bestearen jelo-  
sia argi eta antzuak xerkatua -eta areago egunen batean lur joko  
du, untziklatuak, edozein etorriberriren besoetan.

(Ene haur, ene lagun, dudan guztia, eta -Zure hitz jeniala.  
Andere-nere anaia andrazkoa, sekula ez: ahizpa. Esan liteke  
ahizpa hitzak bidurtu egiten dituela, hitzak, indarka, betirako ir-  
tendako mundu batetara bihur balitza bezala).



Hasteko, premua besteak nahi baino beldurtuago da. Esan daiteke premua dela ernegamentua sortzen diona, irria hasperen bihurtzen diona, hasperena irri, desioa obsesione. Premuaren obsesioneak sortzen du gaztearena -Joango zara, joango zara, joango zara. Nirekin nahi ez duzuna edozein etorriberrirekin nahi izango duzu ... Horretan ari zara pentsatzen berriz ... Gizon horri begiratu diozu. Ala -nolako aita zure haurarentzat! Zoaz, ezin eman diezazukedanez ...

Gure errezeloek gomutarazi egiten dute, gure beldurrek idarokitzen, gure obsesioneek haragiztatzen. Gazteak, isiltzearen poderioz, horretaz pentsatzen du etengabe: begirik ez besoak beteta daramatzen emakume gaztearentzako baino. Eta nik sekula bat izango ez dudala esatea, sekula, sekula utziko ez dudalako. (Utzi ordu horretan uzten du).

Haurra -aurrerantzean begirik kendu gabe zainduko duen puntu bakarra. Atzera utzitako haurra bere begien azaleraino igotzen da, itotako baten gisa. Itsu behar du batek ez ikusteko.

Eta emaztearekin haurra nahi izanez hasi denak, azkenean edozeinekin nahi du haurra: gorrotatutako gizon haretzekin. Gizon pertsekutzailea salbatzaile suertatzen da. Laguna -Etsaia. Eta haizea haize-begietara itzultzen da...

Haurra sortu baino askoz ere agudoago da gugan sortua. Bada itxaropen urterik, desesperantza eternitateak irauten duen haurdunaldirik.

Eta lagun guztiak ezkontzen. Eta lagunon senarrak horren alaiak, horren zabalak, horren hurbilak ... Eta esan beharra neuk ere...

Harresiztatua.

Bizirik lurperatua.

Eta lan besteak egiten du. Zeharresanak, aieruak, destainuak.  
Gazteak -Ez nauzu, beraz, jada maite? -Maite zaitut, baina  
-joango zarenez.

Joango zara, joango zara, joango zara.

Joatea baino nahiago izango du hiltzea. Gero, hiltamuan, ba-  
tere jakin gabe, batere premeditatu, batere pentsatu gabe, bizi-  
sena huts eta hirukoitzagatik -gaztetasuna, iraupena, erraiak -  
barrez eta trufan entzungo du bere burua sekula hutsegin gabeko  
zitaren orduan hiriaren -eta bizitzaren bestekaldean -edozein-  
ekin-bere lagunaren senarrarekin edo bere aitaren peko batekin,  
berori ez izatea asko.

Gizona, emaztearen ondoren, bai txalo, bai on. Nolako zabal-  
tasuna. Nolako askatasuna! Nolako araztasuna .

Gero, amaiera izango da. Maitalearen hasiera? Maitaleen  
ibilkerak? Senarraren egonkortasuna?

Haurra izango da.

Alde batera utziko dut salbuespenezko kasua: emazte ez-ama-  
tarrarena.

Alde batera utziko dut balio gutxiko kasua ere: neska zabar-  
tuarena, dela senez dela modaz: atseginaren izakia, beti lazoa.

Alde batera, oraindik, arima-erratuaren kasu berezia ere,  
amodioan arima aurkitu nahi duenarena, beraz -emaztearentza-  
ko aukera-aukerakoa.

Eta maitari haundia, amodioan amodioa aurkitu nahi duena

eta bere ongia topatzen duen tokian hartzen duena.

Eta kasu medikala.

Kasu arruntari helduko diot, berezko eta bizizko kasua izaki gazte andrezkoarena, gizonaren beldur izanda emaztearenganantz joan eta haurra nahi duenarenari Atzerritarra, axolagabea, arean etsai-errebelatzaile eta maite atzeratzaiearen artean, azkenean etsaia aukeratzen duen izakiari.

Haur bat ukaitea maitatzea baino nahiago duenari.

Bere haurra bere amodioa baino nahiago duenari.

Haurra ondasun berekizkoa bait da, gudan da amodio aurretik, maitale aurretik. Bere izan-irrikizioak zabal erazten dizkigu besoak. Neskatxa gazte bat, Iparraldeko hauetaz dihardut, amodioarentzako gazteegi da beti, ez sekula haurarentzako. Hamairu urterekin -haurrarekin egiten du amets.

Eman behar zaigun ondasun berekizkoa. Batzuk emalea maitatuz hasten dira, beste batzuk. azkenean maite izaten dute, beste batzuk azken ordurako jasan egiten dute, beste batzuk azkenean ezin jasan dute.

Eman behar zaigun ondasun berekizkoa. Ematen ez digunak harrapatu egiten digu.

Eta aurkituko dugu berriz, besoak bete-beteak eta aldiz aurretian bihotza gorrotoz betea, gaztetako akats -eskertzarreko. maite ez duten guztiak bezala, bidegabe oraindik maite duten guztiak bezala-kalifikatu duenarenganantz.

Ez dute berriz harrapatuko.

Ez zaitez nerekin mindu. Amazonari erantzuten diot, ez ezer eskatzen ez didan ikuskizun andrezkoari. Ez liburua eman zidanari, idatzi zuenari.

Haurra sekula aipatu ezean, aproposko ahaztetzat onartuko nuen, isiltasunezko azken errenuntziatzat, errespetatu egingo nuen orbain zelakoan. Baina behin eta berriz ekiten diozu, pilota gisara jaurtikitzen duzu behin eta berriz: "Zer nolako eskubidea dute bizitza osatu eta desegiteko? Bi haur -bi utzikeria", etab.

Hortxe duzu, elkar maite duten bi emaztek osatzen duten iza-kunde bereineko horretan, erasotzeko moduko gune bakarra, urradura bakarra. Ezinezkoa, gizonaren tentabideari eustea ez baino, haurraren premiari eustea duzu.

Hortxe kausa erabat hondatzen duen gune ahul bakarra. Etsaiaren gorputzari erabat sartzen uzten dion erasotzeka laineko gune bakarra. Ezen noizbait gizonik gabe haurrik izan ahal bageneza ere, ez genezake inoiz emaztearengandikako haurrik, maitatzeko moduko xurik .

(Alaba-ordekorik? Ez zure, ez nere? Gainera, bi amaduna?

Ondo asko betetzen du naturak bere eginbeharra).

Haurra: kausa erabat hondatzen duen erasotzeko moduko gune bakarra. Gizonarena salbatzen duen bakarra. Eta gizaldiarena.

Izakunde osoegia. Batasun bategia. ("Bik ez dute bat baino osatuko". Ez.-bik hiru osatuko dute). Inora ez daraman bidea. Luparia. Gatozen lehengo bidera.

Ederrena zarela, Hura zarela ere -lehen zeroa aterako da

garaile zugandik. Bedeinkatua izango den zeroa. Bitartean zu madarikatua geratuko zara.

-Baina kasu bera da honoko gizon honekin haurrik izan ez daitekeenean. Hura uzteko arrazoi al da?

Ezin dira alderatu salbuespenezko kasua eta salbuespen gabeko araua. Enda osoa, kausa osoa, gauza oro kondenatzen da emazteen arteko amodio kasu bakoitzean.

Idorra bere anaia ugalkorragatik uztea ez da betiguztiko idorra betiguztiko ugalkorragatik uztea. Hartan gizon bakarrari baino ez diot egiten agur, honetan agur enda osoari egiten diot. Kausa osoari, emazte guztiei bakar batengan.

Objetuz baino ez aldatzea. Ugaltaran eta munduz aldatzea.

Ene! Badakit,zenbaitetan honek heriotz ordura arte irauten du.

Ikuskizun samurtzaile eta izutzailea, Krimeako ugaltaran basati batean, dagoeneko adinean sartu eta bizimodua elkarrekin eman duten bi emazterena. Bata, egun Frantzian horren irakurria den pentsalari eslabiarraren arreba. Kopeta argi bera, ekaitz-begi berak, aho haragitsu eta biluzi bera. Baina bere inguruko hutsunea, askoz zen hutsagoa, bikote antzu arrunt batena baino, hutsune isolatzaileago, hustzaileagoa.

Ezer ez, ezertarako -enda madarikatua.

Orduan gerta liteke, gaztea argia bada, madarikazio honen beldurrak joan eraztea.

"Munduak esan beharrekoak" ez du funtsik, ez du funtsik batiere, dioen guztia gaizki esana bait da, ikusten duen guztia -gaizki ikusia. Ikusi-ezinaren, jakin-nahiaren, ezaxolaren begizkoa. Ez du zeresanik munduak gaiztakerian datzan horrek.

Jainkoak? Behin betikoz, Jainkoak ez du zerikusirik haragizko amodioan. Bere izenak, maite den edozein izeni jarri ala kontrajarri, maskulinoa ala femeninoa dela, sakrilegio antzekoa dema aditzera. Badira gauza izari-ezinak: Kristo eta haragizko amodioa. Jainkoak ez du zerikusirik miseriotan, nola eta ez den gu sendatzeko. Behin betikoz esan zuen: -Maite nazazue, Betiguztikoa. Horretaz kanpo -dena da alferrik. Alferrikakoak, orobat eta bestelaezinean. Honelako amodioz gizaki bat maitatzeagatik beragatik, gaizki saltzen dut, Kristo, ni eta besteen alde, beste amodioaren gurutzean hil zen Hura.

Eleizak eta Estatuak? Ez dute ezertaz zeresanik izango, milaka gizon gazte elkar hiltzeko bultzatzen eta bedeinkatzen duten bitartean.

Baina zer esango du, zer dio naturak gure zeharbidetza fisikoen mendeku-hartzaile eta justiziati bakar izanda? Ez: Naturak diona. Gurea galeraziz babestu egiten da bera. Jainkoak, zerbait galeraztean, gureganako maitasunaz egiten du, naturak, gurea galerazten duen bakoitzean bere burua maite duelako egiten du, bera ez den guztiarentzako duen gorrotoagatik. Naturak korapea Orfeoren buruak lur-hartzen duen irla adina arbuiatzen du. Bere mendekua dugu hildura. Korapean, Jainkoa dugu lagun, bakarrik, han, Irlan, itsasoa bakarrik bertan itoerazteko.

Irla -lur ez den lehorrarena, irtenbiderik ez duen lehorra, maite behar den lehorra bertara kondamnatuak gaudenezkoan. Dena ikusi ahal eta ezer egin ez daitekeen tokia.

Urrats jakin batzuetzako lehorra. Luparia.

Poetisa haundi izan zen zorigabeko haundiak ondo aukeratu du bere sorlekua.

Legenardunen auzokotasuna.

Naturaz kanpo. Baina nola liteke orduan neskatxa gaztea, naturazko izaki hau, bete-betean, hain sineskorki desbideratzerik?

Arimaren azpijokua duzu honakoa. Premuaren besoetan erortzean ez du harrapatzen ez naturaren azpijokuak, ez eta maitearenak ere, hau maizegi jo arren liluratzaille, ehiztari, harrapakaritzat, are -banpirotzat, bitartean delarik, ia beti, bidegabekeria bakarra jendearen nondikoa eta aurrez esan dezagun -norakoa ere ikusi gabe ikustea duen izaki mingots eta prestua. -Neskatxa gaztea arimaren azpijokura erortzen da.

Maitatu nahi du -baina... nahi luke -baldin.... eta horra beste baten besoetan, burua arimaren bizileku den bularrean.

Arbuiatu? Galde dezaiegun gizon zahar eta gazteei.

Hurrena, topaketa dator. Ustegabe eta ezinbestekoa, ezen -aintzina bi mundutan bizi izanagatik -ludia bat bera da beti: ibiltzeko duguna.

Bihotz-kolpea, odolaren gora-beherak. Eta aurreneko zein azkeneko emazte-arma -zeinekin heriotza bera ere armagabetzen den, armagabetu uste den -bere azken kuraia ahula -ahobizar bizi eta goritua -barre-irria. Geroago dator silaba ezkonezinen isuritxoa bata bestearen gainean amilka, harri-gainekoboldoki txikiak bezala. Zer esan du? Ezer ez, lehenengo hitzetan ezer aditzen ez dugunetan bezala, besteak ezer aditu ez duenez ... Baina hara nola besteak begi kentzean aho dardariztatuak nabaritzen duen mugimenduaren esanahia :...hamar hilabete ... amodio bat... guztien gainetik nahiago nau gizonak .... pisua du. (Irentsi, irentsi, irentsi oraindik, irentsi berriz dena -egin didazun guztia-gatik!)...Orduan nion -pisua du ...(Ludi osoak baino haundiagoa, Premuaren bihotz gainean itsaso guztiak baino haundiagoa).

Mendekuaren guria! Eta begietan -halakoxe herra! Azke-  
nean askatutako neskamearen herra! Bihotz hankaperatzearen  
gurikeria!

Eta isuritxoa erabat eutsita -baga geldo eta kantariak, gar-  
denak: -Nahi al duzu ni ikustera etortzea, gu, senarra eta biok,  
ikustera...

Ez du ezer ahaztu. Gehitxo gogoratzen du.

Gerora dator bainua, eguneroko eta santusakratua. Gizonta-  
sunaren garaipen -nabarmen -eta ia-ia gogaitgarria. Berehala  
bait da semea, semea beti, natura, bere eskubidetara itzultzeaga-  
tik harro, luzatuko ez balitz bezala alaba baten bidean. Eta xu hori  
erregutu eta ezinezkoa -mutikoa, berez datorrena, eskatu gabe  
etorria, enkarguz, ondorio hutsa (helburu eskerga!)

Bestea, azken itxaropenean senpertia, ala bestegabe zer esan  
asma ezinda.

-Zure antzekoa da. -Ez (labur eta ozen). Izen labur eta ozena.  
Eta azken azkona, zeinetik ihes egin dezakeen behar bada amo-  
dioa den pozoi-puskaren azken hondarrak.

-Bere aitaren antza du. Nere senarraren erretrato-garbia da.

-Nahitazko arrunkeria dario mendeku honi. Ez ditu hitz minga-  
rrienak, arruntenak, guztientzat dauzkanak baino esaten (errepa-  
raiozu maite izan duzun kasu ohikoari). Aukera ala sena? Berez  
datorchio, entzuten dio bere buruari (behinola, aspaldian, barrez  
entzun zion moduan ...). Gero, errittoa amaiturik, Moises salbatua  
jantzita, bularra ematen dio eta -mendeku gorena -inude-beti-  
le jaitsien azpitik zelatatzen du premuaren begietako espazko



dirdira, samurtasun-bapainuan itoa. Ezen bada emazte ororen baitan, ez bada ankertzarra, ezen bada ankertzar ororen barrenean ere.. ., ezen ez baita ankertzarrik emazteen artean.

Dirdira hori, irri hori -ezagunak ditu, baina -arrazoi bategatik edo bestegatik-ez ditu begiak jasoko.

Gizona azkarra bada ez dio sekula galdetuko -Zer duzu buruan?

Behar bada, bestea joan orduko, burua apurtu nahi izango du. Behar bada, bestea joan orduko, ez du bere ahoa eman nahi izango.

Gizona azkarra bada ez du berehalakoan besarkatuko, itxarongo du besarkatzeko -bestea joana izatea-behin betirako.

(Zergaitik etorri da? Bere buruari kalte egiteko. Hori da, zenbaitetan, geratzen zaigun guztia).

Hurrena beste topaketa etorriko da, kontra-topaketa, ordainketa izango da,beraz.

Lur bera (horretaz gain, aipatzea merezi duen ezer ez, ezen gertatzen den guztia, horren barruan gertatzen da).

Denak batbederak, ikusle eta entzuletarako (Naturaren azken mendekua: bakarregi egon izanagatik, bateginegiak, gehitxo bata bestearentzat, ez dute berriz elkar-ikusiko ez bada guztiekin eta bere artean guztia dutela)

Garai bera: gaztetasunaren eternotasuna, den heinean.

-Begira, ez al da zure laguna hor doana? -Non? -Hor, urdinez jantzitako beltzaranarekin.

Ikusi aurretik, badaki.

Eta hara nola giza-uhinak, itsasoetakoa baino ezgizatiarrago eta itzuriezinagoa, daramakion, daraman ...

Oraingoan premua hasten da:

-Zer moduz zaude (eta itxaron gabe, entzun gabe .) -Utz  
iezadazu nere laguna aurkezten, halako (izen bat) Andereñoa ...  
Lehenagokoa, zeinari odol guztiak ihes egin dion makilaiape-  
ra, bilori bazen -oraingoa, ordezkoa, hutsegin gabe, beltzarana  
izango da ... Funtsik gabe-derrigorrez. Hilosteko leialtasuna?  
Erabateko heriotzaren irrikia? Ala oroitzapenentzako zori-ukal-  
dia? Biloritasunik batere ezin-ikusi? Lege bat da. Gizonezkoei gal-  
detu zergaitia.

Badira akabatzeko laineko begiradak. Ez dago halakorik,  
beltzarana badoa eta, bizi asko, premuaren besotik-maitea. Bere  
soineko luzearen uhin urdinek inguratuta geratzen dena eta doa-  
naren artean itsasoen ezinbestekoa.

Gauean, loti gurtuaren gainean makurtua: Ene! Jean, baze-  
neki, bazeneki, bazeneki jakin ...

Ez haurra jaiotako egunean, gaur daki, hiru urtez beranduago,  
kostatu zaiona.

Bestea gazte den bitartean, beti iku-siko dute aldamenean  
errainu bizi bat duela.

Beltzarana aldatuko da: bihurtuko da bilori ala bihurtuko da  
ilegorri. Beltzarana joango da lehen biloria bezala. Sekula ez da-  
bilen zuhaizpean aboroan piska baterako jarri ondoren ibilkera  
guztiak bere helmuga ezezagunera -beti bera -joaten diren  
bezala.

Denak -iragango dira. Denak iragango iirateke handik, bal-  
din eta. ..Baina bat ez da gazte betiguztirako.

Bestea! Gogora dezagun. Irla. Betiguztian isolatua. Banan-ba-  
nan alaba guztiak galduz, betiguztirako galduz, zeren beraien

haurrik besoetan jartzera ez etortzeaz gain, kale-kantoi batean ikustean, egingo bait diote, ebaska gurutze-santuaren bat buru bilorian. Andrazko leinuan Niobe, beste ehiztari horrek, hain basak, purruskatua. Betiguztiko galtzailea, merezi duen -eta dagoen -joku bakarrean. Laidoztatua. Atzerriratua. Madarikatua. Gorputz gabeko ikuskizun zuria, zeinen enda ezagutzen ez dugun, ez bada begiratu ezagutzaile, berrezagutzaile, neurtzaileagatik, non taxukeria idolatraren ondoan den, xake-jokalaria beatifikatuarenean -sakontasun maila zenbaiteko begirada, eta non azkena suertazen den beti azken aurrekoa, amaigabe, barrenik gabe, kalifikatzaile guztiak handik irangango dira, amildegi bat bait da -begiratu esanezina, errenunziaren irrifar negutiarrak ezaba tua .

Gazte, irribarrean da ezagun, zahar berriz irribarrean ezezagun.

Gazte ala zahar, haiek dira arima aidea haundienekoak. Gainerantzeko guztiak gorputz-aideaz, ez dira, ez dira horrelako, edo bolada baterako dira.

Bera irla batean bizi da. Irla sortu du. Irla da. Irla, konta-ezineko arima-kolonia. Auskalo, une honetantxe, Indietan, han, munduaren mugaldean ...neska gazte bat, bere ile beltza bilduz ...

"Auskalo"ek -elikatu egiten dute.

Eta hori da oraingoz ziurrena.

Bakarrik hilko da, harroegi bait da txakurrik maitatzeko, gogorazaleegia haurrik adoptatzeko. Ez du nahi ez txakurrik, ez umezurtzik, ez andre-lagunik. Ez du neskatx-lagunik ere nahi. Dabid Erregea Avizag-en bero bizigabeaz berotzen, trauskila zen. Ez du ordaindutako berorik, maileguzko barre-iririk nahi. Ez du ez banpiro, ez amona izan nahi. Hori ondo dago, zahartuta, honda-

rrekin beste lehor batzuei begira itzulinguruekin -beste ukalondo, beste aho batzuetarako musuekin -geratua, zoriari ostutakoekin kontentatzen den gizonarentzat. -" Zatozte neskatxoak, zatozte... ". Bera ez da sekula izango beste baten gaztetasun-oturuntzan senide landerra. Ez laguntasunik, ez estimaziorik eta ezta gure ontasunaren beste amildegi hori ere, ez du ezer jarriko amodioaren tokian. Ez dio sekula uko egingo aitzinako pozaren suaren beztasun oparoari. -Fausto, zurea bezain magiko den oborari!- Udaberri guztien aurka -tinko eutsiko dio.

Baita neskatxarik bere kontra oldartzen bada ere, haurra oinezko edo harresi baten kontra oldartzen diren bezala -oinezko, atzera izango du, harresi, asaldazina izango da. Suak hartutako maitale hau, zahartuta, garden izango da harroaren harroaz. Bere bizi osoan beldur eman duenak, ez du halako beldurrik eman nahi izango. Deabru gaztea ez da bihurtuko lamia zahar.

Ongura -amorea -distantzia.

"Zatozte bizkor, txoro eta ederrok "  
 Bolborategi baten horma azpian  
 denborak ia-ia atzekoz-aurrera jarriak,  
 Eskua, zeuen argitasun aurrean  
 Zatozte, neskatxa-gazte, zatozte. "

Baina gizon hura -hura, bere biloritasun iraganeko guztien loria legezkoan da iragaiten. " Andrea-izu-bapainuan.

Bere gain, bere joera halabeharreko eta naturazkoaren gainean, ez Jainkoak ez gizonak, ez bere errukiak ere ezin izan zutena, bere harrotasunak ahal izango du. Eta bere gisara ahal izan ere. Eta horren ondo ahal izango duenez neskatxa eternalak arras latsatuta, esango dio amari: -Beldurtu egiten nau andere horrek. Hain da itxuraz zakarra, zertan hutsegin dut berarekin? ...

Eta beste batek, amak "anderearengana" eramandakoak - zeinek daki zergaitik? -entzuten dio inhibizioak pitzatu bezala egiten duen ahotsaz: -Zure amak esan dit pinturarako maina duzula. Norbere adimenak landu egin behar dira, Andereño ...

Sekula ez tindatua, ilea koloreztatua, ez sekula gaztetua, azkarrtua, zuritua, hori zaharkitu "ohikoentzako"utziz, guztien begien aurrean, abadearen bedeinkapenarekin, 60 urterekin hogeiko haur batekin ezkontzen direnentzat. Zesarren arrebentzako uzten dítu halakoak.

Halabeharrezko eta naturazko joera mendiarena haranerantz, uharrarena urmaelerantz.

Mendia, arrastirian, osorik atzeratzen da gailurreraino. Arratsean, gailur da. Esan liteke bere uharrek jasotzen dutela erresuika. Arratsaldean, jabetzen da berriz bere buruaz .

...Gero hurrengo batean, gazte-izanak jakingo du nonbait ludi beraren beste mutur batean, hila duela premua. Hasieran idatzi nahi izango du jakiteko. Denbora, ordea, luzeiritzirik –gutuna higikaiztuko da. Desioak desio iraungo du." Jakin nahi dut" "nuke" bihurtuko da; gero -" ez nuke jada nahiko" -Zertarako, hilda dagoenez?. Neu ere hilko naizelako noizbait ... Eta ausarki, axolagabekeriaren egitasun haundiaz: -Bera hilda bait dago nigan -niretzat -azken hogeitau urteotan?  
Ez da hil beharrik hilik egoteko.  
Irla. Gailurra. Bakarrik.

Sahats negartia!. Sahats atsegabetua! Sahats, emazteen gorputz eta arima! Sahatsaren lepazur atsegabetua. Aurpegira eramandako ilai urdina, sekula ezer gehiago ez ikusteko. Lurraren aurpegia erraztatzen duen ilai urdina.

Urak, aideak, mendiak, zuhaitzak, barrenean horren gordea  
datzan gizakien arima ulertzeko guri emanak. Sahatsa lur jotzen  
ikusten dudanean ulertzen dut Safo.

*Clamart, 1932ko azaro-abendua (1934an ilea urdinduagorik  
jaso eta berrikusia*